



Arabako Batzar Nagusiak  
Juntas Generales de Álava

# **ARABAKO BATZAR NAGUSIEN FUNTZIONAMENDU ARAUDIA**

**17/2013 FORU ARAUAREN, APIRILAREN 22KOAREN, BIDEZ ONETSITAKOA**

**(ALHAOKO 55 ZK., 2013KO MAIATZAREN 15EKOA)**

## ATARIKO TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua

1.- Arabako Batzar Nagusiak, Lurralde Historikoko herritarren ordezkartzeko eta herritarren parte hartzeko organo gorena dira, Arabako legebatarra dira.

2.- Arabako Batzar Nagusiek araugintza-ahalmena gauzatzen dute, ahalmen horren emaitzak balioesten dituzte, diputatu nagusia aukeratzen dute, Lurralde Historikoaren aurrekontuak onartzen dituzte eta Foru Aldundiaren ekintza sustatu eta kontrolatzen dute.

### 2. artikulua

1.- Euskara eta gaztelania dira Arabako Batzar Nagusietako bi hizkuntza ofizialak. Batzar Nagusietako argitalpen ofizialak bi hizkuntza horietan idatziko dira.

2.- Batzar Nagusiek bi hizkuntza horien ofizialtasuna bermatuko dituzten giza baliabide eta baliabide material guztiak gaituko dituzte.

## I. TITULUA.- BATZAR NAGUSIAK ERATZEA

### I. Kapituluak.- Batzarkideak akreditatzea eta karguak hartzea

### 3. artikulua

1.- Hauteskundeak burutu ondoren eta emaitzak zein diren jakinda, aukeratuak izan diren Batzarkideek Batzarkide direla egiaztatu ahal izateko euren hauteskunde-batzarrak egindako ziurtagiria entregatu beharko dute Batzar Nagusietako Idazkaritza Nagusian.

2.- Aldi berean, identifikatzeko fitxak bete eta sinatu beharko dituzte eta fitxa horietan euren datu pertsonalak, zer kargu publiko dituzten eta diru-sarrerak ematen dizkieten jarduerak zein diren jarri beharko dute, baita ohiko helbidea edo jakinarazpenerako helbidea zein den ere.

3.- Idazkaritza Nagusiak jasoko du zehazki zein orduan aurkeztu diren horiek guztiak, eta hurrenkera horren arabera osatuko da Batzarkideen zerrenda. Aurkezpen ekitaldian, tramite hori bete dutela egiaztatzen duen agiria emango zaie halakorik egin dutenei.

### 4. artikulua

1.- Batzarkide hautatuak bildu egingo dira -Batzorde Iraunkorreko lehendakariak deialdia egin ondoren-, Batzar Nagusietako osoko bilkuren aretoan (Vitoria-Gasteiz), Hauteskunde-batzarrek Batzarkideak izendatu eta hurrengo 10 egun baliodunen barruan; epea dagokion Eremuko Hauteskunde-batzarra egindako azken izendapenaren egunean hasiko da.

2.- Adin Mahaia izendatu arte, Batzorde Iraunkorreko lehendakariak eta Mahaiaik zuzenduko dute eratze bilkura.

## 5. artikulua

1.- Batzorde Iraunkorreko lehendakariak eratze bilkura irekitzat joko du eta idazkarietako bati aginduko dio egiaztatutako Batzarkideei deitzea (egiazttagiriak aurkeztu dituzten hurrenkeran); gainera, horien aurka aurkeztu ahal izan diren eta ebazteke dauden errekurtsioak ere aipatuko ditu idazkari horrek.

2.- Jarraian, Adin Mahaia osatuko da; ondokoek osatuko dute: bertaratuen artean zaharrena den Batzarkidea (lehendakaria izango da) eta Batzarkide gazteena (idazkari lanak egingo ditu). Une horretan Batzorde Iraunkorreko lehendakariak eta Mahaiaik euren funtzioak utziko dituzte.

3.- Adin Mahaiko idazkariak, lehendakariak eskatuta, bertaratu diren Batzarkideen zerrenda irakurriko du, eta Batzarkideek ekitaldian daudela adieraziko dute. Horrekin, Araudi honen arabera exijituko zaizkien betebeharrak beteko dituztela eta Araudi honetan xedatzen diren eskubideak onartzen dituztela adierazten dute.

## II. Kapituluak.- Mahaiko kideen izendapena

### 6. artikulua

1.- Adin Mahaia osatuta, bilkuran behintzat Batzarkide hautatuen gehiengo osoa badago, Batzar Nagusietako Mahaia aukeratuko dute isilpeko bozketa eginez.

2.- Gehiengo hori ez badago, bi egunen buruan berriz bilkura egingo da eta, bertaratuen kopurua edozein izanda ere, Mahaia izendatuko dute aurreko atalean xedatutakoaren arabera.

### 7. artikulua

Batzar Nagusietako Mahaia lehendakariak, 1. lehendakariordeak, 2. lehendakariordeak eta bi idazkarik (1. eta 2.) osatuko dute.

### 8. artikulua

1.- Adin Mahaiko lehendakariak bilkura hamabost minutuz eten dezake, Batzarkideek hautagaiak aurkez ditzaten Batzar Nagusietako Mahaia osatuko duten karguetarako.

2.- Bilkurari berriro ekitean, bidezkoa bada, lehendakariak aurkeztu diren hautagaien izenak irakurriko ditu eta esango du zein Batzarkidek egin duten proposamen bakoitza. Ondoren isilpeko bozketa egingo da.

## 9. artikulua

1.- Lehendakaria aukeratzeko, Batzarkide bakoitzak izen bakarra idatziko du horretarako eman dioten txartelean; emandako botoen gehiengoa lortzen duena izango da lehendakaria.

Berdinketa gertatuz gero, berriro bozkatuko dute berdinketa lortu dutenen artean aukeratzeko, eta berdinketarekin jarraituz gero, Arabako Lurralde Historikoko Batzar Nagusietarako hauteskundeetan boto gehien lortu zituen alderdi politiko, koalizio, federazio eta hauteskunde taldeko hautagaia izango da lehendakari.

2.- Prozesu bera jarraituko dute lehendakariordeak aukeratzeko. Biak alde batera aukeratuko dituzte. Batzarkide bakoitzak izen bakarra idatziko du txartelean, eta boto gehien lortzen dituzten bi hautagaiak izango dira, hurrenez hurren, lehen eta bigarren lehendakariorde.

3.- Idazkariak aukeratzeko, lehendakariordeak aukeratzeko modu berean egingo da.

4.- Lehendakari zein idazkariak aukeratzekoan berdinketa egonez gero, lehendakaria aukeratzeko ezarritako prozedura berari jarraituko zaio.

## 10. artikulua

Bozketarekin hasteko, Batzarkideak alfabetoko hurrenkeran deituko dituzte. Lehendakariari bozketaren txartelak emango dizkiote eta honek ontzian sartuko ditu. Amaitzeko, Adin Mahaiko kideek bozkatuko dute; azkena lehendakaria izango da. Kargu bakoitzaren bozketarekin amaituta, zenbatuko dira botoak. Hori egiteko, lehendakariak ontzitik txartelak aterako ditu eta idazkari lanak burutzen duenak ozenki irakurriko ditu, emandako botoak zenbatu ahal izateko.

## 11. artikulua

Lehendakariak Mahaiko karguen hautaketaren emaitzak emango ditu eta Adin Mahaiaren jarduera eta funtzioak amaitutzat joko dituzte.

## 12. artikulua

Batzar Nagusietako legelari nagusiak, edo araudiaren arabera bere ordeaz ari denak, bozketaren garapenari eta emaitzei buruzko oharra hartuko ditu, akta egingo du eta Adin Mahaiko kideek sinatuko dute aipatutako akta hori.

### III. Kapituluak.- Bateriaezintasunen behin-behineko Batzordea eta Osoko Bilkura

## 13. artikulua

1.- Aurretik aipatutako bozketak amaitu ondoren, aukeratutako lehendakariak Batzar Nagusiak eratutzat joko ditu, eta horren berri emango dio funtzioetako diputatu nagusiari.

Ondoren, 16. artikuluan aipatutako batzordea izendatuko dute. Talde politiko, koalizio, federazio eta hauteskunde taldeetako kide banak osatuko dute aipatutako batzordea eta kide horiek boto haztatua izango dute.

2.- Lehendakariak hurrengo bileraren deialdia egingo du; hurrengo hamabost egunen barruan izango da eta gai bakarria landuko dute: Batzarkideen bateragarritasunari edo bateraezintasunari buruzko irizpena onestea, bidezkoa bada. Horrekin, eratze bilkura amaitutzat emango dute.

#### 14. artikulua

Eratze bilkuran bere kargua hartu ez duten Batzarkide hautetsiek, ondoren egingo den beste Osoko Bilkura batean har dezakete kargua; Osoko Bilkura horretan 5.3 artikulua exijitzen dituen baldintzak bete beharko dituzte.

#### 15. artikulua

1.- Mahaiko kideak aukeratzeko eta Bateraezintasunen behin-behineko Batzordea izendatzeko bozketak egiteko, ez dute itxaron behar hauteskunderen baliozkotasunaren eta Batzarkide hautetsien izendapenen aurka jarritako errekursoen emaitzak eta emandako epaien ondorioz egin ahal izan daitezkeen beste aukeraketa batzuen emaitzak jakin arte.

2.- Baina beste Mahai bat aukeratuko da ondoko kasuan: hauteskundeetako auzi errekursoen epai irmoen arabera Batzarrak osatzen dituzten aulkien ehuneko hamar baino gehiago aldatu behar bada. Aukeraketa hori Batzarkide berriek euren Batzarkide egoera gain hartzen dutenean egingo da.

#### 16. artikulua

1.- Bateraezintasunen behin-behineko Batzordeak, zazpi eguneko epean, erutzen denetik, Batzarkide bakoitzaren bateragarritasunari edo bateraezintasunari buruzko irizpena egingo du, horietako bakoitzari buruzko Idazkaritza Nagusiak txosten bat aurkeztu ondoren. Osoko Bilkurak aztertu eta onetsi beharko du aipatutako irizpena.

2.- Irizpena eztabaidatzerakoan, batzordeko kide batek irizpenaren alde hitz egingo du eta, horretaz gain, irizpenaren alde eta aurka hitz egiteko txanda bana egon daiteke.

3.- Bateraezintasun egoera batean egon daitekeen Batzarkideak, eztabaidan parte hartzeko eskubidea izango du, baina ezingo du dagokion bozketan parte hartu.

4.- Batzarkideen bateraezintasunari edo bateragarritasunari buruzko irizpenak, indarreko legeriak eta foru arauak horri buruz xedatzen dutena kontuan izan beharko du.

5.- Batzarkideak Batzar Nagusiak eratzeko bilkura egin ostean hartzen badu bere kargua, Idazkaritza Nagusiak Batzarkide horren bateragarritasunari edo bateraezintasunari buruzko txostena egingo du. Txosten horretan ez bada bateraezintasun arrazoirik agertzen, txostena Arabako Batzar Nagusietako Osoko

Bilkurara eramango da eta irakurketa bakar bidez izapidetuko da. Idazkaritza Nagusiaren txostenak bateraezintasun kausarik egon daitekeela jasotzen badu, Bateraezintasun Batzordearen deialdia egingo da eta horrek dagokion irizpena egingo du. Osoko Bilkurara eramango da irizpen hori.

### **17. artikulua**

1.- 13.2 artikuluan adierazitako Osoko Bilkuran, lehendakariak Batzar Nagusiei ebatzitako errekurtsioen berri emango die, hauteskondeen baliozkotasunari eta Batzarkide hautetsien izendapenari buruzkoak. Ondoren, 5. artikulua 3. atalak jasotakoa, emandako epaien ondorioz egoera hori beranduago hartu dutenei buruzkoa, betetzeari ekingo diote. Halaber, Bateraezintasunen behin-behineko Batzordeak emandako irizpena ezagutu eta ebatziko du.

2.- Bateraezintasuna dagoela erabaki eta jakinarazi ondoren, bateraezintasuna duen Batzarkideak zortzi eguneko epea dauka aulkiaren eta bateraezina den karguaren artean aukeratzeko. Epe horretan ezingo du Batzar Nagusien zereginetan eta bileratan parte hartu. Esandako epean ez badu aukera egiten, aulkiari uko egin diola ulertuko da.

## **IV Kapitulumua.- Osoko Bilkurarako deialdia diputatu nagusia aukeratzeko**

### **18. artikulua**

Lehendakaritzak, Mahaiaren eta Bozeramaileen Batzarraren iritziak entzunda, aurreko artikuluan aipatutako Osoko Bilkuraren amaieran, diputatua izendatzeko Osoko Bilkurarako deialdia egingo du, Araudi honetako 156 artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozeduraren arabera, eta 30 eguneko epean egingo du gehien jota. Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa buruzko Foru Arauaren, 1983ko martxoaren 7koaren, 25.3 artikulua finkatu du epe hori.

## **II. TITULUA.- BATZARKIDEAK**

### **I. Kapitulumua.- Batzarkideen eskubideak**

### **19. artikulua**

1.- Batzarkideek Batzar Nagusietako Osoko Bilkuretara joateko eskubidea dute, baita batzordeetara joateko eskubidea ere, batzorde horietako kide direnean. Gainera, kide ez diren batzordeetara ere joan daitezke, baina ezingo dute bozkatu.

2.- Batzarkideek gutxienez batzorde bateko kide izateko eskubidea dute, baita Araudi honek xedatutakoarekin bat etorritik, karguaren arabera esleitutako ahalmenak eta eskubideak erabiltzeko eta zereginak betetzeko eskubidea ere

### **20. artikulua**

1.- Batzarkideek, beren lana hobeto egiteko, Batzarkide Taldearen bidez Foru Aldundiari bere esku dituen edo bere Organismo Autonomoek, Sozietate Publikoek eta Foru Sektore Publikoko gainerako Entitateek dituzten datuak, txostenak eta agiriak bidaltzeko eska ahal dizkiote. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

2.- Eskatera Batzar Nagusietako Mahaiari zuzenduko zaio, Mahaiak Foru Aldundira bidal dezan. Foru Aldundiak zazpi eguneko epea dauka eskatutakoa bidaltzeko edo, baldin eta dagoeneko bere esku dauden txostenak edo agiriak badira, eta hamabost eguneko epea bestelako datuak badira; bestela, epe horretan zergatik ezin duen bidali adieraziko du, idatziz eta arrazoituz eta erantzun hori emateko bide bera erabiliko du. *(Irailaren 14ko 13/2018 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 112 zk., 2018 irailaren 28ko)*

3.- Eskatutako agirien izaera dela-eta edo indarrean dagoen araudia dela-eta ezin bada agirien kopia eman, Foru Aldundiak, kopiak bidali ordez, Batzarkideari agiri hori dagoen administrazio-bulegora joateko aukera eman diezaioke. Edozein kasutan, dokumentazioen kopiak bermatu beharko dira, betiere indarreko legeriak horretarako baimena ematen badu.

Eskatutako informazioa berrikusi nahi badu beste Batzarkide taldeko prokuradoreren batek, Mahaiari eskatu beharko dio zazpi eguneko epean, Batzarkide taldeek Foru Gobernuaren erantzuna jasotzen dutenetik. Interesdunek eta dagokion Sailak erabakiko dute zein egunetako berrikus daitekeen dokumentazioa, ohiko funtzionamenduan trabarik ez egiteko.

Ekimena egin duen Batzarkideak edo haren taldeko gainontzeko Batzarkideek, gai horretan aditu diren zenbait pertsonarekin joan daitezke, Mahaiari eta Arabako Foru Aldundiko ordezkariari horren berri eman ondoren. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

4.- 2. atalean jarritako epea igaro ondoren, Foru Aldundiak esanbidez edo isilbidez uko egiten badio agiriak edo informazioa emateari, edo eskatutakoaren zati bat bakarrik betetzen badu, ekimena izenpetu duen Batzarkideak Batzar nagusietako lehendakariari eska diezaioke Foru Aldundiari galdatzeko artikulua honetakoa bete dezala. Horretarako, lehendakariak, Mahaiarekin ados jarrita eta eskaeraren aurrerakinak aztertu eta gero, Batzarkideari jakinaraziko dio administrazioaren erabakiarekin ados dagoela eta zergatik dagoen ados, edo, bestela, Foru Aldundiari eskatuko dio bidali gabeko agiriak edo informazioa bidaltzeko gehien jota hamar eguneko epean. Foru Aldundiak ezezkoan jarraituz gero, Batzar Nagusiei kontu eman beharko die hurrengo Osoko Bilkuran. Bilkura horretan talde eskatzaileak kexa azalduko du 5 minututan. Foru Aldundiak ere 5 minutu izango ditu erantzuteko. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

5.- Halaber, Batzarkideek dokumentazioa eska diezaiokete -aldeztik euren taldea jakinda eta Batzar Nagusietako Lehendakariaren bidez-, Autonomia Erkidegoko administrazioari, gainerako Lurralde Historikoko administrazioei eta Arabako Toki

Erakundeetako administrazioei, baldin eta hein batean Arabari lotutako informazioa dela uste badute eta haiek emateko prest baldin badaude.

## 21. artikulua

1.- Batzarkideek ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute, hala nola, dietak, bertaratzeagatik ordainak, bidaia-gastuak, karguari dagozkion jardueretan parte hartzeagatik ordainak edo finkatzen den beste edozein ordainketa modalitate.

2.- Mahaiak, dagozkien aurrekontu-izenpenetan, Batzarkideek zer jasoko duten eta ordain horien modalitateak finkatuko ditu urtero.

## 22. artikulua

Batzar Nagusien aurrekontuan sartuko dira Batzarkideen gizarte-segurantzaren kotizazioak eta mutualitateak, baldin eta Batzarkideek gizarte-segurantzaren edo mutualitateetan egoteko bide ematen zuen lana egiteari uzten badiote Batzar Nagusietan lan egiteagatik, eta Batzar Nagusien kontura jasotzen badute soldata.

Artikulu honetako lehen paragrafoan ezarritako bera gertatuko da Batzar Nagusietan lan egiteagatik zerbitzu berezietan dauden herri-funtzionarioen klase pasiboko kuoten kasuan.

## 23. artikulua

Batzarkideei ezingo zaie erantzukizunik eskatu karguan dihardutela emandako iritziak, izandako jokaerak eta emandako botoak direla eta, ez eta Batzarkide izaera galdu eta gero ere.

## 24. artikulua

Kapitulu honetan, Araudi honetan eta gainontzeko foru arauetan onartzen diren eskubideak, 5.3 artikulua xedatutako baldintzak betetzen dituenetik aurrera izango ditu Batzarkideak.

## II. Kapituluak.- Batzarkideen betebeharrak

### 25. artikulua

1.- Batzarkideek Osoko Bilkuretara joan beharra daukate, eta batzordeetara ere bai batzordeko kide direnean. Gainera, euren karguen betebeharrak zehatz bete beharko dituzte eta uneoro Araudi honetan xedatutakora egokitu beharko dira.

2.- Batzarkideek behin eta berriro eta arrazoirik eman gabe huts egiten diotenean aurreko atalean ezarritako bileratara joateari, lehendakariak diru-ordainsaria kentzea erabakiko du, Mahaiarekin adostuta, Bozeramaileen Batzarraren iritzia entzunda eta Batzarkideari ere entzunda.



**26. artikulua**

Batzarkideek, Batzar Nagusien ordena, kortesia eta diziplina errespetu behar dute; gainera, isilean gorde behar dituzte jarduerak, eztabaidak eta ebazpenak baldin eta, salbuespenez, isilpekoak badira.

**27. artikulua**

Batzarkideek ezin dute Batzarkide izaera arrazoitzat hartu edo ezin dute izaera horretaz baliatu merkataritza, industria edo lanbide jarduera bat burutzeko.

**28. artikulua**

1.- Batzarkideek, indarreko antolamenduak bateraezintasunari buruz ezarri dituen arauak bete beharko dituzte.

2.- Batzarkideek Batzar Nagusietako Mahaiari jakinarazi behar diote bateraezintasunen inguruan aldaketarik egonez gero. Aldaketa horren berri eman ondoren, Araudi honen 16.5 artikulua araberak jokatu da.

**III. Kapituluak.- Batzarkide izaera kentzea edo galtzea****29. artikulua**

Batzarkideari eskubideak eta betebeharrak kenduko dizkiote honako kasu hauetan:

- 1.- Araudi honetan finkatutako diziplina arauak betetzeko.
- 2.- Prozesatze autoa irmoa izanik edo ahozko judizioaren hasiera erabakita, behin-behineko espetxealdian dagoenean eta egoera hori irauten duen bitartean. Baita, dolozko delitua denean eta Batzar Nagusietako Osoko Bilkuraren gehiengo osoak hala erabakitzen duenean egozten dizkioten ekintzen izaera eta garrantzia kontuan izanik.
- 3.- Zigor-epai irmo batek berekin dakarrenean, edo epaia betetzeak ezinezko bihurtzen duenean Batzarkide funtzioa gauzatzea.

**30. artikulua**

Arazoi hauengatik galduko du Batzarkide izaera Batzarkideak:

- 1.- Erabaki judizial irmo batek Batzarkidearen hautaketa edo aldarrikapena deuseztatu duelako hauteskunde prozesuan.
- 2.- Heriotzagatik edo erabaki judizial irmoak ebatzitako ezintasunagatik.
- 3.- Agintaldia amaitu delako, finkatutako epea amaitu delako eta Batzar Nagusiak banandu direlako; dena den, Batzorde Iraunkorreko kideen jarduna luzatu egingo da Batzar Nagusi berriak eratu arte.

- 4.- Batzarkideak Batzar Nagusietako Batzarkide izateari uko egin diolako.
- 5.- Kargu publikoa burutzeko erabateko desgaiakuntza edo desgaiakuntza bereziko zigorra duelako; hori epai judizial irmo bidez finkatu beharko da.
- 6.- Batzar Nagusien Osoko Bilkurak horrela erabaki duelako, Araudi honetan xedatutakoarekin bat etorri bateraezintasunen bat dagoelako.

### III. TITULUA.- BATZARKIDE TALDEAK

#### 31. artikulua

1.- Araudi honen banaka jarduera batzuk burutzeko zenbait kasu aurreikusten baditu ere eta kasu horiek alde batera utzita, Batzarkideak Batzar Nagusien eremuan euren Batzarkide taldeen bidez aritu beharko dira.

2.- **Ezingo da Batzarkide talde bat hiru Batzarkide baino gutxiagorekin osatu. Taldeko kideren batek edo batzuek taldea uzten badute eta taldeak horren ondorioz ez badu hiru Batzarkide izatearen baldintza betetzen (Taldea Mistoa ez bada), zuzenean Talde Mistoa sartuko dira Batzarkide horiek. (*Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko*)**

3.- Batzarkide batek ezin du Batzarkide talde batean baino gehiagotan agertu aldi berean.

4.- Ezin dute Batzarkide talde bat baino gehiago osatu hauteskundeetan alderdi politiko, koalizio, federazio eta hauteskunde talde berean agertu direnak .

#### 32. artikulua

1.- Batzarkide talde bakoitzaren eraketa, Batzar Nagusietako Mahaiari jakinarazi behar zaio, Batzar Nagusiak eratzeko bilkuratik gehien jota bost egun baliaduneko epean. Taldearen izena jarri behar dute eta Araudi honen 5.3 artikulua xedatutako bete dituzten prokuradoreek sinatu beharko dute; gainera, zein izango den taldeko bozeramailea eta, hala badagokio, horren ordezkoa ere esan beharko dute.

2.- Bozeramaileen edo haien ordezkoen izenen aldaketak jakinarazi egin behar dizkio taldeak Batzar Nagusietako Mahaiari, horretarako, artikulua honetako aurreko ataleko betekizunak jarraitu behar dituzte.

3.- Batzarkide talde batek hasieran zuen izena aldatu nahi izanez gero, Mahaiari eskatuko dio idatziz eta aldaketa arrazoituz. Idazki horretan zergatik nahi duen izena aldatu azalduko du. Mahaiak erabakiko du eskatutako izen aldaketaren inguruan, inguruabarren eta eskatzaileak emandako arrazoien arabera.

#### 33. artikulua

1.- Batzar Nagusietako eratze bilkura egin ostean Batzarkide kargua hartzen dutenak, kargua hartu eta hurrengo bost egunetan Batzarkide talde batean sartu beharko dira;

horretarako, Batzar Nagusietako Mahaiari idazki bat zuzendu beharko diote eta idazki horretan taldeko bozeramaileak Batzarkide hori onartzen duela adierazi beharko da.

2.- Aurreko atalak aipatutako Batzarkideek 31. artikulua xedatzen dituen baldintzak betetzen badituzte, Batzarkide talde bat osatu ahal izango dute, baina jakinarazpenei buruzko baldintzak eta araudiak finkatutako beste baldintza batzuk bete beharko dituzte.

**34. artikulua** *(Martxoaren 5eko 2/2019 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 33 zk., 2019 martxoaren 18ko)*

Talde mistoa osatuko dute Araudiaren 31.1 artikuluan ezarritako betekizuna ez betetzeagatik ezein taldetan sartu ez diren batzarkideek. Batzarkide horiei Batzar Nagusietako lehendakariak deialdia luzatuko die gainerako taldeak osatu eta hiru eguneko epean, eta batzarkide horiek jakinaraziko dute nork egingo dituen bozeramailearen funtzioak eta nor izango den horren ordekoa

**35. artikulua.- Hutsik geratzen da.** *(Martxoaren 5eko 2/2019 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 33 zk., 2019 martxoaren 18ko)*

1. Atxiki gabeko batzarkide-izaera izango dute hautatuak izan ziren hauteskunde-taldeak eratzen duen batzarkide-taldera edo, araudiak ezarritako minimora heldu ezean, arauzko betekizunak beteta talde mistora integratzen ez diren batzarkideek, bai eta edo jatorrizko taldetik kanporatuak diren edo beren borondatez taldea uzten duten batzarkideek.

2. Batzarkide-taldea beren borondatez uzten duten batzarkideek jakinarazi beharko diote Batzar Nagusietako Mahaiari, jakinaren gainean egon dadin eta Araudiaren ondorioetarako.

Batzarkide-taldeko kide bat kanporatu edo bananduz gero, taldeko bozeramaileak idatzi bidez jakinaraziko dio Batzar Nagusietako Mahaiari, aurreko kasuaren ondorio berberetarako.

3. Aurreko ataletan xedatutakoa ez da aplikatuko baldin eta batzarkide-taldetik kanporatzen badira federazio, koalizio edo hautesle-elkarte batean integratutako alderdi politiko baten batzarkide guztiak, ezta ere federazioa, koalizioa edo hautesle-elkartea deseginez gero. Kasu horretan, banandutako edo kanporatutako batzarkide guztiak batzarkide-talde propioa osatuko dute edo talde mistoan sartuko dira, Araudian xedatutakoaren arabera.

**36. artikulua** *(Martxoaren 5eko 2/2019 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 33 zk., 2019 martxoaren 18ko)*

1. Atxiki gabeko batzarkideak ezin izango dira haien artean elkartu edo beste ezein taldetan sartu, ezta talde mistoan ere, Ganberaren agintaldiak iraun bitartean, salbu eta euren jatorrizko taldean baldin eta bozeramaileak oniritzia ematen badu.

2. Atxiki gabeko batzarkideek Araudiak norbanakoei aitortzen dizkien eskubide eta diru-ordainsariak besterik ez dituzte izango. Ganberak ez die inola ere ordainduko arduraldi oso edo partzialetik eratorritako ordainsari finko eta aldizkakorik, eta ezin izango dute izendatu aholkularirik edo laguntza administratiboko langilerik Arabako Batzar Nagusien aurrekontuen kargura.

3. Ganberako Mahaiak atxiki gabeko batzarkideei emango dizkie beren zeregin parlamentarioak betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen bitarteko materialak. Ezin izango dira izan inola ere batzarkide-taldeei ematen zaizkienak baino gehiago. Atxiki gabeko batzarkideei Batzar Nagusietako egoitzako lokalak emango zaizkie behin batzarkide-taldeen artean lokalak banatutakoan lekurik geratzen bada.

4. Atxiki gabeko batzarkideek Arabako Batzar Nagusien Araudiak 19, 20, 21.1 eta 23 artikuluetan jasotzen dituzten eskubideak izango dituzte.

5. Atxiki gabeko batzarkide bakoitzak batzorde bateko kide izateko eskubidea izango du. Batzorde hori Arabako Batzar Nagusiko Mahaiak zehaztuko du, atxiki gabeko batzarkidearen iritzia entzun ondoren, zein batzorde nahiago duen adierazi dezake eta.

6. Gaitasun araugile osoa duten batzordeetan, bertako kide ez diren atxiki gabeko batzarkideak boto emateko baino ezin izango dira joan, salbu eta eztabaidagai den edo zuzenketak jasotzen ari den ekimenaren egile badira.

7. Edozelan ere, atxiki gabeko kideek osoko bilkuretan eta batzordeetan parte hartzeko duten txanden iraupena banaka duten ordezkaritza politikoarekiko proportzionala izango da, eta Ganberako Lehendakaritza ezarriko du, Mahaiarekin bat etorriz. Txanden iraupena Batzar Nagusiak osatzen dituzten batzarkide-taldeen dutena baino txikiagoa izango da.

8. Ganberako Mahaiari dagokio, Bozeramaileen Batzarraren iritzia entzunda, atxiki gabeko batzarkideen egoera eta jarduteko aukeren gainean sortu litezkeen auzi guztiak ebaztea, Araudi honen arabera.

### 37. artikulua

Kideek adostutako erabakiek zuzenduko dute Talde Mistoa. Erabaki horiek guztiak barne Araudi batean jasoko dira. Araudi horrek —Taldekoko kideen kopuruaren eta aniztasunaren ondorioz sar daitezkeen aldaketa guztiekin—, talde horren aniztasuna bermatu beharko du, baita kideek araugintzazko ekimenerako duten eskubidea ere. Arabako Batzar Nagusietako Mahaiari araudi horren berri emango diote eta Mahaiak Batzarkide taldeei eta Foru Aldundiari jakinaraziko die. Hogeita hamar eguneko epean, taldea osatzen denetik eta osaketan aldaketak egiten direnetik, Mahaiari ez badiote Araudia aurkezten, talde horren funtzionamenduaren inguruko araei buruzko behin betiko ebazpena emango da.

**38. artikulua**

- 1.- Talde Mistoko bozeramaileak, taldeko kide guztien aho bateko iritzia azaltzeko soilik har dezake parte taldearen izenean.
- 2.- Talde Mistoko bozeramaileak ezingo du bozeramaile moduan parte hartu bere iritzia edo bere talde politikoaren, koalizioaren, federazioaren edo hauteskunde taldearen iritzia emateko.
- 3.- Eztabaidetan Talde Mistoaren izenean kide batek edo gehiagok har dezake parte, betiere talde bakoitzari araudiz esleitutako denbora gainditzen ez badute guztien artean.
- 4.- Talde Mistoko kideek ondoko eskubidea dute: talde bakoitzari dagokion denbora, kideen artean banatzekoa.

**39. artikulua (Martxoaren 5eko 2/2019 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 33 zk., 2019 martxoaren 18ko)**

**Talde mistoko batzarkideek eta atxiki gabeko batzarkideek ekimenak aurkeztu ahal izango dituzte eurek soilik sinatuta, Araudi honetan ekimen bakoitzerako ezartzen diren onargarritasun- betekizunak beteta**

**40. artikulua**

- 1.- Batzar Nagusietako Mahaiak Batzarkide taldeei bulegoak eta baliabide material nahiko emango dizkie, eta aurrekontuan ordain bat esleituko die, taldean diren kide kopuruaren arabera, baita osagarri finko bat ere, zenbateko berekoa Batzarkide guztientzako. Halaber, talde guztiek gutxienez urteko ordain bat jasotzeko eskubidea dute, euren funtzioak hobeto betetzeko laguntza tekniko moduan.
- 2.- Mahaiak agintaldi bakoitzaren hasieran finkatuko du Talde Mistoari zer ordain finko dagokion, kide kopurua kontuan izanik eta Talde Mistoak horretarako egin dituen proposamen inguruan Mahaiak dagozkion erabakiak hartu ondoren.
- 3.- Mahaiak, Bozeramaileen Batzarraren iritzia entzun ondoren, eta entzunaldiaren ostean, artikulua honetako 1. atalean finkatutako ordainak eten ahal izango die euren betebeharrak behin eta berriz betetzen ez dituzten Batzarkide taldeei.

**IV. TITULUA.- BATZAR NAGUSIAK ANTOLAKETA****I. Kapituluak.- Mahaia****41. artikulua**

- 1.- Mahaia Batzar Nagusien organo gidaria da. Batzar Nagusietako lehendakariak zuzentzen du Mahaia eta Batzarren taldeko ordezkariak du parte hartzen dituen ekitaldietan.

2.- Mahaia lehendakariak, bi lehendakariordek (1. eta 2.) eta bi idazkarik (1. eta 2.) osatzen dute. Batzar Nagusietako legelariak emango dio laguntza eta aholkularitza. Mahaia, lehendakaritzak proposatuta, izendatuko du legelari hori; legelari nagusia izango da eta Idazkaritza Nagusiko zerbitzuen burua izango da.

3.- Mahaia behar bezala osatu dela ulertuko da hiru kide baldin badaude; hiru kide horietako bat idazkaria izan beharko da. Mahaiaren deialdia premiaz egin behar bada eta gehienak baldin badaude baina ezin bada idazkari bietako bat bertaratu, lehendakariorde gazteenak idazkari lanak egingo ditu.

4.- Erabakiak, bertaratu behar diren botoen bidez hartuko dira. Berdinketa egonez gero, lehendakariak kalitateko botoa du.

#### 42. artikulua

1.- Lehendakariak, Mahaia berak edo behintzat Mahaiko hiru kidek eskatuta bildu da Mahaia.

2.- Legelari nagusiak edo bere ordezkariak den legelariak, Mahaiaren bileraren akta egingo du eta, lehendakaritzaren zuzendaritzarekin, erabakiak burutzen direla zainduko du.

#### 43. artikulua

1.- Mahaiko kideek honako arazoietako bategatik utziko dute kargua:

- a) Batzarkide izategatik uztegatik.
- b) Esanbidez uko egitegatik.
- c) Batzarkide taldekoa izateari uztegatik.
- d) Foru diputatu izendatu dutelako.
- e) Kargutik mugiarazi dutelako Batzar Nagusien Osoko Bilkuraren gehiengo osoak hartu duen erabaki baten bidez.

2.- Aurreko zenbakiko e) atalean xedatutakorako, hona hemen jarraitu beharreko prozedura:

- 1.- Batzarretako Batzarkideen herenek (eta behintzat bi taldekoak izan beharko dira) egin beharko dute kargua uzteko proposamena.
- 2.- Aipatutako proposamena aurkeztu eta hurrengo zazpi egunetan, Batzar Nagusietako Lehendakaritzak, Mahaiarekin ados eta Bozeramaileen Batzarraren iritzia entzun ondoren, gai hori eztabaidatzeko osoko bilkuraren deialdi egingo du eta osoko bilkura hori gehien jota zazpi eguneko epean egin beharko da. Eztabaida, osoko eztabaidetarako xedatutakoaren arabera egingo da eta ezingo du inolaz ere parte hartu kargutik kentzeko proposatutakoak.
- 3.- Uzteko proposamen hori onartzen ez bada, proposamena sinatu dutenek ezingo dute beste bat aurkeztu bilkuren aldi horretan.

4.- Proposamena onartzen bada, osoko bilkura horretan bertan, hutsik gelditu den kargua edo karguak izendatuko dira bete beharreko karguari dagozkion artikuluetan finkatutakori jarraituz.

**3.- Legegintzaldian Mahaian karguak hutsik geldituz gero, lehen izendapenean egin den moduan beteko dira, eta aurreikuspenak bete beharreko karguei egokitu beharko zaizkio. 88. artikulua 1. atalean aurreikusitako kasuetan, Mahaiko kideak behin behingoz ordezkatu ahal izango dira; horretarako, Osoko Bilkurak erabakia hartu beharko du horretarako bozketa egin ondoren. Ordezkoak kargua automatikoki utziko du, ordezkatuta, idatzizko jakinarazpenaren bidez, kargura itzultzen denean. ([Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko](#))**

#### 44. artikulua

1.- Mahaiak ondoko eginbeharrak ditu:

1.- Batzar Nagusietako lana antolatzea eta barneko araubide eta gobernua eskatzen dituen erabaki eta neurri guztiak hartzea, langileen estatutua (hierarkiaren eta funtzioen arabera horren menpe egongo da) eta horren izendapena.

**2.- Batzarretako aurrekontuen proiektua, eta horien behin behineko aldaketak, egitea, ondoren Arautegi eta Barne Gobernurako Batzordera bidaltzeko foru arau proposamen gisa, aurrekontu horren burutzapena zuzendu eta kontrolatzea eta ekitaldi bakoitzaren amaieran txosten bat aurkeztea aurrekontua nola bete den eta nola likidatu den azaltzeko. ([Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko](#))**

3.- Batzarretako gastuak agintzea, eskuordetzeak egin baditzake ere, eta hiru hilean behin Batzarkide taldeei Batzarretako Aurrekontua egikartzeko mailari buruzko txostena bidaltzea.

4.- Araudiari jarraiki, Batzar Nagusietara zuzendutako idazkiak eta agiriak kalifikatzea, eta onargarrizat edo onartezintzat hartzea.

5.- Batzar Nagusiei zuzendutako idazki guztiak nola izapidetuko diren erabakitzea, betiere Araudian ezarritako araei jarraiki.

6.- Batzarretako jardueraren lerro nagusiak programatu eta sustatzea, bilkuren aldi bakoitzerako Osoko Bilkuraren eta batzordeen jarduera egutegia zehaztea eta organoen lanak koordinatzea, hori dena Bozeramaileen Batzarraren alde aurretiko entzunaldiarekin.

7.- Batzar Nagusien izenean egokitzen jotzen dituen bereizketak sortu eta ematea.

8.- Batzordeak eta osoko bilkurak publikoak izan daitezzen beharrezkoak diren neurri guztiak antolatzea.

9.- Araudiak agintzen dion beste edozein funtzio, berariaz organo bati esleitu ez bazaio.

2.- Mahaiak agiriak kalifikatu eta izapidetzerakoan hartutako erabakiekin ados egon ezean, ekimenaren egilea den Batzarkideak edo Batzarkide taldeak berriro aztertzeko eska diezaioke, betiere, erabakia jakinarazi eta bost egunen barruan. Mahaiak behin betiko erabaki arrazoitua hartuko du, Bozeramaileen Batzarraren iritzia entzun eta gero. Erabakia hamar eguneko epean hartuko du, aparteko egoeretan izan ezik.

#### 45. artikulua

1.- Batzar Nagusietako lehendakaria Batzar Nagusien ordezkari gorena da, Mahaiaren ekintzak antolatuko eta koordinatuko ditu, lanak bide onetik joatea bermatuko du, eztabaidak zuzenduko ditu eta eztabaidetan ordena zainduko du. Dena dela, eskuordetzeak egin ditzake bere egitekoetan.

2.- Batzar Nagusietako lehendakariak, Batzarren ordezkaria denez, karguaren arabera dagozkion protokolo-lehentasunak, -adeitasunak eta ohoreak izango ditu.

3.- Lehendakariari dagokio Araudia betetzea eta betearaztea. Bilkuretan, lehendakariak interpretatuko du Araudia zalantza dagoenean edo osatu egingo du hutsuneak dituenean. Dena den, egoki baderitzo, sortutako arazoak garrantzi handia badu, bilkura etetea erabaki dezake, Mahaiaren eta Bozeramaileen Batzarraren iritzia entzutearren.

4.- Araudia interpretatu eta osatzeko zereginetan lehendakariak ebazpen orokor bat emateko asmoa baldin badauka, Mahaia eta Bozeramaileen Batzarra alde agertu beharko dira lehenago. Erabaki horiek aldizkari ofizialean argitaratu behar dira eta indarrean egongo dira harik eta beste ebazpen batek indargabetu arte edo Araudia eraberritzerakoan Araudian jaso arte.

5.- Halaber, foru arauak eta Araudi honek esleitzen dizkion beste egiteko guztiak beteko ditu lehendakariak.

#### 46. artikulua

Lehendakaria ez dagoenean edo hark ezin duenean, lehendakariordeek ordeztzen dute lehendakaria, hurrenez hurren, haren egitekoak betez. Gainera, lehendakariak edo Mahaiak agindutako beste egitekoak ere bete behar dituzte.

#### 47. artikulua

Mahaiko idazkariak ondoko eginbeharrak dituzte:

1.- Osoko Bilkuretako eta Mahaiko osoko bilkuren aktak baimentzea, lehendakariaren oniritziarekin, baita Batzar Nagusien eremuko beste bilkuretakoak ere, duten karguagatik doazenean bilkuretara.

2.- Eman beharreko ziurtagiriak baimentzea, funtzio hori legelari nagusiri eskuordetu ahal badiote ere.



- 3.- Bilkuretako lehendakariari laguntzea eztabaidak dagokion ordenaren arabera eta bozketak zuzen egiten dituztela ziurtatzeko.
- 4.- Bozketen emaitzak zenbatzea.
- 5.- Batzar Nagusien lanak behar bezala egin daitezen laguntzea, lehendakariaren aginduei jarraituz.
- 6.- Lehendakariak edo Mahaiak beren esku utzitako beste egitekoak burutzea.

## II. Kapituluak.- Bozeramaileen Batzarra

### 48. artikulua

- 1.- Batzarkide taldeetako bozeramaileek osatuko dute Bozeramaileen Batzarra. Bozeramaileen Batzarra, Batzar Nagusietako lehendakariaren edo horren ordeari den lehendakariordearen zuzendaritzapean bilduko da. Bere ekimenez edo bi Batzarkide taldeek eskatuta egingo du Batzarrerako deialdia, eta behar bezala osatu dela ulertuko da behintzat taldeko bozeramaileen erdia gehi bat baldin badaude eta kopuru horrek, aldi berean, Batzar Nagusietako kideen gehiengo osoa osatzen badu.
- 2.- Bozeramaileen Batzarraren erabakiak beti boto haztatuz hartuko dira.
- 3.- Arabako Foru Aldundiari Bozeramaileen Batzarraren deialdiaren berri emango zaio beti, egokia iruditzen bazaio, batzarrera ordezkari bat bidal dezan.
- 4.- Bilkuretara Mahaiko 1. idazkaria edo arauaren arabera ordezkatzeko diona joan beharko da. Mahaiko gainerako kideak ere joan ahal izango dira. Bozeramaileekin edo horien ordezkoeekin batera, taldeko beste kide bat ere bertaratu daiteke. Legelari nagusiak, edo araudiaren arabera bere ordeari duenak, Batzarraren bileretan aholkularitza emango du.
- 5.- Gainera, batzordeburuei ere joateko eska ahal zaie.

### 49. artikulua

- 1.- **Bozeramaileen Batzarraren ostean eta Osoko Bilkura baino lehen premiazko gairen bat sortzen bada, eta Osoko Bilkuran sartu edo aipatu behar direla uste bada, gai horiek horretarako deitutako premiazko Bozeramaileen Batzarrean onetsi beharko dira. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Araua gehitu zaio. ALHAOk 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)***
- 2.- Araudi honek esleitzen dizkion funtzioez gain, Bozeramaileen Batzarrari alde aurretik entzun beharko zaio ondoko kasu hauetan:
  - 1.- Batzar Nagusietako lanak antolatu eta erraztu ahal izateko irizpideak ezartzea.
  - 2.- Batzordeetan Batzarkide talde bakoitzetik zenbait kide egongo diren finkatzea une bakoitzean.
  - 3.- Batzar Nagusien administrazio eraikinetan talde bakoitzak izango duen kokapena erabakitzea.

4.- Batzar Nagusietako jarduera sustatzeko, Osoko Bilkuraren jarduera egutegia zehaztea eta bertako organo ezberdinetako lanak koordinatzea.

### III. Kapituluak.- Batzordeak eta ponentziak

#### 1. atala.- Arau orokorrak

#### 50. artikulua

1.- Batzar Nagusietako batzordeak arruntak edo bereziak izan daitezke.

2.- 49. artikulua 2. atalak finkatutakoarekin bat etorritik zehaztuko da zenbat kidek osatuko duten batzorde arruntak. Batzordeen osaketarako ondoko printzipioak hartu behar dira kontuan:

- a) Batzarkide taldea bakoitzak dagokion kide kopurua izango du, taldeak dituen kide kopuruaren arabera.
- b) Batzarkide talde bakoitzak sortzen den batzorde arrunt bakoitzean gutxienez kide bat izateko eskubidea du.
- c) Edozein modutan, batzordeen osaketa, Osoko Bilkuraren isla zehatza izango da.

3.- Batzorde arruntek gehiengo soilez hartuko dituzte erabakiak. Berdinketa egonez gero, boto haztatuaren sistema erabiliko da, hau da, Batzarkide talde bakoitzak Batzarretan dituen kide kopuruaren arabera egingo da, Talde Mistoan izan ezik, talde horretan bakoitzak bere buruaren ordezkari baita, barne-arautegiak beste gauza bat esaten ez badu.

Boto haztatuaren sistemaren bidez ez bada berdinketa ebatzi, testua, irizpena, artikulua, mozioa edo dena delako testu hori baztertzen dutela ulertuko da.

4.- Batzar Nagusietako Mahaiak bereziki horretarako egin dituen arauak zuzenduko dute batzorde berezi horien osaketa, antolaketa eta funtzionamendua.

5.- Batzordeen bilerak publikoak izango dira, 44.1.8 artikulua xedatutakoarekin bat etorritik, landu beharreko gaiak duen garrantzia dela-eta aurkakoa erabakitzen ez bada.

#### 51. artikulua

1.- Batzorde bakoitza eratzeko bilkuran, kideen artean lehendakaria aukeratuko da. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

2.- Batzordeburua ez badago, batzordeburuaren taldeak ordezkotzat aukeratutako taldeko prokuradoreak hartuko du batzordeburuaren lekua. Epe luzean ezingo bada etorri, beste batzordeburu bat aukeratuko dute. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

3.- Legelariak, batzordeko lehendakarietatik hurbil eta ponentziei dagokienez, dituzten zereginak betetzeko beharrezkoa duten aholkularitza juridiko eta tekniko eskainiko diete; gainera, haiek hartutako irizpideen arabera dagozkien txostenak eta irizpenak egingo dituzte eta aktan batzordeak hartutako erabakiak jasoko dituzte.

4.- Batzar Nagusietako Mahaiko kideak eta foru diputatu diren Batzarkideak ezingo dira batzordeburu izan.

5.- Batzordeburu izaera galduko da Batzarretako Mahaiko kide izaten hasitakoan, baita Araudi honetako 43.1 artikuluko a) hizkitik d) hizkira bitartean jasotako arrazoiren bat ematen bada.

6.- Batzarkide taldeek batzorde bateko kide baten edo batzuen ordeztaldekoko beste bat edo batzuk jar ditzakete, baina aldezturik aurretik aldaketa hori jakinarazi beharko dute.

7.- Batzordeko kide ez diren Batzarkideak ere batzordera etor daitezke; aurkeztu dituzten zuzenketa, ekimen edo proposamenen inguruan parte hartzeko eskubidea dute baina ezingo dute botorik eman.

8.- Foru Aldundiko kideak ere etor daitezke batzordeetara, hitz egiteko eskubidea dute, baina bakarrik bozka dezakete Batzorde horietako kide baldin badira.

## 52. artikulua

1.- Batzordeetarako deialdia batzordeko lehendakariak egingo du lehendakariordearekin koordinatuta -Mahaiaren erabakia izanda-, bere kabuz, bi Batzarkide taldek eskatuta edo batzordeko kideen bostenak eskatuta.

2.- Aurreko ataleko eskaera egiteko, gai-zerrenda jarri beharra dago. Gai-zerrendan Araudi honen arabera batzorde horretan eztabaidatu eta bozkatzeko moduan dauden gaiak bakarrik ager daitezke.

## 53. artikulua

Ezingo dira aldi berean bildu batzordeak eta Batzar Nagusietako Osoko Bilkura, Bozeramaileen Batzarra edo Mahaia.

## 54. artikulua

1.- Batzordeek euren eskumen esparruaren araberrako foru arau proiektuak, foru proposamenak, mozioak eta ekimenak ezagutuko dituzte.

2.- Batzar Nagusietako Mahaiak, kasuan-kasuan, zein den batzorde eskuduna adieraziko du eta Batzarkide talde bakoitzari eta Talde Mistoko kideei jakinaraziko die. Erabakik ez badago edo, Mahaiak erabakiaren jakinarazpena egin eta bost eguneko epean bi Batzarkide taldek proposatzen badute gaia beste batzorde batera bidaltzea, gai hori Mahaiak egingo duen hurrengo bileraren gai-zerrendan sartuko da eta Mahaiak behin-betiko ebazpena emango du erabaki arrazoitu bidez.

3.- Gaia ez bada batzorde bakar baten edo berariazko batzorde baten eskumenekoa, edo hala eskatzen duten ezaugarriak baditu, Mahaiak elkarrekiko batzorde bat osatuko du, eskumen nagusia duen batzordeari gaiaren inguruko ezagupena aginduko dio edo eskumena duten batzorde bakoitzari dagokion alderdiaren ezagupena aginduko dio.

## 55. artikulua

Batzordeak zuzen eratu direla ulertuko da eskubidea duten kideen erdiak gehi bat baldin badaude. Gai-zerrendan aurreikusitakoaren arabera, batzordearen bileran bozketarik egin behar ez bada, zuzen eratu dela ulertuko da Batzarkide talde gehienak baldin badaude (eta talde bakoitzetik behintzat ordezkari bat egon beharko da).

## 56. artikulua

**1. Batzordeek, Batzar Nagusietako lehendakariaren bidez, Foru Administrazioari euren zeregin eta lanak hobeto egiteko beharrezkoak dituzten datuak eskatzeko aukera dute. Eskaera jaso duen agintaritzak, hamabost eguneko epea gainditu gabe, eskatutakoa eman beharko dio edo, bestela, Batzar Nagusietako Lehendakariari esan beharko dio zergatik ezin duen datu horiek eman, lehendakariak dagokion batzordeari jakinaraz diezaion. *(Irailaren 14ko 13/2018 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 112 zk., 2018 irailaren 28ko)***

2.- Halaber, eta bide bera erabiliz, Aldundiko agintarien edo langile publikoen agerraldia eska dezakete, batzordean une horretan eztabaidatzen duten gaien eskumena dutelako; helburua, aurreko paragrafoan aipatutakoa da. Galdetutako alderdien inguruko informazioa emango dute soilik, eta alderdi horiek ondo zehaztuko dute idazkietan eskaera zein den.

Agintari edo funtzionario horiek hogeit eguneko epean agertu beharko dira eskaera egiten zaienetik.

Langile publikoak edo agintariak agertzen ez badira edo ez agertzeko arrazoiak azaltzen ez badituzte aipatutako epean, edo eskatutako informazioaren idazkiari erantzuten ez badiote, Batzar Nagusietako lehendakariak agintari edo langile publiko horren gaineko agintariari edo langileari jakinaraziko dio, agian erantzukizuna eskatu ahal izango diotelako.

**3. Lantzen den gaien interesa duten adituei edo gaien interesa duten sektore edo talde sozialetako ordezkariari batzordean agertzeko ere eska diezaioke, baina soilik informazioa edo aholkularitza eskaintzeko. Mahaiak agertzeko eskaera izapidetzeko onetsi eta kalifikatu ostean, hurrengo Bozeramaileen Batzarraren gai-zerrendan jasoko da, organo horrek eskaeraren egokitasunaz bere iritzia eman dezan. Bozeramaileen Batzarrak onetsiz gero, zehatz-mehatz adieraziko da agerraldiaren xedea eta gonbita luzatuko zaio eskatutako pertsonari edo pertsonari, eta batzordeburuari jakinaraziko zaio gai gai-zerrendan sartzeko prest dagoela. *(Irailaren 14ko 13/2018 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 112 zk., 2018 irailaren 28ko)***

4.- Bilkuren aldia amaitutakoan egiteke gelditzen diren agerraldiak, hilabeteko epean deituko dira hurrengo bilkuren aldia hasten denetik.

## **2. atala.- Ponentziak**

### **57. artikulua**

1.- Batzordeek ponentziak osatzea erabaki dezakete, batzordeek lantzeke duen gai zehatz baten inguruko txostenak egin ditzaten edo batzordeko eskumeneko gaiak, Mahaiak esleitutakoak, azter ditzaten.

2.- Ponentziak sortu ahal izango dira gaiak trataera berezi eta/edo teknikoa eskatzen duenean, edo gaiarekin lotutako pertsonen edo erakundeen laguntza eta ekarpenak behar dituenean. Era berean, batzordea esleituta dituen gaien edo gairen zati batean adostasuna lortzen saiatzeko ere eratu ahal izango dira ponentziak. Ezin da ponentziarik eratuko Batzarrean eskumena duten organoek gaitzetsitako batzorde bereziak, ikerketa batzordeak edo azterketa batzordeak ordezkatzeko.

3.- Edozein Batzarkide taldek, Batzar Nagusietako Mahaiari zuzendutako idazki arrazoitu bidez, Batzorde arrunt batean ponentzia bat eratzeko eskaera egin dezake. Eskaerako idazkian ondokoa agertu beharko da: zein diren ponentzia sortzeko arrazoiak, zein batzorde arruntetan eratuko beharko den ponentzia hori, ponentzia horrek zer gai edo alderdi zehatz aztertu beharko dituen, zein metodologia proposatzen den eta zein epetan uste dute amaitu beharko dituela ponentziak egin beharreko lanak.

4.- Ponentzia sortzeko eskaera kalifikatu eta izapidetzeko onartu ondoren, Batzarkide taldeei bidaliko zaie eskaera idazkia, baita osaketaren eragina jaso dezakeen batzordeko lehendakariari ere.

5.- Mahaiak muga dezake bilkuren aldi batean lanean egon daitezkeen ponentzien gehienezko kopurua, baita lanekin amaitzeko datak ere.

6.- Dagokion batzordeak eskaera gai-zerrendan sartuko du eta horri buruzko erabakia hartuko du. ponentzia osatzea erabakitzen bada, Batzarkide talde bakoitzeko prokuradore bana egongo da ponentzia horretan; botoa emango du eta, beharrezkoa bada, boto haztatua izango da. Bilkura horretan, ponentziako Koordinatzailea nor izango den erabakiko dute.

7.- Ponentziek lan-plan bat egingo dute, dagokion egutegiarekin, eta hobeto funtzionatu ahal izateko, egokitzat jotzen dituzten beste pertsona edo erakunde batzuei dokumentazioa, txostenak edo agerraldia burutzeko eska diezaiekete; eskera horiek Batzar Nagusietako Lehendakariaren bidez egingo dute. Gainera, aztertzen den gaiarekin lotura zuzena duten erakundeetako ordezkariak edo gizarte eragileak ere ponentziako lanetan parte har dezakete, betiere ponentziak hala erabakitzen badu; pertsona horiek hitz egin ahal izango dute baina ezingo dute bozkatu.

8.- Ponentziek adituen agerraldiak direla-eta gastuak izango dituztela aurreikusten badute edo diru-hornidura behar badute, aurrekontu bat egingo dute eta Batzar

Nagusietako Mahaiari aurkeztuko diote Mahaiak onar dezan.

**9.-** Ponentzien bilerak ez dira publikoak izango, 44.1.8 artikulua xedatutakoarekin bat etorriz, landu beharreko gaiak duen garrantzia dela-eta aurkakoa erabakitzen ez bada.

**10.-** Lana bukatzen duenean ondorioak jasoko dituen txostena egingo du ponentziak, kideen gehiengoaren iritzia jasoko du ondorio horietan. Edonola ere, ondorio horien aldekoak zer Batzarkide talde diren jarri behar da. Aldentzen diren proposamenak, gain hartu ez diren proposamen moduan jasoko dira. Halaber, ponentzian dauden erakundeetako ordezkarien eta gizarte eragileen iritzia ere jasoko dira; erakundeen ordezkariari eta gizarte eragileei txostena utziko diete hamar egunez, egokitzat jotzen dituzten oharrak egin ditzaten.

Ponentzia zer batzordetan sortu den, batzorde horretan aurkeztuko da amaierako txostena. Batzordeak eztabaidatuko du eta, hala badagokio, onartu egingo du bozketa eginez. Gain hartu ez diren eta erreserbatutako proposamenak ere bozkatuko ditu eta, onartzen badira, ondorioetara gehituko dira.

Batzar Nagusietako Mahaiak, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu adostutakoa bete dadin.

### **3. atala.- Batzorde arruntak**

#### **58. artikulua**

**1.-** Araudi honetan agertzen diren batzordeez gain, Batzar Nagusietako Mahaiak onesten dituenak (Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren) ere izango dira batzorde arruntak.

**2.-** Mahaiak, Bozeramaileen Batzarrari entzunda, agintaldiaren hasieran batzorde arruntak kopuruari, izenari eta eskumen-eremuari buruzko erabakia hartuko du.

**3.-** Batzordeak onartu ondoren, hurrengo hamar egunetan osatuko dira.

**4.-** Mahaiak, Bozeramaileen Batzarrari entzunda, agintaldian beste batzorde arrunt batzuk osatzea edo agintaldiaren hasieran osatutakoak aldatzea (taldekaturik edo banaturik) erabaki dezake.

Erabaki horrek, jaso behar du zer irizpideren arabera banatuko diren eskumenak batzorde berri horretan eta, kasua balitz, eragindakoetan.

#### **59. artikulua**

Bateraezintasun Batzordea bildu egingo da Batzarkide baten bateraezintasunari buruzko irizpena emateko, betiere Idazkaritza Nagusiaren txostenak, 16.5 artikuluan aipatutakoak, bateraezintasun kausaren bat egon daitekeela esan badu. Irizpen hori zazpi eguneko epean egingo du, Batzarkideak Batzarkide diren unetik, eta Osoko Bilkurara eramango da. Epe horretan Batzarkideak ezingo du Osoko Bilkuran zein Batzordeetan egin daitezkeen bozketetan parte hartu.

**60. artikulua**

- 1.- Arautegi eta Barne Gobernurako Batzordea, Batzar Nagusietako lehendakariak (batzordeburu izango da), Mahaiko gainontzeko kideek eta 50.2 artikuluaaren arabera aukeratutako Batzarkideek osatuko dute.
- 2.- Batzar Nagusien Aurrekontuak aztertzea eta onestea dagokio araugintzako ahalmen osoarekin. Halaber, Batzorde horrek Aurrekontuak burutzen direla kontrolatu beharko du eta ekitaldi bakoitzaren amaieran dagokion kitapena onetsi behar du.
- 3.- Barne gobernu eta arautegiari buruzko gai guztien, Mahaiak bere esku utzitakoen, inguruan erabakiko du.
- 4.- Gainera, Batzar Nagusien Araudiari buruz proposatzen diren aldaketak ezagutuko ditu.

**61. artikulua**

1.- Araudi eta Barne Gobernurako Batzordeak, halaber, Araudi honen bidez araututako informazio batzordeetan landu ezin diren banakakoen zein taldekoen eskaerak izapidetzeko eskumena du eta, aztertu ondoren, ondokoa erabaki dezake:

- 1.- Arartekora bidaltzea.
- 2.- Batzarretako Lehendakaritzaren bitartez, dagokion erakunde-organora bidaltzea. Jasoko duen agintaritzak, Arabako foru administraziokoa bada, ahalik eta azkarren jakinaraziko du bere ustez gaia bere eskumenekoa den edo ez eta zer neurri hartu dituen edo hartuko dituen gai horren inguruan.
- 3.- Artxibatzea, erabaki horren arrazoiak azalduta.

2.- Dena den, batzordeak eskaera jaso duela adieraziko dio izenpetu duenari edo dutenari; kasu berezi batzuetan, haiei entzunaldia eman ahalko die jakinarazpena emateko.

3.- Bilkuren aldi bakoitzaren amaieran, batzordeak Osoko Bilkurari txosten bat bidaliko dio eta txosten horretan zenbait eskaera jaso dituen, batzordeak horien inguruan zer erabaki duen eta batzordearen eskaera jaso duten agintaritzek zer ebatzi duten, batzordeak baldin badaki, jasoko da. Txostenaren testua Arabako Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean emango da argitara, bilkuren aldi bakoitzaren amaieran egiten den azken Osoko Bilkuran izapidetu ondoren.

**62. artikulua**

- 1.- Araudi eta Barne Gobernurako Batzordea bera Batzorde Iraunkor moduan osatuko da artikulua honek xedatzen dituen ondorioetarako.
- 2.- Lehendakariak egingo du Batzorde Iraunkorraren deialdia, bere ekimenez, bi Batzarkide taldek eskatuta edo kideen bostenek eskatuta.

3.- Bilkuren aldien artean eta Batzar Nagusien agintaldia amaitzen denean, Osoko Bilkurarentzat sortzen diren eta atzeratu ezin diren funtzioak burutu eta gaiak ebatzi beharko ditu.

4.- Batzorde Iraunkorrak, burutzen duten lehen Osoko Bilkuran, landu dituen gaien eta hartu dituen erabakien berri emango du. Hauteskundeen ostean, Batzar Nagusietako Mahaiari emango dio horren berri (Mahaia aukeratu ondoren) eta Mahaiak Osoko Bilkurari jakinaraziko dio.

#### **4. atala.- Batzorde Bereziak**

##### **63. artikulua**

1.- Lan jakin baterako sortzen diren batzordeak dira batzorde bereziak; sortzeko erabakian zehaztuko da zein den lan jakin hori. Batzorde berezi horiek desagertu egingo dira aginduta duten lana amaitzen dutenean eta, edozein kasutan ere, Batzar Nagusien agintaldia amaitzen denean.

2.- Batzorde bereziak azterketarako edo ikerketarako izan daitezke. Osaketari eta funtzionamenduari dagokionez, Araudi honen 50. artikulua 4. atalak xedatutakoren menpe egongo dira batzorde horiek.

##### **64. artikulua**

1.- Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak -Mahaiak, bi Batzarkide taldek, hamabost Batzarkidek edo Arabako Foru Aldundiak proposatuta-, erabaki dezake ikerketa bati hasiera ematea Lurralde Historikoaren interesekoa izan daitekeen edozein gairen inguruan egon daitekeen behin-behineko ardura aztertzeko.

2.- Horretarako, proposamenak egin duenak Mahaiari idazki bat aurkeztu beharko dio eta idazki horretan ikerketaren xedea zein den jartzeaz gain, ikerketaren beharra ere justifikatu beharko du. Gaia Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sartuko da.

3.- Osoko Bilkurak ikerketari hasiera ematea erabakitzen badu, batzorde bat izendatuko da 50. artikulua aurreikusitako eran.

4.- Ikerketa batzordeek lan-plan bat egingo dute; batzorde horietan zenbait lan-talde egin ditzakete eta edozein partikular, agintari publiko edo funtzionari agerraldia burutzeko eska diezaiokete; beharrezkoa balitz aholkulari edo abokatu batekin burutu dezakete agerraldi hori. Hiru egun lehenago egin behar da eskaera Batzarretako lehendakariaren bitartez.

5.- Batzorde horien ondorioak txosten batean jaso behar dira eta Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak eztabaidatuko du aipatutako txostena. Eztabaida, osoko eztabaidetarako xedatutakoaren arabera egingo da. Batzordearen txostena, eta sustatzaileek eskatuz gero, baita gain hartu ez diren proposamenak ere, ALHAOn argitaratuko dira.

6.- Ikerketa amaituta, txostena Arabako Foru Aldundira bidaliko da.



7.- Batzordeetako bilkuren edukia eta eztabaidak isilpekoak izango dira Osoko Bilkurak txostena onesten duen arte, batzordeak berak beste gauza bat erabaki ezean.

8.- Lanak burutzen dituenen batzordeak delituren baten adierazgarririk ikusten badu, Batzar Nagusien Mahaiari jakinaraziko dio eta horrek fiskaltzari jakinaraziko dio.

#### IV. Kapituluak.- Osoko Bilkura

##### 65. artikulua

1.- Lehendakariak, Mahaiarekin ados eta Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, Osoko Bilkuraren deialdia egingo du, bere ekimenez edo behintzat bi Batzarkide taldek edo 15 prokuradorek eskatu diotelako.

2.- Aurreko ataleko eskaerak beti proposatu beharko du gai-zerrenda bat, baina zerrendako gaiak Araudi honen arabera Batzar Nagusien Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka daitezkeenak izan behar dira.

3.- Mahaiaren iritziz, Bozeramaileen Batzarraren iritzia entzunda, eskaera aurreko atalean ezarritakoaren arabera bada, lehendakariak deialdia egingo du proposatutako gai-zerrendarekin, eskaera egiten denetik hamabost egunen barruan egin dadin bilkura.

4.- Osoko Bilkura ondo eratuta egongo da kideen erdiak gehi bat daudenean.

5.- Quorum nahikorik ez izateagatik, aurreko puntuan adierazi bezala, Osoko Bilkura ezin bada egin, 24 orduetan berriz egingo da gai-zerrenda berberarekin eta behar bezala eratutzat hartuko da Batzarren herena agertuz gero.

##### 66. artikulua

1.- Batzarkideak bilkuren aretoan eseriko dira, Batzarkide taldeen arabera eseriko dira eta beti aulki berean egongo dira. Batzarkideen artean aulkiak banatzeko, Bozeramaileen Batzarrak erabakia hartuko du.

2.- Batzar Nagusiak biltzen diren lekuan, aulki berezi batzuk egongo dira diputatu nagusiarentzat eta foru diputatuentzat.

3.- Bilkuren aretoan, lehen aipatutakoez gain, bakar-bakarrik sar daitezke Batzar Nagusietako langileak euren funtzioak egiteko, bilkura burutzeko beharrezkoak diren kanpo-zerbitzuak eta lehendakariak berariaz baimendutako pertsonak.

##### 67. artikulua

Osoko bilkura bakartzat hartuko da deialdiaren gai-zerrendako gai guztiak landu arte; dena dela, 89. artikulua erabakiak hartzeko beharrezkoa den quorumari buruz xedatutakoa bete beharko da.

## V. Kapituluua.- Idazkaritza Nagusia

### 68. artikulua

- 1.- Batzar Nagusietako Idazkaritza Nagusia Batzarretako administrazioa da.
- 2.- Idazkaritza Nagusiari dagokio Batzarretako orgenoi laguntzea, organo horiek kudeatzea eta horiei aholkularitza ematea.
- 3.- Idazkaritza Nagusia, legelari nagusiaren zuzendaritzapean dago; legelari nagusiak langile guztien ardura du eta Batzar Nagusien zerbitziburua da. Honek Mahaiaren aurrean kudeaketaren inguruan erantzungo du lehendakaritzaren bitartez.

### 69. artikulua

- 1.- Ondokoak dira Batzar Nagusietan ari diren langileak: izendapenarekin bat etorriz, Batzarrekin lotura dutenak, zerbitzuak eman behar dituztelako, eta Batzarretako aurrekontuaren bidez ordainduko zaien ordaina jasoko dute.
- 2.- Langile horiek uneoroko inpartzialtasun eta profesionaltasun irizpideen arabera jokatu dute, hierarkian gorago daudenengandik jasotako aginduekin bat etorriz.
- 3.- Batzar Nagusietako Aurrekontuen Arauek jaso dezakete Mahaian edo beste organo batzuetan lan egiteko behin-behineko langileak kontratatu daitezkeela.

## V. TITULUA.- FUNTZIONAMENDURAKO ARAU OROKORRAK

### I. Kapituluua.- Bilkurak

### 70. artikulua

- 1.- Batzar Nagusien bilkuren aldia irailean hasi eta uztailean amaituko da, bi hilabete horiek barne.
2. **Iraileko bigarren hamabostaldian egingo den osoko bilkura Politika Orokorreko Osoko Bilkura izango da, Araudiaren 163. artikulua xedatzen duen bezala. [\(Irailaren 14ko 13/2018 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOk 112 zk., 2018 irailaren 28ko\)](#)**
- 3.- **Batzar Nagusiak urtean bitan bilduko dira alde zuzenetik deialdia egiteko beharrik eduki gabe: maiatzaren eta azaroaren azken igandean, horiek ez badira hauteskunde-prozesu batean bozkatzeko finkatu diren egunak; kasu horretan, Lehendakaritzak, Bozeramaileen Batzarrarekin ados, hurrengo edo aurreko igandean egitea erabaki dezake. Maiatzean egingo den Batzar Nagusietako Bilera, "Lur Jareetan" burutuko da, hau da, hiriburutik kanpo dagoen herriren batean. Batzarrek eurek erabakiko dute azaroko Ohiko Bilkuran non egingo duten maiatzekoa; horretarako, errotazio-sistema erabiliko da Arabako Lurralde Historikoa osatzen duten kuadrillen artean. Azaroko Ohiko Bilkura beti Vitoria-Gasteizen egingo da, betiko ohiturak dioen moduan. [\(Uztailaren 21eko 28/2014\)](#)**

***Foru Arauak aldatu duena. ALHAOk 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)***

**4. Bilkura tradizional horietan Arabako Foru Ohituraren Erabakiek eta Ordenantzek finkatutakoa (idatziz zein ahoz) burutuko da ekitaldiari, ospakizunari eta bilkuraren aurreko eta osteko protokoloari dagokienez Maiatzeko azken igandeko osoko bilkuraren gai-zerrendan lehentasunez osoko bilkura zein Kuadrillan egin eta horren inguruko gaiak jasoko dira, eta azaroko bilkura tradizionalak Vitoria-Gasteizko Kuadrillarekin lotutako gaiak. *(Irailaren 14ko 13/2018 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOk 112 zk., 2018 irailaren 28ko)***

5.- Batzarren agintaldia amaitu bada hauteskunderen deialdia egin delako, Batzorde Iraunkorraren deialdiaren bidez burutuko da ohiko bilkura.

6.- Batzar Nagusiek, artikuluko honen 1. atalean adierazitako epetik kanpo, bilkura bereziak egin ditzakete Batzarretako lehendakariak, Foru Aldundiak, Batzorde Iraunkorrek edo Batzarretako kideen herenek eskatuta. Eskaeran beraraziaz jaso behar da zein izango den eskatzen den bilkura berezi horren gai-zerrenda. Bilkuran, deialdiaren gai-zerrendan jasotakoa soilik landuko da.

7.- Bilkura berezien deialdia eta behin betiko gai-zerrenda egiteko, Araudi honek bilkura arruntei buruz dioena bete behar da, bai batzordeen kasuan bai osoko bilkuren kasuan.

**71. artikulua**

1.- Osoko Bilkurak publikoak izango dira, hurrengo artikuluko xedatutakoaren arabera isilpekoak direla erabaki ezean.

2.- Batzordeetako bilkurak publikoak izango dira. Gizarteko komunikabideetako ordezkariak joan ahal izango dira bilkura horietara, behar bezala egiaztatuak, ondoko salbuespenarekin: batzordeak uste badu, gaiaren izaera dela-eta, ezin direla bilkuran sartu. Interesa duten pertsonen joateko aukera emateko, Araudi honen 44.1.8 artikuluko xedatutakoa burutuko da.

3.- Mahaiaren eta Bozeramaileen Batzarraren bilkurak arau honetatik kanpo daude; bilkura horiek beti atek itxita egingo dira ondorio guztietarako.

**72. artikulua**

1.- Osoko bilkurak eta batzordeetako bilkurak isilpekoak izango dira ondoko kasuetan:

a) Batzar Nagusietako barne gobernuari buruzko gaiak lantzen badira.

b) Batzar Nagusien edo Batzarkideen ohoreari buruzko gaiak lantzen badira eta, edozein kasutan, Batzarkide bat epe batez kargutik kentzeari edo betiko kentzeari buruz hitz egiten bada; baita parlamentu-diziplinan eragin duen gairen bat eztabaidatzen bada ere.

c) Osoko Bilkurak edo batzordeak gehiengo osoz hala erabakitzen badu, Batzar Nagusietako Mahaiaren, Foru Aldundiaren, hiru Batzarkide talderen edo Osoko Bilkuraren edo batzordearen kideen herenen ekimenez.

2.- Isilpeko bilkura egiteko eskaera, bilkura hasi eta gutxienez 24 ordu lehenago egin beharko da; hori eginda, horri buruzko eztabaida egingo da. Eztabaida hori isilpekoa izango da eta amaitu ondoren, erabakia hartuko da eta bilkurari hasiera emango zaio erabakitako moduan.

## II. Kapituluak.- Gai-zerrenda

### 73. artikulua

1.- Lehendakariak ezarriko du Osoko Bilkurako gai-zerrenda, Bozeramaileen Batzarrarekin adostuta. Gai hori bozkatu behar bada, boto haztatua erabiliko da Batzarkide talde bakoitzaren kide kopuruaren arabera.

2.- Batzordeetan, gai-zerrenda batzordeko lehendakariak ezarriko du, Batzar Nagusietako lehendakariarekin ados, Batzar Nagusietako Mahaiak ezarritako egutegia aplikatzeko.

3.- Osoko Bilkuraren gai-zerrenda alda daiteke, Osoko Bilkurak hala erabakiz gero, lehendakariak proposatuta, edo, bestela, bi Batzarkide taldek edo hamabost Batzarkidek eskatuta.

4.- **Batzordeen gai-zerrendak alda daitezke modu berean, baina ekimena hauek izan dezakete: Batzar Nagusietako lehendakariak, batzordeko lehendakariak, bi Batzarkide talde edo eskubidea duten kideen herenak. Gai bat atzeratzea erabakiz gero, behin baino ezingo da atzeratu eta, kasu guztietan, arrazoitu beharko da. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)***

5.- Gai berri bat erantsi behar denean, bai Osoko Bilkuran bai batzordetan, gaiak izapideak beteta eduki behar ditu eta zerrendan sartzeko moduan egon, salbuespen batekin: presako arrazoiak daudenean horko kideek aho batez erabaki dezakete gaia Araudiko baldintza hori bete gabe eranstea zerrendan.

6.- Araudiak beste epe batzuk finkatzen dituztenean edo Araudi honek finkatutakoaren arabera presakoa dela erabakitzen denean izan ezik, ezin da gairik aztertu, ez batzordetan ez Osoko Bilkuran, gutxienez berrogeita zortzi ordu lehenago txostena, irizpena edo gaiari buruzko agiriak eskura jarri gabe.

## III. Kapituluak.- Eztabaidak

### 74. artikulua

1. Lehendakariak eztabaidak antolatu eta zuzenduko ditu eta hitza emango die hala eskatzen duten batzarkideei, betiere batzarkide-taldeek dituzten kide kopurua kontuan izanik, kopuru txikiena duen taldetik handiena duenera. Atxiki gabeko batzarkideak izango dira beti lehenak eta dei egingo zaie alfabetikoki beren lehen deituraren arabera. Jarraian, Talde Mistoaren txanda izango da. Batzordeetako

**lehendakariak ere eskumen horiek dituzte euren esparruetan. (*Martxoaren 5eko 2/2019 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 33 zk., 2019 martxoaren 18ko*)**

2.- Araudi honek eztabaidak arautu arren, lehendakariak ahalmena du, Bozeramaileen Batzarrarekin edo batzordeko bozeramaileekin adostuta, eztabaidak eta bozketak antolatzeko, hitzaldiak luzatzeko, laburtzeko edo metatzeko (denborari eta kopuruari dagokienez), betiere lantzen duten gaiaren garrantzia kontuan edukita.

#### **75. artikulua**

1.- Lehendakariak bilkura irekitzat joko du eta berehala gai-zerrendan sartutako gai bakoitza eztabaidatzen hasiko da.

2.- Gai-zerrendan sartutako gaien inguruko eztabaidak, hurrengo artikuluek xedatutakora egokituko dira beti.

#### **76. artikulua**

1.- Batzarkideek ezin dute hitza hartu aldez aurretik lehendakariari eskatu gabe eta hark eman gabe.

2.- Lehendakariak, lehendakariordeek edo idazkariak eztabaidan parte hartu nahi badute, Mahaia utziko dute eta ez dira bertara berriz itzuliko gai horren inguruko eztabaida eta bozketa amaitu arte.

3.- Zenbait Batzarkidek hitza eskatu badute iritzi bera emateko, bata besteari txanda utz diezaioke.

Zuzenketen alde egiteko, Batzarkideak ordezkatu daitezke, baina aldez aurretik lehendakariari jakinarazi beharko zaio.

4.- Lehendakariak Batzarkide bati hitza ematen badio baina ez badago bertan, hitza hartzeari uko egiten diola ulertuko da.

5.- Proposamena egin duen Batzarkidea ez badago, proposamena bertan behera geldituko da, Batzarkide talde horretako beste Batzarkide batek horren alde egiten duenean izan ezik.

#### **77. artikulua**

Ezin da parte-hartze edo mintzaldi bat eten edo bertan behera utzi beste bilkura batean jarraitzeko.

#### **78. artikulua**

Hitza erabiltzen ari denari ezin zaio hitzaldia eten, lehendakariak bakarrik eten diezaioke, denbora bukatu zaiola ohartarazteko, gaiari ekiteko edo ordenua mantentzeko eskatzeko, hitza kentzeko edo Batzarrei, Batzarretako kideren bati edo publikoan dagoen norbaiti ordenua mantentzeko eskatzeko.

**79. artikulua**

Foru Aldundiko kideek hitza har dezakete eskatzen duten bakoitzean, lehendakariak eztabaidak antolatzeke duen ahalmenari kalterik egin gabe.

Diputatu nagusia edo foru diputatuak aipatutako aukeraz baliatzen badira, Batzarkide taldeei gai horren inguruan hitz egiteko txanda bukatzen zaienean, horiek eskubidea izango dute erantzuteko edo zuzentzeko, behin bakarrik eta soilik bost minutuz, betiere eskatzen badute.

**80. artikulua**

1.- Eztabaidan zehar aipamenei batek lehendakariaren ustez balio-iritziak edo zehaztugabetasunak baditu Batzarkide bati buruz edo haren jokabideari buruz nahiz Batzarkide talde baten izen onari edo duintasunari buruz, aipatua izan den Batzarkideari edo Batzarkide taldearen ordezkariari hitza eman ahalko dio, gehienez ere bost minutuz egindako aipamenei ez besteri erantzuteko, eztabaidaren muinean sartu gabe. Muga horiek gainditzen baditu Batzarkideak, lehendakariak hitza kenduko dio berehala.

2.- Bilkura beraren barruan bakarrik erantzungo zaie aipamenei. Aipatutakoa aretoan ez badago, beste Batzarkide batek hitz egin dezake haren izenean.

**81. artikulua**

Edozein eztabaidatan parte-hartzaile batek beste norbaiten argudioen kontra eginez gero, beste horrek erantzuteko edo zuzentzeko aukera bakarra dauka, gehienez bost minutuz.

**82. artikulua**

Eztabaida dagoenean dagoela, Batzarkideek Araudia betetzeko eskatu ahal izango dute. Horretarako, zein artikulua eskatzen duten ezartzea aipatuko dute.

Hori ez da eztabaidatzerik izango, eta lehendakariak alegazioa ikusita erabakitzen duenari men egingo zaio.

**83. artikulua**

Edozein Batzarkidek, eztabaidan zehar edo botoa eman baino lehen, darabilten gaia argitzeko egokiak diren arauak edo agiriak irakurtzeko eska dezake. Lehendakariak irakurketak uka ditzake uste badu oso ezegokiak direla edo alferrik direla.

**84. artikulua**

Batzarkide talde batek eskatuta, lehendakariak denbora baterako eten dezake bilkura, atsedena hartzeko edo ados jartzeko nahiz kontsultak egiteko aukera emateko.

**85. artikulua**

1.- Araudiak bereziki arautu ezean, eztabaidetan taldeek jarrera agertzeko txanda bat izango dute, eta edozein gai eztabaidatzerakoan hitzaldiak ez du hamar minutu baino gehiago iraungo. Erantzuteko txandak ere egon daitezke.

2.- Osoko eztabaidetan, aldeko txanda eta aurkako txanda izango dira, batera hogeita hamar minutukoak, 74.1 artikuluan xedatutako parte-hartzeen hurrenkerari jarraituz.

**86. artikulua**

Araudiak ezarritako denbora igarotakoan, lehendakariak hizlariari bi aldiz amaitzeko eskatu eta gero hitza kenduko dio.

**87. artikulua**

Lehendakariak uste badu gai bat behar adina eztabaidatu dela, eztabaida amaitzea erabaki dezake, Mahaiaren iritzia entzun ondoren. Batzarkide talde bateko bozeramaileak eskatuta ere erabaki dezake hori. Eskaera hori egiten dutenean, aldeko eta aurkako txanda emango zaio bozeramaile bakoitzari, gehienez bost minutukoa.

**IV. Kapituluak.- Bozketak****88. artikulua**

1.- Batzarkideen botoa pertsonala da, eta ezin da eskuordetu, kasu hauetan izan ezik:

a) Haurdunaldi, erditze edo ospitaleratze, arrazoiengatik Batzarkide andrearen batek ezin badu bilkuretara joateko betebeharra bete edo azken kasu horretan Batzarkide jaunaren batek ezin badu joan, bere Batzarkide taldeko bozeramaileari edo beste Batzarkide bati eskuordetu diezaioke botoa.

b) Amatasunagatik eta aitatasunagatik gehien jota 18 asteko atsedenaldea dute Batzarkideek erditzea eta gero. Denboraldi horretan, Batzarkide Taldeko bozeramaileari eskuordetu diezaiokete botoa. Eskubide bera dute adopzio eta harrera kasuetan.

Botoa eskuordetzeko, Batzar Nagusietako Mahaiari idatzia zuzendu behar zaio, eta botoa eskuordetzen duen pertsonaren nahiz eskuordetzan hartzen duen pertsonaren izenak jarri behar dira, baita botoa zer eztabaida eta zer bozketetarako eskuordetzen den edo, kasua balitz, eskuordetze horren iraupena ere. Mahaiak, eskaera izapidetzeko onartzerakoan, eskuordetutako botoa erabiltzeko prozedura eta gehienezko iraupena ezarriko ditu. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

2.- Batzarkide batek ezingo du bozkatzeko eskubidea erabili eztabaidagaia bere

estatutuari buruzkoa denean.

### 89. artikulua

1.- Erabakiak hartzeko, Batzarretako organoek Araudiaren arabera osatu behar dute bilkura, eta kide gehienek bertan egon behar dute, berariazko agindu bidez quorum edo gehiengo berezia eskatzen denean izan ezik.

2.- Erabakiak, bertaratu diren prokuradoreen gehiengo soilarekin hartuko dira, legeek, foru arauak edo Araudi honek gehiengo bereziak eskatzen dutenean izan ezik.

3.- Gehiengo soilak da aldeko botoak aurkakoak baino gehiago izatea, abstentzioak, boto zuriak eta baliogabeko botoak kontuan hartu gabe.

4.- Gehiengo osoa lortzen dela ulertuko da bozkatzen den Batzar Nagusietako zuzenbidezko organoaren kide erdiek baino gehiagok iritzi bera ematen badute.

5.- Proposamen bat baiespenez onesten dutela ulertuko da, lehendakaritzak proposamena egiten badu eta, iragarri ondoren, ez badu inork eragozpenik edo aurkakotasunik adierazten.

6.- Prokuradoreen batek quoruma egiaztatzeko eskatzen badu eta ikusten badute bozketarako behar den quoruma ez dagoela, bilkura bi orduz etengo dute. Tarte hori amaituta, bozketa baliozkotzat joko da bertaratuko kideen kopurua organo hori osatzen duten herena baina handiagoa bada.

Quoruma egiaztatzeko eskaera, bozketa hasi baino lehen egin daiteke soilik. Bozketa hasita, ezingo da erabakiaren baliozkotasunaren aurka egin, bertaratuko Batzarkideen kopurua edozein izanda ere.

### 90. artikulua

Bozketa bat hasitakoan, batzarkideek ezin dute bilkura aretotik atera edo sartu bozketekin amaitu arte. Bozketak ezingo dira inoiz eten eta bozkatzen duten bitartean ezin zaio Batzarkide bati hitza eman.

### 91. artikulua

**1. Bozketan berdinketa dagoenean, berriro bozkatuko dute. Berriro berdinketa badago, hurrengo ohiko osoko bilkurako gai-zerrendako lehen gai moduan bozkatuko da. Ekimena presako prozeduraz bidez izapidetu bada, eztabaidatu den osoko bilkura horren amaierarako utziko da. Berriz ere berdinketa egonez gero, bozketagai den testua, irizpena, artikulua, mozioa edo gaia baztertuta geratuko da. [\(Irailaren 14ko 13/2018 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 112 zk., 2018 irailaren 28ko\)](#)**

2.- Aurreko atalean ezarritakotik kanpo geratzen dira batzordeetako bozketak. Batzordeetako bozketetan, berariaz aplikatuko da Araudi honek aurreikusitakoa.



3.- Karguak aukeratzeko orduan berdinketa gertatuz gero, bi aldiz errepikatuko da bozketa. Berdinketarekin jarraitzen bada, Arabako Lurralde Historikoko Batzar Nagusietarako hauteskundeetan boto gehien lortu duen talde politiko, koalizio, federazio edo hauteskunde taldeko hautagaia aukeratuko dute.

## 92. artikulua

Bozketa amaituta, idazkariak botoak zenbatuko ditu, emaitzaren berri emango du eta, jarraian, lehendakariak zein erabaki hartu den adieraziko du.

## 93. artikulua

1.- Gai baten inguruko bozketa edo bozketak egin ondoren, Batzarkide talde bakoitzak botoa azaltzeko txanda izan dezake, bost minutukoa gehien jota.

2.- Foru arau proiektu edo proposamenetan, botoa azal dezakete soilik osotasuna bozkatu ostean edo azken bozketa egin ostean.

3.- Ezingo da botoa azaldu bozketa isilpekoa izan bada edo Batzarkide talde guztiak aurreko eztabaidan parte hartzeko aukera izan badute. Azken kasuari dagokionez, Batzarkide talde batek eztabaidan parte hartu badu eta eztabaidaren ondorioz beste gauza bat bozkatzea erabaki badu, horrek botoa azaltzeko eskubidea izango du.

4.- Ez dira onartuko pertsona bakoitzaren banakako botoari buruzko azalpenak, baina kasu honetan bai: azalpenak emateko aukera eska dezake bere taldeak emandako botoaren kontrako botoa eman duenak.

## 94. artikulua

Osoko Bilkurek eta batzordeek erabakiak hartzeko prozedura hauek dituzte:

- a) Lehendakaritzaren proposamena baiestea.
- b) Bozketa arrunta egitea.
- c) Jendaurrean bozkatzea, izen-abizenez deituta.
- d) Isilpeko bozketa, izen-abizenez deituta.

## 95. artikulua

Lehendakaritzak erabakitzen badu, Mahaiarekin ados, bozketa arrunta egiaztatu daiteke ondoko eratako batean:

- a) Iritzia emanez lehendabizi onetsiko dutenek, gero aurka daudenek eta amaitzeko abstentzioa bozkatuko dutenek. Lehendakariak idazkariei zenbateko eskatuko lieke zalantzarik balego edo, emaitza eman ondoren, Batzarkide talderen bat hala eskatuz gero.

b) Botoak zein izan diren eta emaitzak guztira zein izan diren egiaztatuko duen prozedura elektronikoko bidez.

#### 96. artikulua

1.- Jendaurreko bozketa, banan-banan deituz, kasu hauetan egingo da: lehendakaritzak erabakitzen duenean, Mahaiarekin ados, edo bi Batzarkide taldek edo hamabost Batzarkidek eskatzen dutenean.

2.- Idazkari batek Batzarkideen izen-abizenak esango ditu, eta «bai» edo «ez» erantzungo dute, edo abstenitu egingo direla adieraziko dute. Osoko bilkuran, alfabetoaren hurrenkeran egingo dira deiak, zozketaz ateratako izena duen Batzarkidearengandik hasita eta azken izenera heldu arte. Ondoren lehen letrarekin hasiko da, zozketaz atera den Batzarkide horren izenera iritsi arte. Batzordeetan, kideen alfabetoaren hurrenkerari jarraituko zaio.

#### 97. artikulua

1.- Isilpeko bozketa, izen-abizenez deituta, ondoko kasuetan egingo da:

- a) Bi Batzarkide taldek edo hamabost Batzarkidek eskatzen badute.
- b) Karguak aukeratu behar badira.
- c) Pertsona baten ekintzak edo jokaera argitzeko helburu badute.

2.- Idazkarietako batek Batzarkideei dei egingo die alfabetoko hurrenkeran, eta Batzarkideek euren txartela sartuko dute ontzian.

### V. Kapitulua.- Epeak zenbatzea eta agiriak aurkeztea

#### 98. artikulua

1.- Epeak, jakinarazpena eta argitalpena egin den egunaren biharamunean hasiko dira beti zenbatzen eta, aurkakoa esaten ez bada, egunetan jarriz gero, egun baliodunak izango dira, igandeak eta jai-egunak alde batera utzita.

Hilabetetan jasotako epean, data batetik bestera zenbatuko dira. Azken hilabetearen ez badago hasierakoaren eguna, epea hilabetearen azken egunean amaitzen dela ulertuko da.

2.- Araudi honetan jasotako epeak zenbatzeko, abuztua hilabete baliogabetzat hartuko da. Epe horretan bilkura berezi bat egin behar bada, 70.6 artikulua xedatutakoarekin bat etorriz, Batzarretako Mahaiak finkatuko du zein egun gaituko diren, baina soilik bilkura hori egiteko izapideak egin ahal izateko.

#### 99. artikulua

1.- Batzar Nagusietako Mahaiak Araudi honetan ezartzen diren epeak laburtzea edo

luzatzea erabaki dezake.

2.- Salbuespenetan izan ezik, epeak ezingo dira beste hainbeste baino gehiago luzatu, ez eta erdia baino gutxiago laburtu ere.

### **100. artikulua**

1.- Agiriak Idazkaritza Nagusiko erregistroan 8:00etatik 15:00etara astelehenetik ostiralera aurkez daitezke.

2.- Aurkeztutako idazkiek zer motako ekimen diren bereizteko aukera eman behar dute, eta erreferenziako izenburua eduki beharko dute goian.

3.- Idazki bat epe jakin batean aurkeztu behar bada, idazki hori aurkeztu ahal izango da epea amaitzen den egunaren hurrengo egun baliaduneko 9:30ak arte Idazkaritza Nagusiko erregistroan, eta kasu horretarako larunbatak ez dira aintzat hartuko. Aurrekoa ezingo da aplikatu Araudi honen 181. artikulua aurreikusitako kasuetan.

4.- Idazkariak bide elektronikoz aurkez daitezke Batzarretako Mahaiak finkatzen dituen arauekin bat etorritik.

## **VI. Kapituluak.- Gaiak presazkotzat jotzea**

### **101. artikulua**

1.- Batzar Nagusietako Mahaiak gai bat presako prozeduraren arabera bideratzea erabaki dezake, Foru Aldundiak edo ekimenaren egileak arrazoituta eskatzen duenean.

2.- Aurreko erabakia hartzerakoan, Mahaiak epe berriak ezarriko ditu, zeintzuek epe arrunten erdia iraungo baitute, salbuespenezko inguruabarrak egon ezean behintzat

## **VII. Kapituluak.- Batzar Nagusien lanak argitaratzea**

### **102. artikulua**

Hauek dira Batzar Nagusien argitalpenak:

- 1.- Arabako Batzar Nagusien Aldizkari Ofiziala.
- 2.- Batzar Nagusien Osoko bilkuren Egunkariak.

### **103. artikulua**

Arabako Batzar Nagusietako Aldizkari Ofizialean honako hauek argitaratuko dira: Batzar Nagusietako iragarkiak, deialdiak eta erabakiak, prokuradoreek kontrolatzeko eta sustatzeko egiten dituzten jarduerak, baita Araudi honekin bat etorritik edo Mahaiak aginduta argitara eman beharreko beste edozein argitalpen ere.

**104. artikulua**

Osoko Bilkuraren Egunkarrietan oso-osorik jasoko dira Osoko Bilkura horiek; izan diren gorabeherak, egindako hitzaldi guztiak eta hartutako erabaki guztiak jasoko dira.

**105. artikulua**

1.- Batzordeetako bilera bakoitzaren akta egingo da, eta ondokoak jasoko du aktak: eztabaidatutako gaien zerrenda laburra, parte hartu duten Batzarkideen zerrenda eta sortu diren gorabeherak; gainera, onetsitako eta Mahaira edo Osoko Bilkurara eraman beharreko erabakiak edo irizpenak ere jaso behar dira hitzez hitz.

2.- Batzordeetako bileren parte-hartzeen eta gorabeheren ziurtasuna bermatuko da dagozkien bitartekoen bidez.

3.- Batzordeko kideren batek arrazoituz eskatuz gero eta batzordeak hala erabakiz gero, batzorde horren bileraren hitzez-hitzezko transkribapena egin daiteke. Batzar Nagusietako Lehendakariak edo dagokion batzordeak hala erabakitzen badu, transkribapen hori aktatzat joko da ondorio guztietarako.

4.- Batzordean parte hartzen duenak, eska dezake azpimarratu nahi duen alderdiren bat aktan jaso dezaten.

**106. artikulua**

1.- Gizarte-komunikabideei Batzar Nagusien organoen jardueren berri emateko neurri egokiak hartuko ditu Mahaiak.

2.- Mahaiak arautuko du aipatutako komunikabideetako profesionalei egiaztagiriak nola eman (euren egoera egiaztatu ondoren), lokalak esleitzen bazaizkie haietara nola sartu, eta joatea daukaten bilkuretara nola sartu.

**VIII. Kapituluak.- Batzar Nagusien diziplina****1. atala.- Esparruko ordena****107. artikulua**

Batzar Nagusien esparruan eta leku guztietan ordena egon dadin zainduko du lehendakariak, bere polizia ahalmenak erabiliz. Horretarako, egokitzen jotzen dituen neurri guztiak hartu ahal izango ditu, eta ordena hausten dutenak epaileen esku ere utziko ditu behar izanez gero.

**108. artikulua**

Inork Batzar nagusien aretoan, bilkura batean edo bilkuratik kanpo, Batzarkide izan edo ez, istilu larria sortzen baldin badu bere jarduerarekin edo hitzekin, berehala kanporatuko dute. Batzarkide baldin bada, gainera, Batzarkide-izaera kenduko dio lehendakariak

unean bertan, gehienez ere hilabeterako. Ganberak, Mahaiak proposatuta eta 114.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zigorra baliogabetu, luzatu edo larritu dezake.

### **109. artikulua**

- 1.- Tribunetan ordena egon dadin zainduko du lehendakariak jendaurreko bilkuretan.
- 2.- Publikoan norbaitek onespenezko edo gaitzespeneko adierazpenak egiten baditu, ordena hausten badu edo ez badauka behar bezalako portaera, berehala kanporatuko dute Biltzar Nagusietatik lehendakariak aginduta. Gertatutakoa delitu edo falta izan badaiteke, Bitzar Nagusietako segurtasun-zerbitzuei bidezko eginbideak betetzeko aginduko die lehendakariak, egoki irizten badio.

## ***2. atala.- Gaiari lotzeko eta portaera aldatzeko eskatzea***

### **110. artikulua**

- 1.- Batzarkide batek hitza baldin badu, lehendakariak baino ezingo dio eten ondokoa eskatzeko: portaera aldatzeko edo gaiari lotzeko.
- 2.- Batzarkideari gaiari lotzeko eskatuko zaio gaitik aldentzen bada, digresio arraroak egiten baditu edo lehendik eztabaidatua edo bozkatua dagoenaren gainera itzultzen bada. Lehendakariak hitza kenduko dio hizlariari, hitzaldi berean hirugarrenez eskatu behar badio gaiari lotzeko.
- 3.- Lehendakariak portaera aldatzeko eskatuko die Batzarkide eta hizlariari arrazoi hauengatik:
  - a) Batzar Nagusien, Batzarkideen, erakundeen edo beste entitate edo edozein pertsona edo erakunderen izen ona iraintzen duten hitzak esateagatik, edo irudi nahiz mezu grafikoak erakusteagatik.
  - b) Eztabaidak behar bezala egin daitezzen ezarritakoa ez betetzeagatik hitzaldietan.
  - c) Bilkuretako ordena hausteagatik etenaldiekin edo beste edozein modutara.
  - d) Batzarkide bati hitza kendu arren hitz egiten jarraitzen saiatzeagatik.
- 4.- Aurreko artikuluko a) hizkiaren kasuan, lehendakariak Batzarkide edo hizlariari egin dituen irainak zuzentzeko eskatuko dio, eta bilkura egunkarian ez daitezela agertu aginduko du. Eskara horri uko egiteak portaera aldatzeko behin eta berriz eskatzea ekar dezake, hurrengo artikuluan aurreikusitako ondorioekin

### **111. artikulua**

- 1.- Batzarkide edo hizlari bati bilkura berean lehendakariak hiru aldiz eskatu badio portaera aldatzeko, hitza ken diezaioke. Lehendakariak bilkuran ez jarraitzeko zigorra ezarri ahal izango dio, eta erabaki hori ezingo da eztabaidatu.

2.- Bilkura aretotik irteteko eskatu arren Batzarkideak uko egiten badio, kanporatua izan dadin beharrezko iruditzen zaizkion neurriak hartuko ditu lehendakariak. Kasu horretan, gainera, hurrengo bilkurara joatea debeka diezaioke lehendakariak, Mahaiarekin ados; dena dela, arau-haustetzat hartuko da.

### **3. atala.- Batzarkideen betebeharrak ez betetzeagatiko arau-hausteak eta zigorrak**

#### **112. artikulua**

Diziplina-zigorra izan dezaketen arau-hausteak, oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke.

#### **113. artikulua**

Honako hauek joko dira arau-hauste oso larriak:

- 1.- Zigor bat jarri eta bete ondoren, Batzarkideak berdin jokatzeko jarraituz gero.
- 2.- Batzarkideak Batzar Nagusien egoitzan armak sartzen baditu.
- 3.- Batzarkidea bilkuren aretotik bota badute eta ez badu aretotik irten nahi.
- 4.- Batzarkideak Araudi honen 27. artikulua xedatutakoa urratzen badu.
- 5.- Jardueren aitortzean garrantzi ekonomiko edo sozial handiko datuak faltsutzen edo ezkututzen baditu.

#### **114. artikulua**

Honako hauek joko dira arau-hauste larriak:

- 1.- Osoko Bilkuretara edo batzordeko bilkuretara nahita ez denean joaten behin eta berriro edo nabarmenki. Horretaz gain, Araudi honetako 25.2 eta 40.3 artikuluetan ezarritakoa ere beteko da.
- 2.- Araudi bidez ezarritako kasuetako sekretu betebeharra hausten duenean.
- 3.- Aurkeztutako aitortzean datuak faltsutu edo ezkutatzea, eta okerrak ez zuzentzea edo eman ez diren datuak ez ematea hori egiteko eskatu ondoren.
- 4.- Batzarkideak Batzar Nagusien esparruan, bilkuran egon edo ez, istilu larria sortzen badu bere jokaarekin edo hitzekin.

#### **115. artikulua**

Hona hemen arau-hauste arinak:

- 1.- Batzarkideek beste batuen hitzaldiak eten edo bilkuren ordenua hautsi badute eta Bilkura batean hiru aldiz ordenua zaintzeko eskatu badiote.
- 2.- Batzar Nagusien, Batzarkideen, erakundeen edo beste entitate edo edozein pertsona edo erakunderen izen ona iraintzen duten hitzak esaten badituzte, edo

irudi nahiz mezu grafikoak erakusten badituzte.

**3.-** Aurreko artikulua aipatutako ekintzak, betiere oso larritzat hartzeko moduko garrantzia ez badute.

#### **116. artikulua**

**1.-** Arau-hauste oso larriengatik, Batzarkide eskubideak, Araudi honetako 19. artikulutik 22.era xedatutakoak, kendu ahal zaizkie hiru hilabeteko epe baino gehiagorako, betiere sei hilabeteko epea gainditu gabe.

**2.-** Arau-hauste larriengatik, Batzarkide eskubideak, Araudi honetako 19. artikulutik 22.era xedatutakoak, kendu ahal zaizkie aldi baterako, hiru hilabeteko epea gainditu gabe.

**3.-** Arau-hauste arinengatik, ondoko zigorrak jar daitezke:

**a)** Ohartarazpen pribatua edo idatzizko ohartarazpena, betebeharra betetzera derrigortuz.

**b)** Bilkura batean lehendakariak hiru aldiz ordenua mantentzeko eskatuz gero, bilkuratek botatzea.

**c)** Batzarkide eskubideak, Araudi honetako 19. artikulutik 22.era xedatutakoak, aldi batez kentzea, hilabete gaindituko ez duen eperako, 115. artikuluan 2. atalean azaldutako arau-haustea eginez gero.

#### **117. artikulua**

**1.-** Zigorra ekarri duten gertaerak delitu izan daitezkeela uste badu Mahaiak, organo judizial eskudunari jakinaraziko dio lehendakariak.

**2.-** Zigorrek, behin ezarrita, Arabako Batzar Nagusietako Aldizkari Ofizialean eta ALHAOn emango dira argitara.

### ***4. atala.- Zigor-prozesua izapidetzea***

#### **118. artikulua**

**1.-** Zigortzeko prozedura Araudi honetara egokituko da eta, Araudi honek jasotzen ez dituen alderdien kasuan, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, finkatutakoa edo Lege horren ordez jarriko diren edo lege hori aldatuko dituzten legeak xedatutakoa bete beharko da.

**2.-** 111. artikulua xedatutakoa izan ezik, salaketa-idazki baten bidez emango zaio hasiera zigortzeko prozedurari, edozein Batzarkidek edo Batzarkide taldek eskatuta. Idazki horrek ondoko edukia izan beharko du:

**a)** ustez ardura duen Batzarkidearen identifikazioa.

b) prozeduraren hasiera sortu dituzten ekintzak labur azalduta, horiek izan dezaketen kalifikazioa eta izan ditzaketen zigorrak, prozedura bideratzearen ondoriozko zigorrak aplikatu behar badira ere.

c) zein den espedientea ebazteko organo eskudunak eta zein arauk ematen dioten eskumen hori.

3.- Atal onetan jasotako arau-haustek, arau-haustea egin eta hilabeteko epean iraugiko dira.

### 119. artikulua

1.- Arau-haustek larriak edo oso larriak badira, Araudi eta Barne Gobernurako Batzordeak du diziiplina-espedienteak ebazteko eskumena.

2.- Araudi eta Barne Arautegiko Batzordeak kideen artean zein izango den espedientearen bideratzailea aukeratuko du; ezingo da espedientea jaso duen Batzarkide taldekoa izan.

3.- Bideratzaileak egitateak zehazteko eta egiaztatzeko egokiak diren eginbideak burutzeko aginduko du, baita egoera argitzeko eta zigorra jaso dezakeen ardura zehazteko moduko eginbideak burutzeko ere.

### 120. artikulua

1.- Bideratzaileak dagokion kargu-orria egin eta jakinaraziko du.

2.- Kargu-orria modu argian eta zehatzean idatzi beharko da. Zein ekintza egozten zaizkion eta ustez zein arau-hauste egin duen eta zer zigor jar daitekeen jasoko du; gainera, aplikagarri diren Araudiaren aginduak aipatuko dira. Halaber, bideratzailearen izen-abizenak eta zigorra ezartzeko eskumena zein organok duen esango du.

### 121. artikulua

1.- Kargu-orriak errunduntzat zein jo den jasoko du eta hamar eguneko epea emango dio (luzaezina) egokitzen jotzen dituen alegazioekin erantzun dezan.

2.- Errunduntzat jo denak kargu-orriari erantzuteko zuzenbideak onargarri den eta beharrezkotzat jotzen duen edozein froga aurkez dezake, eta egokiak jotzen dituen agiriak aurkez ditzake frogarekin batera.

### 122. artikulua

1.- Bideratzaileak gehien jota hamabost eguneko epea izango du egokitzen jotzen dituen frogak burutzeko, uste baldin badu egokiak direla gertatutakoa argitzeko eta ardura zeinek duten jakiteko.

2.- Frogaldia amaituta, bideratzaileak ebazteko proposamena egingo du; proposamen horretan, ondokoak jasoko ditu: ondo zehaztuko du ekintzak zein izan diren, sailkapen



juridikoa egingo du zein izan den egindako arau-hauste zehazteko eta errunduntzat jotako pertsona horren ardura zein izan daitekeen azaltzeko, eta ezarri beharreko zigor proposamena egingo du.

### 123. artikulua

1.- Bideratzailearen espedientea amaituta, Araudi eta Barne Gobernurako Batzordeari bidaliko dio bere ebazpen proposamena, honek gehiengo soil batez erabaki bat har dezan.

2.- Diziplina-prozedura amaitzeko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, espedientearen agertutako galdera guztiak erantzungo ditu, zigorrak nolakoak eta noiz artekoak izango diren jasoko du eta ezingo ditu onartu kargu-orriaren eta ebazpen proposamenaren oinarri izan ziren bestelako egitaterik, egitate horiek beste modu batera kalifikatu ahal badira ere.

3.- Jarri beharreko zigorra oso larria baldin bada, Batzar Nagusien Osoko Bilkurak berretsi beharko du, isilpeko bilkura baten bidez diziplina-espedientearen ebazpena, eta Batzarkide taldeak hala eskatzen badu isilpeko bozketa egingo da. Erabaki horren aurka ezingo da helegiterik jarri. Eztabaidan, Batzarkide taldeek euren bozeramaileen bidez har dezakete parte, eta bakoitzak gehien jota 10 minutuz hitz egin dezake; Osoko Bilkurak ebatziko du beste izapiderik gabe.

4.- Mahaiak jarritako zigorrei, Batzar Nagusien Osoko Bilkuraren aurrean aurkez ahal izango zaie helegitea zigorra jarri eta hurrengo hamabost egunez. Osoko Bilkurak helegitea ebatziko du helegite hori jarri eta hurrengo hamabost egunetan.

### 124. artikulua

Arau-hausteak arinak badira, Mahaiak prozedura sinplifikatua erabil dezake; horren arabera, aldez aurretik errunduntzat jo den Batzarkideari entzunaldi soila edo deskargua egiteko aukera emango zaio eta prozedura ebazpen arrazoituaren bidez amaituko da.

## IX. Kapituluak.- Izapideak iraungitzea

### 125. artikulua

Batzar Nagusien agintaldia bukatzen denean, izapidetze bidean dauden gai guztiak iraungi egingo dira -Batzorde Iraunkorrari dagozkionak edo legeak luzatu beharrekoak direla dioenean izan ezik-, baita Araudi honen 154. artikuluan aipatzen diren foru arau proiektuak ere. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

## VI. TITULUA.- ARAUGINTZAKO PROZEDURA

### I. Kapituluak.- Araugintzako prozedura arrunta

**1. atala.- Araugintzarako ekimena****126. artikulua**

Hauek daukate araugintzarako ekimena Batzar Nagusien aurrean:

- 1.- Batzarkideek eta Batzarkide taldeek, Araudi honetan aurreikusitakoari lotuta.
- 2.- Foru Aldundiak.
- 3.- Herritarrek, araugintzarako herri-ekimenaren bidez.

**2. atala.- Foru arau proiektuak****127. artikulua**

Foru Aldundiak bidalitako foru arau proiektuek, zioen adierazpena eta iritzi egokia eman ahal izateko beharrezkoak diren aurrekariak jasoko dituzte, baita horiek egiteko erabili den dokumentazio administratibo eta publiko guztia ere. Halaber, horiekin batera txosten bat ere aurkeztuko da non proiektuek aurrekontu kargarik ekarriko duten edo ez jasoko den, baita aurreproiektuei buruz derrigorrez egin diren txostenak ere. [\(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko\)](#)

**128. artikulua**

1.- Proiektua izapidetzeko onartuta, Batzar Nagusietako Mahaiak horren aurkezpenari buruzko iragarkia argitaratzeko aginduko du, baita batzordera bidaltzeko ere. Batzarkide taldeek, hiru eguneko epean, izapidetzeko onartzen denetik, Foru Aldundiaren agerraldia eska dezakete, proiektua hobeto ezagutzeko egokia dela jotzen badute, betiere 56. artikulua aurreikusitakoarekin bat etorriz.

2.- Mahaiak, halaber, erabaki egingo du iragarki bat Arabako Batzar Nagusietako aldizkarian eta web orrian jartzea eta, horren bidez, aipatutako proiektua herritarren esku jarriko du; gainera, hamar eguneko epea irekiko du aldizkarian argitaratzen denetik, —eta erdia premiaz izapidetu behar bada—, epe horretan herritarrek Idazkaritza Nagusian alegazioak aurkez ditzaten, banaka edo elkarte zein antolakunderen bidez. Idazkaritza Nagusiak berehala aurkeztutako alegazioak Batzarkide taldeei bidaliko die, eta Mahaiari horiek jaso eta bidali dituela adieraziko dio. Halaber, alegazioak aurkeztutako eredu-formulario bat finka daiteke. Eredu hori herritarrek hartu ahal izango dute Batzar Nagusien administrazio-bulegoetan edo erakundearen web orrian. [\(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Araua gahitu zaio. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko\)](#)

**129. artikulua**

1.- Agerraldirik eskatu ez bada, edo agerraldia amaitu ondoren, hamabost eguneko epea

irekiko da osoko zuzenketak edo artikuluei zuzenketak aurkezteko; horretarako, Batzar Nagusietako Mahairi idazkia zuzendu behar zaio.

2.- Batzarkide taldeek osoko zuzenketak egin ditzakete, bai proiektua Foru Aldundiari atzera bidaltzeko eskatzeko, bai proiektuaren testuaren ordezkari beste testu artikulatu bat proposatzeko.

3.- **Batzarkideek zatikako zuzenketak aurkez ditzakete, artikuluetan testua kendu, gehitu edo aldatzeko. Zuzenketan aditzera eman behar dute bere taldeko bozeramailea jakinean dagoela. Zuzenketa horiek bat etorriko dira araugintza-ekimenarekin. Gehitzeko eta ordezkari zuzenketetan, proposatzen den testua jaso behar da. Halaber, zuzenketak proposa daitezke foru arauaren izenburuarentzat, zioen adierazpenarentzat, atalen izenburuarentzat, atalen antolaketa sistematikoarentzat, eta xedapen gehigarri, aldi baterako xedapen, indargabetzeko xedapen edo azken xedapenarentzat. (*Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko*)**

### 130. artikulua

1.- Foru aruari egindako zuzenketak, uneko aurrekontuan kredituak gehitzea edo sarrerak gutxitzea badakar, Foru Aldundiaren adostasuna behar du izapidetzeko. Bi kasu hauetan ez zaio iritziko kreditu gehitzea dakarrela zuzenketak: batetik, behin betiko onartua izanez gero eragina etorkizuneko aurrekontu ekitaldi baterako atzeratzen denean; bestetik, Batzarkide edo Batzarkide talde proposatzaileak zuzenketa aurkezterakoan adierazten duenean aurrekontu kredituen zenbateko osoa gaindituz gero gastuak indarrean dagoen aurrekontuko zein partidaren kontura ordainduko direla. (*Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko*)

2.- Horretarako, Batzar Nagusietako Mahaiak Foru Aldundiari bidaliko dizkio aipatutako gehitzea edo gutxitzea dakartzaten zuzenketak.

3.- Foru Aldundiak erantzun arrazoitua eman behar du hamabost eguneko epean. Epea igarota, Aldundiaren isiltasunak adostasuna adieraziko du. Mahaiak erabaki dezake epe hori luzatzea.

### 131. artikulua

1.- Osoko zuzenketa bakoitzaren ezaugarria Osoko Bilkuran egingo da, Araudi honek aurreikusi dituen osoko ezaugarriekin bat etorritik. Ekimena egin duen taldeak edo Batzarkideak hasiko du ezaugarria.

2.- Ezaugarria hasi baino lehen, Foru Aldundiko kide batek foru araua proiektua aurkez dezake.

3.- Ezaugarria bukatuta, lehendakariak bozketan jarriko du proiektua Foru Aldundiari atzera itzultzea edo ez, edo, ordezkari testua aurkeztu badute, onartzea edo ez.

4.- Lehenik, itzultzea proposatzen duten osoko zuzenketak bozkatuko dira batera. Beste aukerako testu bat proposatzen dutenak, banan-banan bozkatuko dira. Kide gutxien dituen talde proposatzailea hasiko da; Talde Mistoa izango da beti lehena. Zuzenketa horietako bat onartuz gero, besteak ez dira bozkatuko.

5.- Osoko Bilkurak proiektua itzultzea erabakitzen badu, proiektua baztertutzat joko da, eta lehendakariak horren berri emango dio Foru Aldundiari.

6.- Ordezko testua duen osoko zuzenketa batek aurrera egiten badu, Arabako Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratuko da ordezko testua; beste epe bat irekiko da artikuluen gainean zuzenketak aurkezteko, eta testua dagokion batzordeari bidaliko zaio.

### **3. atala.- Batzordeko eztabaida**

#### **132. artikulua**

1.- Zuzenketak aurkezteko epea bukatu denean, eta osoko zuzenketen eztabaida bukatu denean, eztabaida egin bada, batzordeak ponentzia bat izendatu ahal izango du, foru arau proiektua edo proposamena eta aurkeztutako zuzenketa partzialak aztertzeo eta, batzorde hori ondoko ataletan xedatutakoarekin bat etorritik lan egingo du, 57. artikulua xedatutakoaz gain. Ponentzia horretan eragindako pertsonak edo taldeak edo, gaiaren inguruan ospe handia duten profesionalak parte har dezakete.

2.- Ponentzia Batzarkide talde bakoitzeko kide batez osatuko da, eta boto haztatuz hartuko ditu erabakiak.

3.- Ponentziak batzordeari txostena aurkeztuko dio, aurkeztutako zuzenketei buruz egokiak iruditzen zaizkion proposamenak bilduta. Halaber, Batzarkide talderik ez badago aurka, aldaketak iradoki ahal izango ditu zuzenketarik izan ez duten artikuluei buruz, egoki iritzi gero.

4.- Batzar Nagusietako Mahaiak txostenak egiteko epea finkatuko du eta epe hori luza dezake, proiektuaren garrantzia dela-eta, lanaren zailtasuna dela-eta edo beste inguruabarrak direla-eta.

#### **133. artikulua**

1.- Ponentziak, bere kasuan, txostena amaitu badu eta, bakar-bakarrik beste pertsona batzuen agerraldiak burutu badira, ez-ohiko hiru eguneko epea irekiko da, ponentziaren azken bileratik, zuzenketa partzialak aurkezteko. Zuzenketen kasuan, Mahaiak kalifikatzeko tramite arruntarekin jarraituko da. Batzordeko eztabaida artikuluz artikulua egingo dute, zuzenketak aurkeztu dituzten taldeek zuzenketak eztabaidatzeko metatzea erabakitzen ez badute. Eztabaida horretan, artikuluari zuzenketak aurkeztu dizkiotenek eta batzordeko kideek har dezakete parte.

2.- Batzordeak zioen adierazpena foru arauaren atariko gisa jasotzea erabakitzen badu, artikuluekin bukatutakoan eztabaidatuko dira zioen adierazpenaren gainean

aurkeztutako zuzenketak.

3.- Artikulu bat eztabaidatzen ari direla batzordeko kide batek idatziz zuzenketa berri bat aurkeztuz gero, izapidetzeko onar daiteke, baldin eta lehenago aurkeztutako zuzenketa eta artikuluaren testuaren artean erdibideko adostasuna bilatzeko dela ulertzen bada.

4.- Izapidetzeko onartuko dira, baita ere, huts eta akats teknikoak, terminologikoak edo gramatikalak konpontzeko egindako zuzenketak.

5.- Lehendakaritzak, zenbaterik eskatu duten hitza eta irizpena egiteko duten denbora kontuan izanik, eztabaida antola dezake. Horretarako, artikulu bakoitza edo artikulu-talde bakoitza eztabaidatzeko bakoitzak izango duen gehienezko denbora finkatuko du.

6.- Batzordearen eztabaida zuzendaritzari dagokionez, Araudi honek Batzar Nagusietako Lehendakaritzari eta Mahaiari esleitzen dizkion eskumenak izango ditu lehendakaritzak.

#### **134. artikulua**

1.- Zuzenketa ez denean batzordearen irizpenean jaso, egin duen Batzarkide taldeak zuzenketa utz dezake Osoko Bilkuran defendatzeko.

2.- Batzordearen irizpenarekin ados ez dauden taldeek egoki deritzen boto partikularrak aurkez ditzakete Osoko Bilkuran defendatzeko. Boto horiek proiektuaren testuan zuzendua izan denari buruzkoak izango dira.

3.- Osoko Bilkuran eztabaidatzeko utzitako zuzenketak eta batzordearen irizpenari egindako boto partikularrak idatziz egin beharko dira eztabaidaren edozein unetan edo, bestela, irizpena amaitu eta hurrengo hiru egunen barruan.

4.- Epe hori igarota, batzordeak Osoko Bilkurara bidaliko du irizpena, mantendutako zuzenketekin eta aurkeztutako boto partikularrekin batera.

### ***4. atala.- Osoko Bilkurako eztabaida***

#### **135. artikulua**

1.- Batzordeak proiektu baten irizpena egin duenean, Osoko Bilkurako eztabaida hasteko, Foru Aldundiko kide batek ekimena aurkez dezake, baldin eta aurkezpena osoko eztabaidan egin ez bazen, eta batzordeko kide batek irizpena aurkez dezake, batzordeak hala erabaki badu. Hitzaldi horiek ezingo dute hamabost minutu baino gehiago iraun.

2.- Irizpenaren gaineko boto partikularrik ez badago, eta zuzenketak ez badira utzi, lehendakariak irizpen osoa bozkatzeko aginduko du.

#### **136. artikulua**

1.- Zuzenketak utzi dituztenean eta boto partikularrak egon direnean, artikuluz artikulua

eztabaidatuko dira; dena dela, lehendakariak du eztabaida antolatzeke eskumena.

**2.-** Eztabaidan, lehendakariak huts eta akats teknikoak, terminologikoak edo gramatikalak konpontzeko egindako zuzenketak onar ditzake. Dagoeneko aurkeztu diren zuzenketen eta idatziz jasotako irizpenaren testuaren arteko Zuzenketa transakzionalak soilik aurkez daitezke, betiere talderen bat onartzearen aurka ez badago eta transakzionalarekin aldatu diren zuzenketak bertan behera uzten badira.

**3.-** Eztabaida amaitutakoan, bozketak hasiko dira. Hasteko, boto partikularrak eta zuzenketak bozkatuko dira Lehendakariak zehazten duen hurrenkeran. Onartzen diren zuzenketak irizpenaren testuan sartuko dira. Artikuluen inguruan zuzenketak egin baina zuzenketa horiek ez badira onartu, artikuluen testu hori ez da aldatuko eta irizpidean hasieran idatzitako moduan geldituko dela ulertuko da.

**4.-** Zuzenketak eztabaidatu eta bozkatu ondoren, zuzenketarik jaso ez duen irizpenaren testua bozkatuko da, eta barnean sartuko da ondoko artikuluen gaineko testua: zuzenketak eduki baina onartu ez diren artikuluena.

### **137. artikulua**

Aurreko artikuluetan agindutakoa gorabehera, lehendakariak honako ahalmen hauek ditu:

**1.-** Proiektu bat eztabaidatzeko gehieneko denbora finka dezake alde aurretik, Mahaiarekin ados jarrita eta Bozeramaileen Batzarraren iritzia entzunda. Denbora hori aurreikusitako hitzaldien artean banatuko du, eta, bukatutakoan, geratzen diren bozketak egingo dira.

**2.-** Eztabaidak eta bozketak gaika, artikulua multzoka, zuzenketa multzoka edo artikuluetako paragrafoa antola ditzake, hala komeni denean testua konplexua delako, asmoetan eta zuzenketetan antzekotasunak edo loturak daudelako edo batzarkide taldeen jarreraren arteko norgehiagoka politikoa argiago geratuko delako.

### **138. artikulua**

Proiektuaren eztabaida amaitu eta berrogeita zortzi ordu igaro baino lehen, Osoko Bilkurak onartutako testua berriro batzordera bidal dezake Mahaiak, bere ekimenez edo batzordeak eskatuta, honako kasu honetan: boto partikular bat onartu, zuzenketa bat onartu edo artikulua bozkatu eta gero lortutako testua inkongruentea edo iluna denean punturen batean. Helburua da batzordeak hamabost eguneko epean idazketa harmonikoa egin dezala Osoko Bilkurako erabakiak ongi uzteko. Osoko Bilkurak hartuko du horrela idatzitako irizpenaren inguruko azken erabakia, eta bozketa bakarrean onartu edo baztertuko du osorik, Bozeramaileen Batzarrak zuzenketa aho batez onartzen ez badu behintzat.

### **139. artikulua**

Izapidetzen ari den arauaren proiektu bat erretira dezake Foru Aldundiak, baldin eta

batzordeak ez badu irizpena osorik onartu.

### **5. atala.- Foru arau proiektuak**

#### **140. artikulua**

Foru arauaren proposamenek, zioen adierazpena eta iritzi egokia eman ahal izateko beharrezkoak diren aurrekariak jasoko dituzte.

#### **141. artikulua**

1.- Honako hauek daukate foru arau proposamena aurkezteko ekimena:

- 1.- Batzarkide batek, Batzarretako beste hiru kideren sinadurarekin.
- 2.- Batzarkide talde batek, bozeramailearen edo ordezkoen sinadura bakar batekin.
- 3.- Herritarrek, dagokion foru arauak finkatzen dituen baldintzekin.

2.- Ekimena aurkeztuta, 1. eta 2. zenbakietako kasuetan, Batzar Nagusietako Mahaiak foru arau proposamenaren aurkezpena Arabako Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du, baita Foru Aldundiari bidaltzeko ere. Foru Aldundiak, proposamena aintzat hartzeari buruz duen irizpidea adieraziko du, eta, aurrekontu kredituak gehitzea edo aurrekontu sarrerak gutxitzea badakar, baita izapidetzeko onartzearekin ados dagoen edo ez ere, Araudi honetako 130. artikuluan aurreikusitako bezala.

**3.- Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundira hori bidali eta hamabost egun igarota Foru Aldundiak ez badu aditzera eman aurkeztutako proposamenarekin ados dagoen edo ez, proposamena osoko bilkurako gaitzerrendan sartzeko moduan izango da, aintzat hartu ala ez erabakitzeko. Aldundiaren irizpidearekin batera, Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren oinarri izan diren txosten guztiak, foru zerbitzuak egindakoak, aurkeztu beharko dira. [\(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOk 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko\)](#)**

4.- Eztabaidarekin hasi baino lehen, Foru Aldundiaren irizpena irakurriko da, halakorik balego. Eztabaidan, 85.2 artikuluan osoko eztabaidetarako ezarritakoari jarraituko zaio. Lehenengo eta behin, proposamena egin duen taldeak edo taldeek aurkezpena egingo dute.

5.- Jarraian, Lehendakariak Arau proposamena aintzat hartzearen alde edo aurka bozkatzeko eskatuko die. Erantzuna baiezkoa bada, zuzenketak aurkezteko epea hasiko da (epe hori Batzar Nagusietako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean hasiko da); artikulatuari baino ezingo zaizkio zuzenketak aurkeztu. Batzar Nagusietako Mahaiak dagokion batzordera bidaltzea erabakiko du, batzordeak dagokion irizpena egin dezan. Zuzenketak aurkezteko epea amaituta, foru arau proiektuetarako aurreikusitako izapide

bera izango du proposamenak.

6.- Artikulu honetako 1. zenbakiko 3. kasuari dagokionez, proposamena onartu ondoren eta proposamena batzorde sustatzaileari eta Hauteskunde Batzarrari bidali baino lehen, Mahaiak Foru Aldundira bidaliko du eta Foru Aldundiak hamabost eguneko epean esan beharko du, arrazoituz, horren onespenerekin aurrekontu kredituak gehituko diren edo sarrerak gutxituko diren, 130. artikulurekin aurreikusitako ondorioekin.

#### 142. artikulua

Foru araua proposamena egin duen taldeak erretiratu ahal izango du, betiere Osoko Bilkurak aintzat hartu baino lehen. Aintzat hartzeko erabakia hartuta badago, bakarrik erretira dezake Batzarretako Osoko Bilkurak hori onartzen badu.

### II. Kapituluak.- Araugintza-prozedura bereziak

#### 1. atala.- Batzordeak araugintza-ahalmen osoa edukitzea

#### 143. artikulua

1.- Foru arau proiektu edo proposamenak ez direnean garrantzi bereziko gai orokorreari buruz, Batzar Nagusietako Mahaiak erabaki dezake, irizpena egiteko arduraren batzordeak araugintzarako eskumen osoa hartzea, azken onarpena Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak eman beharrik izan gabe. Mahaiaren erabakia Arabako Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da. Kasu horietan, batzordean boto haztatuaren sistema erabiliko da. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

2.- Hala ere, erabakia argitaratu eta hiru eguneko epean bi Batzarkide talde edo eskubidea duten Batzarretako kideen herenak aurka azaltzen badira, Osoko Bilkurak erabakiko du gaia.

3.- Inoiz ezingo da eskuordetzea era orokorrean edo zehaztu gabe egin.

#### 2. atala.- Foru arau proiektuak edo proposamenak irakurraldi bakarrez onestea

#### 144. artikulua

1.- Aintzat hartutako foru araua proiektuaren edo foru arau proposamenaren izaerak horretarako aukera ematen badu, Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak erabaki dezake zuzenean irakurraldi bakarrean izapidetzea Osoko Bilkuraren aurrean. Mahaiak proposatu behar du hori, aho batez, eta Bozeramaileen Batzarraren iritzia entzun behar du Osoko Bilkurak onartu aurretik. Hori erabakiz gero, ez dago zuzenketak aurkezteko eskubiderik.

2.- Aipatutako erabakia hartutakoan, eztabaida egingo da, osoko eztabaidetarako ezarritako arauari lotuta, eta gero bozketa bakarra egingo da proiektu osoarentzat.



3.- Foru Aldundiak Ganberako Mahaiari eska diezaioke, arrazoituz, irakurraldi bakarraren bidea erabiltzeko foru arau proiektuak izapidetzeko. Eskaera hori artikuluko honetako 1. atalaren arabera izapidetuko da.

4.- Foru arau proposamenen kasuan, proposatzen duen taldeak edo taldeek irakurketa bakarrez izapidetzeko eska dezakete modu arrazoituan. Eskaera hori artikuluko honetako 1. atalaren arabera izapidetuko da.

**3. atala.- Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketaren Foru Arauaren  
6.2.b) artikulua aipatzen dituen Foru Aldundiaren Erabakiak berresteko  
prozedura**

**145. artikulua**

1.- Arabako Foru Aldundiak eskumenak lagatzeari edo gain hartzeri buruz hartzen dituen erabakiei dagokienez, Arabako Batzar Nagusietako Osoko Bilkuraren berrespena beharko dute.

2.- Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak berretsi beharko ditu Arabako Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzarekin, Estatuarekin, beste lurralde historikoekin, autonomia erkidegoekin edo probintziekin izenpetu behar dituen hitzarmenak, betiere horiek sinatu baino lehen.

Osoko Bilkurak berretsiko ditu, osoko eztabaida burutu ondoren; eztabaida hori lehendakariak, Mahaiarekin ados, emango dituen arauen arabera burutuko da.

**3.- (Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko) Foru Aldundiak uste badu hitzarmen bat premiaz izapidetu behar duela, Batzar Nagusietara bidaliko du, izenpetzeko premia justifikatuta:**

a) Mahaiak Batzarkide taldeei bidaliko die hitzarmena eta horiek zazpi eguneko epea izango dute, eman diotenetik, esateko ez daudela ados alde aurretik Batzar Nagusiek berretsi gabe hitzarmen hori sinatzearekin.

b) Batzarkide talderik ez badu aurkakotasunik adierazten finkatutako epean, sinatzeko baimena ematen dutela ulertuko da eta Batzarretako lehendakariak hori esango dio Foru Aldundiari, hitzarmena sinatzeari ekin diezaion; gainera, hurrengo osoko bilkuraren gai-zerrendan sartuko da, osoko bilkurak berretsi dezan.

c) Aldez aurretik sinatzearen aurkako iritzirik balego, hitzarmena, Mahaiak finkatzen duen eskumeneko batzordearen gai-zerrendan sartuko da. batzordeak, araugintzako ahalmen osoarekin, hitzarmena berresteari edo ez berresteari ekingo dio osoko eztabaida burutu ondoren. Osoko eztabaida hori lehendakariak, Mahaiaren ados, ematen dituen arauarekin bat etorriz burutuko dute.

4.- Eskumenak lagatzeari edo gain hartzeari buruzko erabakiak berretsiz gero edo hitzarmenak berretsiz gero, horiek foru arau bihurtuko dira eta Foru Arau moduan

emango dira argitara ALHAOn eta Arabako Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean.

#### **4. atala.- Ekimen legegilea Eusko Legebatzarraren aurrean**

##### **146. artikulua**

1.- Autonomia Estatuaren 27. artikulua Eusko Legebatzarreko Mahaiari bidaltzeko lege proposamenak egiteko aukera jaso du. Lege proposamen horiek, Araudi honek araugintza-prozedura arrunterako aurreikusitakoaren arabera izapidetuko dira.

2.- Aurreko artikuluan aipaturako lege proposamenak onesteko, osoko bozketa egin behar da eta gehiengo osoak onetsi beharko ditu.

3.- Aukeratzeko zein Batzarkidek aldeztu beharko dituzten lege proposamenak Eusko Legebatzarrean, Batzarkide taldeek euren hautagaiak proposatuko dituzte eta Batzarkide bakoitzak izen bat idatziko du dagokion txartelean. Bozeramaileen Batzarrak aldeztu aurretik finkatuko du zenbat Batzarkide joango diren, baina gehienez hiru izango dira, boto gehien lortzen dituztenak. Aukeratzeko orduan garrantzitsuak izan daitezkeen berdinketak gertatuz gero, beste bozketa batzuen bidez ebatziko dira. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

#### **5. atala.- Zergaren gaineko Foru Araua Orokorren 8. artikuluko Zerga Premiazko Araugintzako Foru Dekretuak izapidetzea.**

##### **147. artikulua**

1.- Foru Aldundiak, Zergaren inguruko Foru Arau Orokorren 8. artikulua arabera dituen eskumenak erabiliz, Zerga Premiazko Araugintzako Foru Dekretua egin eta Batzarretara bidatzen duenean, Batzarrek, hori jaso ondoren, eztabaidatuko dute eta Osoko Bilkuran, Ogasunean eskumena duen batzordean edo Batzorde Iraunkorrean (Batzar Nagusietako Mahaiak erabakitzen duenaren arabera) baliozkotzea edo indargabetzea bozkatuko dute Dekretu hori argitaratu eta hogeita hamar eguneko epea amaitu baino lehen. Dena dela, Zerga Premiazko Araugintzako Foru Dekretua gai-zerrendan sar daiteke, eztabaidatzeko eta onesteko, ALHAOn argitaratu bezain pronto. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

2.- Foru Aldundiaren kide batek azalduko du zergatik atera behar izan duten hori eta ondoren eztabaidatuko dute osoko eztabaidetarako xedatutakoarekin bat etorriz.

3.- Eztabaida amaituta, bozkatuko dute; baiezko botoak, balioztatzearen aldekoak direla eta ezezkoak indargabetzearen aldekoak direla ulertuko da.

4.- Zerga Premiazko Araugintzako Foru Dekretua balioztatuta, lehendakariak Batzarkide taldeei galdetuko die ea norbaitek foru araua proiektu moduan izapidetu dezaten nahi duen. Baietz esaten badu norbaitek, Osoko Bilkurak edo balioztatu duen batzordeak

hartuko du erabakia. Foru araua proiektu moduan izapidetzea erabakiz gero, premiaz izapidetuko da eta ez da osoko zuzenketarik onartuko.

**5.-** Aurreko tramiteak batzordean egiten badira, egin beharreko bozketak, boto haztatuz egingo dira.

**6.-** Zerga Premiazko Araugintza Dekretu bat balioztatu edo indargabetuz gero, ALHAOn argitaratuko da eta, balioztatu bada, foru arau bihurtuko da.

### **III. Kapitulua.– Premiazko prozedura**

#### **148. artikulua**

Foru Aldundiak, bi Batzarkide taldek edo Batzarretako kideen bostenek eskatuta, Batzar Nagusietako Mahaiak erabaki dezake foru arau proposamen edo proiektu bat premiazko prozeduraz izapidetu behar dela.

#### **149. artikulua**

**1.-** Aurreko erabakia hartuta, Mahaiak epe berriak finkatuko ditu Araudiak jasotakoan aldean.

**2.-** Salbuespenak alde batera utzita, epe horiek Araudian aipatutakoan erdikoak izango dira.

### **IV. Kapitulua.- Aurrekontuen Foru Arau Proiektua**

#### **150. artikulua**

**1.-** Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrek aztertzeko eta onesteko, araugintzarako prozedura arruntari jarraituko zaio, baina artikulua honetan adierazten diren salbuespenekin.

**2.-** Aurrekontu orokorren Foru Arau proiektuak Batzar Nagusien gainerako lanen aldean lehentasuna dauka izapidetzerakoan eta Mahaiak gainerako organoen lan-egutegia egoki dezake adierazitako lehentasun horren arabera.

**3.-** Aurrekontua eztabaidatzerakoan, artikuluen testua eta gastuen eta sarreraren egoera eztabaidatuko da, nahiz eta horrekin batera doazen beste eranskin edo agiri batzuk ere azter daitezkeen.

**4.-** Batzordeko lehendakariak eta Batzar Nagusietako lehendakariak eztabaidak eta egoerak antolatu ditzakete aurrekontu proiektuaren egiturari ondoen datorkion bezala.

#### **151. artikulua**

**1.-** Batzar Nagusietako Mahaiak arau proiektua onartu eta kalifikatuko du eta Batzarkide taldeei bidaliko die, Batzarkide taldeek azter dezaten gehienez hamar eguneko epean.

Halaber, proiektua izapidetzeko egutegia onetsiko du eta horren iragarkia argitaratzeko aginduko du, zuzenketak aurkez ditzaten.

**2.- Mahaiak, Aurrekontuen Foru Arau proiektua izapidetzeko onartutakoan, aldizkarian eta Arabako Batzar nagusien web orrian iragarki bat jartzea erabakiko du eta, horren bidez, aipatutako proiektua herritarren esku jarriko du; gainera, hamar eguneko epea irekiko du, aldizkarian argitaratzen denetik, eta epe horretan herritarrek Idazkaritza Nagusian alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, banaka edo elkarte zein antolakunderen bidez. Idazkaritza Nagusiak berehala aurkeztutako alegazioak Batzarkide taldeei bidaliko die, eta Mahaiari horiek jaso eta bidali dituela adieraziko dio. Halaber, Idazkaritza Nagusiak alegazioak aurkeztutako eredu-formulario bat finka dezake. Eredu hori herritarrek hartu ahal izango dute Batzar Nagusien administrazio-bulegoetan edo erakundearen web orrian. Alegaziorik aurkeztu dituzten gizarte-eragilek eta antolakundek, alegazio horiek horretarako deitutako Ogasuneko Batzordean azaldu ahalko dituzte, Batzarkide taldeek zuzenketak aurkezten amaitu baino lehen. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)***

**3.-** Aurreko atalean aipatutako hamar eguneko epe horretan, Foru Aldundia osatzen duten sailek Aurrekontuen inguruan eskumena duen batzordean agerraldia burutuko dute eta euren arlo edo atalen inguruko aurkezpen ofiziala egingo dute; gainera, partiden izaera eta garrantzia dela-eta eskatzen dizkieten informazioak eta argipenak eman beharko dituzte eta aurkezten dizkieten zalantzak argitu beharko dituzte. Hori dela-eta, ez dira izapidetzeko onartuko ondoko arrazoian oinarritutako zuzenketak: aurrekontu-partida horiek ez dituztela ondo azaldu.

**4.-** Aurreko atalean aipatutako agerraldiak burutu eta hurrengo egunean zuzenketetarako epea hasiko da. Batzarkide taldeen bidez Aurrekontuen Foru Arau proiektuari osoko zuzenketa egin dakioke, baita artikuluen testuaren zuzenketa, sekzio oso batena edo aurrekontuen programa, kapitulu, artikulua, kontzeptu, nahiz partidena eta memoria ere.

**5.-** Mahaiak behin betiko kalifikazioa egiteko ahalmenak ditu, baina hauek joko dira osoko zuzenketatzat:

**a)** Foru arau proiektuaren egokitasunari, printzipioei eta espirituari buruz ari diren eta proiektu osoa edo proiektuaren egitura osatzen duten sekzio osoak Foru Aldundiari itzultzeko proposatzen dutenak, baita departamentu bati dagokion aurrekontua itzultzea edo aurrekontua kentzea proposatzen dutenak ere.

**b)** Gastu osoaren edo sarrera osoaren kopuruetan aldaketa positiboa edo negatiboa proposatzen dutenak.

**6.-** Aurrekontuen proiektuari zuzenketa partzialak egin dakizkioke: sekzio bakoitzari buruz, programei buruz, edo barruko kapitulu, artikulua, kontzeptu, partida eta memoriari buruz. Betiere, zuzenketaren testuan adierazi behar da zer programari eta sailari dagokion zuzenketa.

**7.-** Kontzeptu batzuen kreditua handitzea badakar zuzenketak, izapidetzeko onartua

izateko, baldintza orokorrak betetzeaz gain, aurrekontuko beste kontzeptu batean kopuru bereko jaitsiera proposatu beharra dauka.

Zuzenketa proiektuko artikuluen testuari buruzkoa izan eta automatikoki aurrekontu-kreditu bat handitzea badakar, aurreko paragrafoko baldintzak bete behar ditu baita ere.

**8.- Aurrekontuen proiektuari eginiko zuzenketak sarrerak gutxitzea badakar, Foru Aldundiaren adostasuna behar du izapidetzeko. Zuzenketa batek sarrera gutxitzen duela ulertuko da zerga-xedapenak aldatzen dituzenean. Hau da, zerga-xedapenok zerga-zorraren kopurua zehazten duten elementuei buruzkoak izanik, zorraren kopurua txikitzen duenean. Arabako Foru Aldundiak Batzar Nagusietako Mahaiari zer iritzi duen jakinaraziko dio lau egunen barruan, Mahaiak halako zuzenketen berri ematen dionetik. ([Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko](#))**

### 152. artikulua

1.- Zuzenketak kalifikatu eta izapidetzeko onartu ondoren, Batzar Nagusien Osoko Bilkurak osoko zuzenketak, aurreko artikuluko 5. puntuan aipatutakoak, eztabaidatu eta ebatziko ditu. Osoko Bilkura horrek sarrera eta gastu osoen behin betiko kopuruak finkatuko ditu.

2.- Jarraian, aurrekontuetan eskuduna den batzordeak, araugintzako ahalmen osoarekin, gainerako zuzenketak eztabaidatuko eta bozkatuko ditu. Batzordean boto haztatuz bozkatuko da.

3.- Batzordeak hartu duen onespene erabakia, hurrengo Osoko Bilkurara eraman beharko da, bilkurak berretsi dezan.

### 153. artikulua

Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontuak onartu direnean, Foru Aldundiak aurrekontu-ekitaldi bereko gastu publikoa handitzea edo sarrerak txikitzea dakarten arau proiektuak aurkez ditzake.

Arau proiektu edo foru arau proposamen bati eginiko zuzenketak gastua handitzea edo sarrerak txikitzea dakarrenean, Araudi honetako 130. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz bideratuko da.

## V. Kapituluak.- Kontu orokorrak onestea

### 154. artikulua

1.- Urteko kontu orokorra onartzen duen foru arau proiektua jasotzen denean, Batzarkide taldeei bidaliko zaie, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak fiskalizazio-txostena egin arte itxarongo da.

**2.- Herri Kontuen Euskal Epaitegiak fiskalizatze-txostena bidalita, txostena**

Batzarkide taldeei bidaliko zaie. Bidali eta zazpi egun balioduneko epean Batzarkide taldeek Herri Kontuen Euskal Epaitegiko ordezkarien agerraldia eska dezakete aipatutako fiskalizatze-txostena azal dezaten. Agerraldia gauzatu ondoren, Kontu Orokorra onesteko foru arau proiektua dagokion osoko bilkuraren gai-zerrendan sartzeko modukoa izango da. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

3.- Proiektua Osoko Bilkuran irakurraldi bakar bidez izapidetuko da. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

4.- *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak kendu du. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

## VI. Kapitulumua.- Araudia aldatzea

### 155. artikulua

Araudiaren aldaketak, foru araua proposamenetarako xedatutakoaren arabera burutuko dira, Foru Aldundiaren esku-hartzea izan ezik eta, gainera, Batzar Nagusietako kideen gehiengo osoak onetsi beharko ditu aldaketa horiek.

## VII. TITULUA.- BATZAR NAGUSIEK FORU ALDUNDIAREN GAINEAN BURUTZEKO DUTEN KONTROLA

### I. Kapitulumua.- Diputatu nagusia izendatzea

### 156. artikulua

1.- Batzar Nagusiak berritzen diren bakoitzean eta foru arauen arabera diputatu nagusi bat izendatu behar diren gainontzeko kasuetan, Batzar Nagusietako lehendakariak, Mahaiari eta Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, finkatu egingo du noizko egingo den diputatu nagusia izendatzeko Osoko Bilkuraren deialdia.

2.- Batzar Nagusietako Mahaiaren aurrean aurkeztuko dira hautagaien inguruko proposamenak, bakoitzaren Batzarkide taldearen bidez, Osoko Bilkurarako finkatu den eguna baino hirurogeita hamabi ordu lehenago beranduenez.

3.- Bilkuraren hasieran, Mahaiko idazkarietako batek proposatu dituzten hautagaien izenak irakurriko ditu. Jarraian, hautagai bakoitzak osatu nahi duten foru gobernurako progrmaren ildo nagusiak azalduko ditu gehienez hirurogeita hamar minutuz.

4.- Gero, Batzarkide talde bakoitzeko ordezkari batek hitz egingo du, gehienez hogeita hamar minutuz.

5.- Proposatutako hautagai bakoitzak Batzarkide taldeen ordezkariari erantzun diezaieke, gehienez hogeita hamar minutuz. Batzarkide taldeen ordezkariak ere erantzuteko aukera izango dute, hamar minutuz. Gero, bilkura etengo da eta Mahaiak esango du noiz ekingo zaion berriro, bozketa egiteko.

**157. artikulua**

- 1.- Bilkura berriro hasita, bozketa egingo dute.
- 2.- Diputatu nagusi izendatzeko, hautagai batek Batzar Nagusietako kide hautetsien botoen gehiengo osoa lortu behar du lehenengo bozketan. Bigarren bozketan gehiengo soilak nahikoa da. Ez dira abstentzioak kontuan izango horiek zenbatzeko orduan.
- 3.- Aurreko atalean aipatutako bigarren bozketan berdinketa gertatuz gero, Batzar Nagusietarako hauteskundeetan boto gehien lortu zituen alderdi politiko edo koalizioko hautagaia izendatuko dute diputatu nagusi.
- 4.- Jarraian Batzar Nagusietako lehendakaria diputatu nagusi aukeratu dutenaren izena esango du eta diputatu nagusi horrek bere kargua hartuko du ohiko moduan, Batzar Nagusietako lehendakariaren aurrean eta ondoko formula esanez: "Juro o prometo defender los Fueros, buenos usos y costumbres de Álava, signo de su autogobierno y de libertad, en aumento de la Justicia"/ Zin egin edo hitz ematen dut Arabako Foruen eta ohitura zaharren eta onen alde egingo dudala, burujabetzaren eta askatasunaren ikurra direlako eta justizia handitzearren".

**158. artikulua**

Batzar Nagusiek diputatu nagusia izendatu arte, ezin da gai-zerrendan beste gairik sartu, behintzat aparteko eta presako arrazoirik ez badago gairen bat sartzea aholkatzen duena. Mahaiak eta Bozeramaileen Batzarrak erabakiko dute arrazoi horiek ba ote dauden.

**II. Kapituluak.- Foru Aldundiak duen ardura politikoa****1. atala.- Konfiantza-arazoa****159. artikulua**

- 1.- Diputatu nagusiak Batzar nagusietan konfiantza-arazoa aurkeztu nahi badu, betiere foru arauekin bat etorritik, Batzar Nagusietako Mahaiak aurkeztutako idazki arrazoitu bidez egingo du eta, horrekin batera, Aldundiko Foru Diputatuen Kontseiluaren ziurtagiria aurkeztu beharko du.
- 2.- Mahaiak idazkia izapidetzeko onartu ondoren, lehendakariak Bozeramaileen Batzarrari horren berri emango dio eta Osoko Bilkurarako deialdia egingo du.
- 3.- Eztatanda honako arau hauen arabera burutuko dute:
  - a) Diputatu nagusiak Osoko Bilkurari azalduko dio, denbora-mugarik gabe, konfiantza-arazoa, Osoko Bilkurak aintzat hartu beharko duena.
  - b) Hitzaldia bukatutakoan, Batzar Nagusietako lehendakariak bilkura etetea erabaki dezake, gehienez hogeita lau orduz. Eten ezean segidan, eta, bestela,



etenaldia igarotakoan, Batzarkide talde bakoitzeko ordezkari batek hitz egingo du gehienez hogeita hamar minutuz.

**c) Diputatu Nagusiak gehien jota 30 minutu ditu erantzuteko. Batzarkide taldeek behin erantzuteko aukera izango dute, 10 minutuz. (*Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko*)**

4.- Eztabaida amaitu ondoren, konfiantza-arazoa bozkatuko dute.

5.- Batzar Nagusien botoen gehiengo soila lortuz gero, konfiantza emanda dago.

6.- Batzar Nagusiek diputatu nagusiari konfiantza ukatuz gero, diputatu nagusiak dimisioa aurkeztuko du eta beste diputatu nagusi bat aukeratuko dute, Araudi honetako 156. artikulua eta hurrengoan eta Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa buruzko Foru Arauaren 26. artikulua arabera.

## **2. atala.- Zentsura-mozioa**

### **160. artikulua**

1.- Batzar Nagusiek Foru Aldundiari erantzukizun politikoa eska diezaiokete zentsura-mozioa onartuz. Behintzat hamabost Batzarkidek egin beharko dute horren proposamena eta diputatu nagusirako hautagaia eta gobernu-programa bat proposatu beharko dute.

2.- Zentsura-mozioa aurkeztuta, Araudiak eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatuko du Mahaiak, eta izapidetzeko onartuko du. Zentsura-mozioa aurkeztu dutela jakinaraziko die diputatu nagusiari eta Batzarkide taldeetako bozeramaileei.

3.- Zentsura-mozioa ezingo dute bozkatu aurkeztu duten egunetik bost egun igaro arte.

4.- Epe horretako hasierako bi egunetan, aukerako mozioak aurkez daitezke, zentsura-moziorako aipatutako baldintzak bete beharko dituzte eta horiek onartzeko aipatutako bide berari jarraituko diote.

5.- Zentsura-mozioa eta horien aukerak, halakorik balego, onesteko, Batzar Nagusietako kideen gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da.

6.- Gehiengo osoak ez badu zentsura-mozioa onartu, zentsura-mozio hori sinatu dutenek ezingo dute beste bat aurkeztu sei hilabete igaro arte.

### **161. artikulua**

1.- Eztabaida hasteko, zentsura-mozioa izenpetu duten Batzarkide batek mozioa defendatuko du, gehienez hirurogei minutuz. Jarraian, mozioan diputatu nagusi izateko proposatutako hautagaiak hitz egin dezake, denbora-muga berarekin, zer programa politiko garatu nahi duen azaltzeko.

2.- Aurreko hitzaldiak bukatutakoan, Batzar Nagusietako lehendakariak bilkura etetea erabaki dezake, gehienez hogeita lau orduz. Epe hori amaitutakoan, eskatzen duten



Batzarkide taldeen ordezkariak hitz egingo dute, gehienez hogeita hamar minutuz. Guztiek izango dute erantzuteko txandarako aukera, hamar minutukoa.

**3.-** Zentsura-mozio bat baino gehiago aurkeztu badituzte, Batzar Nagusietako lehendakariak, Bozeramaileen Batzarraren iritzia entzunda, gai-zerrendan sartu diren mozio guztiak batera eztabaidatzea erabaki dezake, baina bozketa banaka egingo da, aurkeztu diren hurrenkera berean.

**4.-** Zentsura-mozio bat onartzen bada, aurkeztutako gainerakoak ez dira bozkatuko.

**5.-** Batzar Nagusiek zentsura-mozio bat onartzen badute, diputatu nagusiak kargua galduko du, eta mozioan azaldutako hautagaia diputatu nagusi aldarrikatuko da.

### **162. artikulua**

Foru diputatu bati eskumenekoa duen arloaren gaineko ardura eskatu ahal izango zaio zentsura-mozioaren bidez, Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketaren Foru Arauak xedatutakoarekin bat etorriz; Araudi honen 160. eta 161. artikuluetan aurreikusitako moduan izapidetuko da, baina ezingo da hautagairik proposatu, ezta aukerako moziorik aurkeztu ere.

## **III. Kapituluak.- Politika orokorrari buruzko eztabaida**

### **163. artikulua**

**1.- Foru Aldundiaren politika orokorrari buruzko eztabaida, Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketaren Foru Arauaren 33. artikulua aipatutakoa, urtero egingo da irailaren bigarren hamabostaldian.**

**Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da egingo Foru Hauteskundeak burutu ondoren, Batzar Nagusien agintaldi berriaren lehen bilkura-aldian. (*Irailaren 14ko 13/2018 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 112 zk., 2018 irailaren 28ko*)**

**2.-** Diputatu nagusiak idazki bat bidali behar die Batzar Nagusiei eztabaida baino hirurogeita hamabi ordu lehenago, eta idazkian azaldu behar ditu Foru Aldundiaren ildo nagusiak Arabako Lurralde Historikoaren egoerari buruz, baita urtean araugintzaren arloan egitea aurreikusten duenari eta hartu nahi dituen neurriei buruz ere.

**3.- Eztabaida hasteko, diputatu nagusiak hitz egingo du, gehienez ordu eta erdiz. Jarraian, eztabaida eten egingo da hurrengo eguneko lehen ordura bitartean; orduan, batzarkide-taldeen ordezkarien txanda bat irekiko da, txikienetik handienera, gehienez hogeita hamar minutuz hitz egin dezaten. (*Irailaren 14ko 13/2018 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 112 zk., 2018 irailaren 28ko*)**

**4.-** Foru Aldundiak Batzarkide taldeen ordezkariak erantzun ahal izango die hizpidera ekarri dituzten gaiak buruz, banaka edo multzoan. Batzarkide taldeek erantzun dezakete, egoki irizten diotena adierazteko; talde bakoitzak hamar minutu izango ditu horretarako.

**5.- Eztabaida amaituta eta bozketarik gabe, lehendakariak bilkurari bukaera**

**emango dio. (Irailaren 14ko 13/2018 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 112 zk., 2018 irailaren 28ko)**

**6.- (Irailaren 14ko 13/2018 Foru Arauak kendu du. ALHAOko 112 zk., 2018 irailaren 28ko)**

**7.- (Irailaren 14ko 13/2018 Foru Arauak kendu du. ALHAOko 112 zk., 2018 irailaren 28ko)**

**8.- (Irailaren 14ko 13/2018 Foru Arauak kendu du. ALHAOko 112 zk., 2018 irailaren 28ko)**

#### **164. artikulua**

1.- Halaber, Foru Aldundiaren ekintza politikoari buruzko eztabaida orokorrak ere burutu ahal izango dituzte, Aldundiak hala eskatzen badu eta Mahaiak, Bozeramaileen Batzarrarekin ados, hala erabakitzen badu (hiru Batzarkide talderen edo Batzarkideen herenen ekimenez).

2.- Eztabaida amaitzen denean, hogeita hamar minutuko epea hasiko da eta epe horretan Batzarkide taldeak Mahaiari ebazteko proposamenak aurkeztu ahal izango dizkiote. Mahaiak, eztabaidagai den gaiarekin bat datozenak onartuko ditu, betiere diputatu nagusiarentzako konfiantza-arazoa edo zentsura-mozioa ekartzen ez badute.

3.- Onartutako proposamenak gehien jota hamar minutuz defendatu ahal izango dira. Batzar Nagusietako lehendakariak aurkako txanda ere eman dezake (iraupen berakoa), proposamen bakoitzaren defentsa amaitu ostean.

4.- Eztabaida amaituta, Batzarretako lehendakariak bozkatzeko eskatuko die aurkeztu izan diren hurrenkeran.

### **IV. Kapituluak.- Interpelazioak eta Galderak**

#### **1. atala.- Interpelazioak**

#### **165. artikulua**

Batzarkideek, Batzarkide taldearen bitartez, interpelazioak egin diezazkiekete Foru Aldundiari edo Aldundiko kide bakoitzari.

#### **166. artikulua**

1.- Interpelazioak idatziz aurkeztu behar dira Batzar Nagusietako Mahaiaren aurrean, eta Foru Aldundiaren jokabidearen arrazoiei edo asmoei buruzkoak izango dira, Aldundiaren politika orokorrari dagozkion gai jakin batzuetan edo garrantzia publiko berezia duten gaietan.

2.- Mahaiak egiaztatuko du aurkeztutako idazkiak aurreko ataletako baldintzak betetzen dituela, proposatutako gaiak eta emandako arrazoiak kontuan hartuta. Ez baditu

baldintzak betetzen, ezezkoa jakinaraziko zaio ekimena izan duenari, beste era batera proposa dezan, nahi badu.

3.- Forma-akats soilak konpontzea onartuko du Mahaiak, idazkiak arauzko moduan izapidetzea galarazten badute.

**167. artikulua** (*Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko*)

**Osoko Bilkurako gai-zerrendan sartuko dira bilkuraren egunaren baino lehenagoko hamabigarren egunaren 15:00ak baino lehen aurkeztu diren interpelazioak.**

**168. artikulua**

Interpelazioak Osoko Bilkuran aztertuko dira. Egileak hitz egiteko aukera dauka, gero Foru Aldundiak erantzungo du, eta bakoitzak erantzuteko txanda bana dute ondoren. Lehenengo hitzaldiek gehienez hamar minutu iraungo dute, eta erantzuteko txandek bost.

**169. artikulua**

1.- Batzarkide taldeak edo interpelazioaren egileak –bere taldearen bidez– mozioa aurkez dezake eztabaida egitea eta Ganberak jarrera hartzea bultzatzeko, Foru Aldundiak emandako azalpenen eta interpelazioan azaldutako gaien inguruan.

2.- Interpelazioa aztertu duen Osoko Bilkura amaitu eta handik berrogeita zortzi orduen barruan aurkeztu behar da mozioa. Mahaiak begiratuko du mozioaren testuak lotura duen interpelazioaren gaiarekin eta, hala bada, hurrengo Osoko Bilkurako gai-zerrendan sartuko da. Zuzenketak aurkeztu ahal izango dira osoko bilkuraren aurreko egun baliadunaren 14:00ak arte, larunbatak kanpoan utzita.

3.- Mozioen eztabaida, bozketa eta betetze-kontrola mozio arruntentzat ezarritakoaren arabera egingo da.

**2. atala.- Galderak**

**170. artikulua**

1.- Batzarkideek galderak egin diezazkiekete Foru Aldundiari edo Aldundiko kide bakoitzari.

2.- Galderak idatziz aurkeztu behar zaizkio Batzar Nagusien Mahaiari. Horiek, gai, egitate, egoera edo informazio bati buruzkoak izango dira, gai baten inguruan Foru Aldundiak erabakirik hartu duen edo hartuko duen jakiteko edo Foru Aldundiak Batzar Nagusiei alderdi baten inguruan agiriren edo informaziorik emango dien jakiteko.

3.- Galdera norbere interes hutserako egin bada, ez da onartuko.

4.- Mahaiak idazkia kalifikatuko du eta izapidetzeko onartuko du atal honetan aurreikusitako baldintzak betetzen baditu. Galdera egin duenak besterik adierazi ezean, ulertuko da idatzizko erantzuna nahi duela. Ahozko erantzuna eskatu badu, berriz, erantzuna dagokion batzordean jasoko duela ulertuko da, besterik zehaztu ezean.

#### 171. artikulua

1.- Osoko Bilkuran erantzutea nahi bada, galdera aurkeztu behar da Erregistro Orokorrean, bilkura egiteko egunaren baino lehenagoko hamabigarren egunaren 15:00ak baino lehenago. Testuan galdera soil eta bakarra agertuko da. Baina gai baten inguruan zenbait galdera erantzutea nahi izanez gero, idazki bakar batean beharreko galderak sar daitezke; Mahaiak galdera horiek gaiarekin lotzen direla egiaztatzeko eskumena du. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

2.- Gai-zerrendan sartu ez diren galderak, hurrengo osoko bilkurarako utzi nahi badira, erretiratu beharko dira; horretarako, idazki bat aurkeztu beharko da osoko bilkura horretarako ekimenak aurkezteko epean.. Horrela egiten ez bada, bertan behera gelditu direla ulertuko da. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

3.- *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak kendu du. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko).*

4.- Galderetan galdera bakarra jasoz gero, Osoko Bilkuran honako modu honetara izapidetuko dira: Batzarkideak Galdera egingo du labur eta Foru Aldundiak erantzungo dio. Ondoren Batzarkideak berriz hitza har dezake erantzuteko edo berriz galdetzeko, eta Foru Aldundiak berriz hitz egin ondoren, eztabaida amaituko da. Lehendakariak hitz egingo dutenen artean banatuko du denbora, baina galdera bat izapidetzeko ez dute inoiz zortzi minutuko tartea gaindituko.

5.- Galdera-idazkiak galdera bat baino gehiago badu, modu honetara egingo da galdera: Batzarkideak hiru minutuz gehienez ekimena aurkeztuko du labur-labur. Foru Aldundiak bost minutu izango ditu erantzuteko. Ondoren Batzarkideak hitza har dezake zerbait argitzeko edo informazio gehiago eskatzeko, bost minutu izango ditu. Aldundiak berriz hitz egingo du, gehien jota hiru minutuz, eta eztabaida amaituko da.

6.- Lehendakaria arduratuko da ezarritako denborak zorrotz errespetatzeaz. Denbora bukatu ahala txanda hitza duen hurrengoari emango dio, edo hurrengo gaiari ekingo dio.

#### 172. artikulua

1.- Salbuespen moduan eta premia dagoenean, Batzarretako lehendakariak, Bozeramaileen Batzarrarekin ados eta Foru Aldundiaren iritzia entzun ondoren, Osoko Bilkura baten gai-zerrendan sar ditzake Araudiaren 171.1 artikuluan aipatzen den epetik kanpo aurkeztutako galderaren bat; betiere galdera hori bilkura hasteko ordua baino 48 orduz lehenago aurkeztu bada Erregistro Orokorrean.

2.- Galdera horiek izapidetzeko onartzeko, idazkian beran premiaren arrazoiak justifikatu beharko dira, eta kalifikatzeko orduan kontuan izango dira zein diren planteatzen den gaiaren ezaugarriak, zein den egiten den garaiaren egoera eta gaurkotasunaren arabera zergatik ezin den gai hori beste Osoko Bilkurako atzeratu.

3.- Premiazko galderak, modu horretara kalifikatuta, lehentasuna izango dute gai-zerrendan diren gaien aurrean.

4.- Ondorio horietarako, 1. atalean adierazitako epean aurkeztutako premiazko galderarik badago, Mahaia eta Bozeramaileen Batzarra bilduko dira bilkura baino lehen eta, Foru Aldundiko ordezkaria han dagoela eta hari entzun ondoren, gai-zerrenda aldatzea eta premiazko galdera horiek sartzea erabaki dezakete.

### 173. artikulua

1.- Batzordean ahoz erantzutea nahi diren galderak idatziz egin behar dira, eta Foru Aldundiari helarazten zaizkionetik zazpi egun igarotakoan batzordeko gai-zerrendan sartuko dira.

**2. Galdera zuzendu zaion Foru Aldundiko kidea saileko beste goi kargu batzuekin etor daiteke, nahi duelako edo horrela eskatu diolako galderaren egileak. Galdera izapidetzeko denbora ezingo da hogeita minutu baino gehiagokoa izan; galderaren egileak eta agerraldi-egileak erabilitako denbora ezin izango da hamar minutu baino gehiago izan. (*Irailaren 14ko 13/2018 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 112 zk., 2018 irailaren 28ko*)**

### 174. artikulua

1.- Idatziz erantzutea nahi diren galderak Mahaiari aurkeztuko zaizkio. Mahaiak izapidetzeko onartuko ditu baldin eta edukiagatik ez badira soilik informazio edo dokumentazio eskera bat; horrela bada, mota horretako ekimen moduan kalifikatuko ditu.

**2. Erantzuna erregistroan jaso behar da, Foru Aldundira galdera bidali eta hamabost egunen barruan. (*Irailaren 14ko 13/2018 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 112 zk., 2018 irailaren 28ko*)**

3.- Aldundiak, Mahaiari zuzendutako jakinarazpen arrazoituen bidez, edozein unetan eta galdera bakoitzarengatik behin bakarrik, erantzuna atzeratzea eska dezake. Kasu horretan, erantzuna beste hamar egunez luzatuko da. (*Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Araua gehitu zaio. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko*).

4.- Erantzuteko arauzko epea amaitu bada eta ez bada erantzunik jaso eta Foru Aldundiak atzeratzeko eskaera egin ez badu edo zergatik ezingo duen erantzun esan ez badu, Batzar Nagusietako lehendakariak Foru Aldundiari gertatuko azalduko dio eta gai hori automatikoki hurrengo Kontroleko Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sartuko da, ahoz erantzuteko galdera moduan landuko dute eta lehentasuna izango du Kontroleko Osoko Bilkurarako gainontzeko gaien aurrean.

**3. atala.- Kontroleko osoko bilkura. Arau orokorrak****175. artikulua**

1.- Bilkuren aldi bakoitzaren hasieran, lehendakaritzak, Mahaiarekin bat etorri eta Bozera maileen Batzarrari entzun ondoren, hilabete bakoitzean egun bat finkatuko du Osoko Bilkura bat egiteko. Osoko bilkura horretan Batzarkideek eta Batzarkide taldeek Foru Aldundiari egiten dizkieten galderak eta interpelazioak landuko dira.

Araudi honetan aurreikusitako tramiteak bete dituzten Galderak eta Interpelazioak baino ezingo dira bilkura horren gai-zerrendan sartu.

2.- Galderen edo Interpelazioen idazkiak Erregistro Orokorrean jasotzen direnean, berehala Foru Aldundiaren Idazkaritza Nagusira bidaliko dira, Idazkaritza Nagusiak horiek ezagutu ditzan; hala ere, Mahaiak horiek kalifikatu beharko ditu.

**3.- Osoko Bilkuraren behin betiko gai-zerrendak ezingo ditu hogeita bost gai baino gehiago izan; horietatik, Batzarretan osatu diren Batzarkide talde kopuru berdina gutxienez gordeko da interpelazioetarako, eta gainontzekoak galdera arruntetarako edo premiazko galderetarako izango dira. ([Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko](#))**

**4. Mahaiak, Bozera maileen Batzarrarekin ados, bilkura-aldi bakoitzaren hasieran finkatuko du zenbat galdera dagozkion batzarkide-talde bakoitzari, taldea osatzen duten kideen kopurua aintzat hartuta, eta atxiki gabeko batzarkide bakoitzari; dena dela, hilean behin egiten den kontroleko osoko bilkuran taldeei gutxienez galdera bana egiteko aukera emango die. ([Martxoaren 5eko 2/2019 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 33 zk., 2019 martxoaren 18ko](#))**

5.- Talde batek aurkeztutako galderen kupoa agortzen badu, beste bat premiazkotzat jotzen bada, taldearen galdera arrunt bat kendu beharko litzateke osoko bilkuraren gai-zerrendatik. ([Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko](#))

6.- Interpelazioei dagokienez, Osoko Bilkura bakoitzerako gordetako kopurua gaindituz gero, lehentasuna izango dute bilkuren aldi horretan ondoko kupoa agortu ez duten Batzarkide taldeek: bost Batzarkide edo Batzarkide zatiki bakoitzeko interpelazio bat esleitzekoa. Ezin dira Batzarkide talde bakoitzaren bi interpelazio baino gehiago sartu. Aurrekoa bete behar bada ere, aurkezpenaren lehentasunaren irizpidea aplikatuko da. ([Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko](#)).

**176. artikulua**

Bilkuren aldi bat amaituta, erantzuteke dauden interpelazioak eta galderak, bilkuren aldien artean idatziz erantzun beharreko galdera moduan izapidetuko dira, ondoko kasuan izan ezik: ekimena sinatu duenak Mahaiari zuzendutako idazki baten bidez

ekimen horren izaera berresten badu bilkuren aldia amaitu eta hurrengo hamar egunen barruan.

#### 177. artikulua

1.- Batzarretako Mahaiak, gai-zerrendan sartu diren eta gai baten ingurukoak edo lotura duten gaien ingurukoak diren interpelazioak edo galderak metatzeko eta batera eztabaida dezaten agintzeko eskumena du.

2.- Mahaiak, Bozeramaileen Batzarraren iritzia entzunda, adieraz dezake ezin direla interpelazio eta galdera jakin batzuk izapidetzeko onartu bilkuren aldi berean bideratutako beste interpelazio edo galdera bat errepikatzen dutelako.

#### 178. artikulua

1.- Aldundiak, Mahaiari zuzendutako jakinarazpen arrazoituen bidez, edozein unetan eta galdera bakoitzarengatik behin bakarrik, hurrengo osoko bilkurako gai-zerrendarako uzteko eska dezake. Eskumena duen organoak egiten duen hurrengo bilkurarako utziko da aipatutako ekimena. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

2.- Ezinbesteko kausen ondorioz, interpelazioak edo galderak ezin baditu erantzun erantzuteko eskatu zaion diputatuak, diputatu nagusiak edo Arabako Lurralde Historikoko Erakunde Antolamenduari buruzko Foru Arauaren arabera beraren funtzioak gain hartzen dituen pertsonak erantzungo du. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Araua gehitu zaio. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko).*

### VIII. TITULUA.- MOZIOAK, ALDUNDIAREN KOMUNIKAZIOAK, ERAKUNDE ADIERAZPENAK, INFORMATZEKO BILKURAK ETA AGERRALDIAK.

#### I. Kapituluak.- Mozioak

#### 179. artikulua

1.- Edozein Batzarkide taldek Osoko Bilkuran edo Batzordean eztabaidatzeko mozioak aurkez ditzake ondoko helburu hauekin:

a) Foru Aldundiak bere eskumenekoak diren gaiei buruzko proposamenak bidal diezazkien Batzar Nagusiei.

b) Gai jakin bati buruz Batzar Nagusiek eztabaidatu dezaten eta horren inguruko iritzia eman dezaten.

2.- Mozioak Mahaiari zuzendutako idazki baten bidez aurkeztu behar dira. Mahaiak mozioa onartzea edo ez erabakiko du eta, onartzen badu, argitaratzeko eta dagokion Osoko Bilkuran edo batzordean izapidetzeko aginduko du, betiere mozioaren xede den gaiaren garrantzia kontuan izanik.

3.- Mozioa Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, zazpi eguneko epea



irekiko da Batzarkide taldeek zuzenketak aurkez ditzaten.

4.- Mozioen gainean ondoko zuzenketa hauek egin daitezke:

- a) Aldatzeko edo kentzekoa: Mozioaren testu osoa beste modu batera idaztea proposatzen badu edo paragrafo edo testu bat ordezkatzea edo kentzea proposatzen badu.
- b) Gehitzekoa: Ekimen nagusian testu edo paragrafo bat sartzea proposatzen badu.

## 180. artikulua

1.- Zuzenketak aurkezteko epea amaituta, mozioa Osoko Bilkuraren edo batzordearen gai-zerrendan sartuko da; kontuan izan behar da bilkura bakoitzean Batzarkide talde beraren bi mozio baino ezin direla sartu.

2.- Gai-zerrendan sartutako mozioa eztabaidatuko dute; ekimena proposatu duen taldeak azalpena egin ondoren (hamar minutuz gehien jota), zuzenketak aurkeztu dituzten taldeek hitz egingo dute, bakoitzak beste hamar minutu izango ditu eta, ondoren, zuzenketarik aurkeztu ez duten eta hitza eskatu duten taldeek hitz egingo dute beste denboraz. Amaitzeko, erantzuteko txanda egin daiteke, Batzarkide Talde bakoitzak bost minutu izango ditu. Baterako mozio bat aurkezten bada, proposamena egin duten taldeetako bakoitzak bost minutu izango ditu, gehien jota, aurkezpena egiteko. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOk 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

3.- Hitzaldi guztiak amaituta, bozketa ondoko modu honetara egingo da:

- a) Hasteko, mozioa proposatu duen taldeak onartu ez dituen gehitze zuzenketak bozkatuko dituzte. Onartuz gero, hasierako ekimenera gehituko dira.
- b) Ondoren mozioa, mozioaren egileak onartutako zuzenketak eta onetsitako gehitze zuzenketak barne, bozkatuko dute. Testua onartuz gero, ordezkatzeko edo kentzeko zuzenketak bertan behera utziko dira.
- c) Mozioa ez bada onartzen, ordezkatzeko edo kentzeko zuzenketak bozkatuko dituzte, gutxienetik handienera, proposatu dituzten Batzarkide taldeek duten kide kopuruaren arabera. Bat onartuz gero, gainerakoak bertan behera utziko dira.

4.- Zuzenketak aurkeztu dituzten taldeek eta mozioa aurkeztu duenak testu transakzional bat aurkez dezakete Osoko Bilkurak edo batzordeak onar dezan. Hori egiten bada, bertan behera utziko dira transakzionala egin duten taldeek egindako zuzenketak.

5.- Mozioa puntuka edo paragrafoka bozkatzeko —hori egitea posible balitz—, mozioaren egilearen onarpena beharko da, eta puntu edo paragrafo horietako bat edo batzuk onartzen badira eta beste batzuk ez, bozkatzeke dauden zuzenketak bertan behera utziko dira.

6.- Batzordeko edo Batzarretako lehendakariak gai baten inguruko edo lotura duten



gaien inguruko mozioak meta ditzake eztabaidatzeko.

#### **181. artikulua**

Proposamena egin duen taldeak eskatuta, Mahaiak presazkotzat jotzen dituen mozioak, hurrengo Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sartuko dira. Zuzenketak aurkezteko epea bileraren aurreko egun baliodunean amaituko da (14:00etan); larunbata ez da egun balioduntzat hartuko honetarako.

#### **182. artikulua**

**1.- Mozioa izapidetzeko onartuta, eta bidean den bitartean, ezingo da xede bera duen beste moziorik izapidetu, hasierako mozioa proposatu duenak ekimenerik metaketa onartzen ez badu. Behin ekimena metatuta, Batzarkide talde egileek euren artean testu transakzionala egin ahalko dute. ([Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko](#))**

**2.-** Mahaiak, Bozeramaileen Batzarraren iritzia entzunda, adieraz dezake ezin direla mozio jakin batzuk izapidetzeko onartu bilkuren aldi berean bideratutako beste mozio bat errepikatzen dutelako.

#### **183. artikulua**

Onetsitako mozioek urteko zenbaki korrelatiboa izango dute eta Araudi honek xedatutako arauekin bat etorriz kontrolatuko da horiek betetzen diren edo ez.

#### **184. artikulua**

Onetsitako mozioak Arabako Lurralde Historikoaren eta Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta, kasua balitz, Batzar Nagusietako lehendakariak berehala horien berri emango dio Foru Aldundiari edo dagokion organo edo entitateari.

### **II. Kapitulua.- Erakunde adierazpenak**

#### **185. artikulua**

Erakunde-adierazpen bat onar dezake Bozeramaileen Batzarrak aho batez, herritarren interes orokorrari edo pertsonen oinarrizko eskubideen defentsari eta babesari eragiten dion gai bati buruz. Batzarkide talde batek edo lehendakariak egingo du horien proposamena. Batzarkide taldeak Batzarretako lehendakariaren aurrean aurkeztu behar du proposamena. Lehendakaria batzarkide talde guztiekin harremanetan jarriko da, eta adostutako proposamena aurkeztuko du Bozeramaileen Batzarraren aurrean. Adierazpen horiek Batzar Nagusietako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

### **III. Kapitulua.- Foru Aldundiaren komunikazioak**

#### **186. artikulua**

Foru Aldundiak egin dituen komunikazioei buruz Batzordean edo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, honako prozedura hau jarraitu beharko da:

- a) Foru Aldundiak Batzar Nagusiei Osoko Bilkuran edo Batzordean eztabaidatzeko bidali dien komunikazioa jaso ondoren, banatu eta baten edo bestearen gai-zerrendan sartuko da.
- b) Komunikazioa eztabaidagai den bileraren hasieran, diputatu nagusiak edo hitz egiteko izendatutako foru diputatuak komunikazio hori azalduko du. Amaitutakoan, Batzar Nagusietako lehendakariak edo, kasua balitz, dagokion batzordeko lehendakariak, erabakiko du bilera gutxienez ordubetez etetea, Batzarkide taldeetako bozeramaileek aho batez aurkakoa erabakitzen ez badute. Ondoren, azalpenak eskatu, galderak egin edo beste oharren bat burutu nahi duten Batzarkide taldeen ordezkariak emango die hitza lehendakariak. Batzarkide talde bakoitzak hogeita minutu izango ditu, eta epe horretan taldeko prokuradore batek edo gehiagok parte har dezake.
- c) Foru Aldundiak adierazitako edozein gai erantzun dezake banaka, batera edo gaiaren arabera taldekatuz.
- d) Batzarkide taldeek erantzun dezakete, egoki irizten diotena adierazteko. Batzarkide taldeak hamar minutu izango ditu horretarako.
- e) Aurreko paragrafoetan aipatutako eztabaida amaituta, hogeita hamar minutuko epea irekiko da eta epe horretan, eztabaidan parte hartu duten Batzar Nagusietako edo, kasua balitz, batzordeko kideek eztabaidatutako gaien inguruko mozioak aurkez ditzakete lehendakaritzaren aurrean.
- f) Gehienez hamar minutu dituzte mozio bakoitzaren alde egiteko. Aldeko txanda bakoitzaren ostean, lehendakariak aurkako txanda emango du, iraupen berekoa.
- g) Mozioak aurkeztu diren hurrenkeraren arabera eztabaidatu eta bozkatuko dira. Transakzionalak badira, erretiratu diren mozioetatik azkena noiz aurkeztu zuten izango da kontuan.
- h) Mozio bat bozkatu eta onetsi ondoren, gainerakoak ere bozkatu ahal izango dituzte, betiere Osoko Bilkuraren edo batzordeko lehendakariaren ustez onartutakoarekin bateragarri badira eta horren aurkakoak ez badira.

#### **IV kapitulua.- Foru diputatuek batzordeetan egiten dituzten informatzeko bilkurak**

##### **187. artikulua**

1.- Foru diputatuek, eurek eskatuta, Batzar Nagusietako Mahaiak erabakitzen duen batzordearen aurrean agerraldia egin dezakete, eskumenekoak dituzten jardueri buruz informatzeko bilkura burutzeko.

2.- Informatzeko bilkura horietara foru diputatuak Foru Aldundiko goi kargudun batzuekin joan daitezke; hasieran foru diputatuak azalpena egingo du. Azalpena amaituta, Batzarkide talderen edo Batzarkidieren bat eskatzen badu, lehendakariak bilkura epe

batez eten dezake, kideek jasotako informazioa azter dezaten. Bilkurarekin berriz hasitakoan, Batzarkide taldeek eta Batzarkideek galderak burutu, argibideak eskatu edo oharrak egin ditzakete. Talde bakoitzak gehienez hamar minutu izango ditu horretarako. Foru diputatuak edo berekin diren goi kargudunek erantzungo dute, banan-banan edo guztiak batera.

## V. Kapituluak.- Agerraldiak

### 188. artikulua

1.- Foru diputatuak batzordeetan agertzeko eska dezakete Batzarkide taldeek, haien Sailen eskumeneko gaiei buruz (alderdi jakin batzuen inguruan edo orokorrean) informa dezaten.

2.- Mahaiak, dagokion Batzorderako eta batzordearen aurrean egin beharreko agerraldi eskaeratzat hartu du, betiere sail horren eskumeneko gai bati buruz orokorrean galdetzen bada.

3.- Gaiaren hasieran, egileak edo bere Batzarkide taldeko kide batek eskaera azalduko du. Ondoren, batzordeak agerraldiari buruz egokia jotzen duena erabakiko du. Agerraldia onartzen bada, diputatu foralak egokia iruditzen zaiona azalduko du. Horretarako ez du 20 minutuko tarte gaitutuko. Azalpena amaitu ondoren, Batzar taldeentzako txanda bat hasiko da, txikienetik handienera; hamar minutu gaitutuko ez duen epea izango dute azalpenak eskatzeko edo oharrak egiteko. Agerraldia burutzen duenak horiei erantzungo die ondoren egingo den eztabaidan. Talde bereko kideek hitz egin dezakete bata bestea ordezkatuta, baina ezingo dute taldeari guztira eman dioten denbora gaitutuko.

4.- Batzarkide taldeek foru diputatu ez diren beste agintari batzuei, funtzionarioei edo zenbait pertsona edo talderi dagokien batzordean agerraldia burutzeko eskaera egin ahal diete. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

5.- Mahaiak idazkia soilik kalifikatuko du eta dagokion batzordera bidaliko du, betiere agerraldiaren zioa Arabako Lurralde Historikoan eragina duten edo Lurraldearekin berehalako lotura zuzena duten gaien ingurukoa bada. Agerraldi-eskera, 56.3 artikulua xedatutakoarekin bat etorriz izapidetuko da. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

6.- *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak kendu du. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

7.- Agerraldia burutu behar duenak agerraldia onartzen duenean, bilkuraren hasieran ekimenaren egileak azalpen txiki bat egin dezake; ondoren agerraldia burutuko duenak hitz egingo du, gehien jota hogeita minutuz; epe hori luzeagoa izan daiteke lehendakariaren ustez salbuespen arrazoiak badaude. Ondoren Batzarkide taldeentzako txanda hasiko da, txikienetik handienera, eta azalpenak eskatzeko edo azaldutakoaren inguruan informazio gehiago eskatzeko soilik hitz egin

dezakete; talde bakoitzak gehien jota hamar minutu izango ditu. Ezingo dute iritzirik eman, taldearen jarrera adierazi edo oharririk egin. Agerraldia burutzen duenak erantzungo du (hamabost minutuz gehien jota) eta horrekin amaituko da eztabaida. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

8.- Agerraldia burutu behar duenak batzordean agertzeko gonbidapenari ezetz esaten badio edo ez badu erantzuten hilabeteko epean, gonbidapena bidaltzen zaionetik, Batzarretako Aldizkarian egoera azaltzeko iragarkia argitaratuko da. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Araua gehitu zaio. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)*

## IX. TITULUA.- BATZAR NAGUSIEN BESTE JARDUERA BATZUK

### I. Kapituluak.- Informatzeko bilkurak

#### 189. artikulua

1.- Pertsona edo talderen batek eragiten dion gai bati buruzko informazioa eman nahi badie Batzar Nagusiei, Mahaiari jakinarazi ahal dio Batzarretan agertu nahi duela. Mahaiak eskaerak kalifikatuko ditu eta, Araudi honetako 61.1 artikulua xedatutako ebazpenetako bat erabakitze aukera izateaz gain, aztertuko du proposatuko gai hori interesgarria den Batzarrek dituzten eskumen eta funtzioen arabera.

2.- Mahaiak erabakitzen badu proposatutako gaiak eragina duela Batzarretako eskumen edo funtzioetan, erabaki dezake, identitatea eta aipatutako taldearen interesen ordezkaritza egiaztatu ondoren, eskatzailea gaia dela-eta dagokion batzordean zuzenean ager dadin.

3.- Eskumena duen batzordeak eskaera landu eta bozketa bidez erabakiko du interesatuaren edo interesatuen entzunaldia onartzea edo ez.

4.- Entzunaldia onartuz gero, batzordea informazio bilkura moduan osatuko da; bilkura batean gai baten inguruan dauden ekimen guztiak metatu ahal dira.

5.- Informatzeko bilkurak ateak itxita egin daitezke, agerraldia burutuko duenak hala eskatzen badu edo bilkura zein organotan egin eta horrek erabakitzen badu.

6.- Informatzeko Bilkuran dauden Batzarkideek agerraldia burutuko dutenei nahi duten informazioa eta argibideak eskatuko dizkiete, baina ezingo dute baloraziorik egin, taldearen jarrera agertu edo oharririk burutu. Denborei eta prozedurari dagokienez, Araudi honek orokorrean xedatutakoa bete beharko da.

7.- Jasotako informazioaren ondorioz Batzarkide taldeek edo Batzarkideek ekimenak aurkeztu ahal dituzte, eta horiek Araudi honetan jasotako prozedura eta bitarteko orokorren arabera izango dira.

## II. Kapituluua.- Ekainaren 30eko 12/1994 Legeak aurreikusitako Ebazpen Batzordean eskumen-arazoak izapidetzea

### 1. atala.- Batzar Nagusiek proposatutako eskumen-arazoak

#### 190. artikulua

1.- Batzarkide taldeek idatziz proposa dezakete Batzar Nagusiek eskumen-arazoa aurkezteko Ebazpen Batzordearen aurrean, Eusko Legebatzarrean izapidetzen ari den lege proiektu edo proposamen zehatz baten aurka.

2.- Hamar egun naturalen barruan aurkeztu behar dituzte idazkiak Batzarkide taldeek, ekimena Eusko Legebatzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunaren biharamunetik edo Batzar Nagusiek jakinarazpena jaso dutenetik. Lege proiektu edo lege proposamenak presako izapideari jarraituko diola erabaki denean, Batzarkide taldeek zazpi egun natural dituzte idazkia aurkezteko.

3.- Ebazpen Batzordearen aurrean eskumen-arazo bat aurkezten duen idazkiak ondo zehaztu behar du Batzarkide taldeak bere ustez lege proiektu edo lege proposamenak zer urraketa ekarri duen eskuduntzetan, eta arrazoitu egin behar du, eta urratu dituen xedapenak aipatu behar ditu.

4.- Artikulu honetako 2. atalean xedatutakoa amaitu eta berehala, Batzar Nagusietako Mahaia bildu egingo da Batzarkide taldeek aurkeztutako idazkia edo idazkiak kalifikatzeko eta, bidezkoa bada, izapidetzeko onartzeko. Mahaiak idazkiak izapidetzeko ez onartzea erabaki dezake, nabarmena bada ez dutela eskumen-arazorik sortzen edo aurreko atalak eskatutako zioen azalpena edo urratutako xedapenen aipamena falta baditu.

5.- Ekitaldi horretan bertan, Mahaiak aipatutako izapidetzeko prozedura finkatuko du: Batzarkide taldeek berriz kontsidera dezaten eskatzeko duten epea, Bozeramaileen Batzarren deialdia eta ekimena lantzeko egutegia egitea. Helburua hurrengo artikulua xedatutako betetzea da.

#### 191. artikulua

1.- Eskumen-arazoa aurkezten duen idazkia Mahaiak izapidetzeko onartu duenean, berehala Osoko Bilkuraren edo Araudi eta Barne Gobernuaren Batzordearen deialdia egingo da, Mahaiaren iritziz, eskumen-arazoaren edo arazoaren inguruan eztabaidatzeko eta erabaki bat hartzeko.

2.- Eskumen-arazoa Ebazpen Batzordeari aurkezteko dagoen epea amaitu baino gutxienez hiru egun lehenago egin behar da arazoaz eztabaidatuko duen Osoko Bilkura eta Araudi eta Barne Gobernurako Batzordea. Epe hori Ebazpen Batzordea arautzen duen legearen 27. artikuluan finkatu da.

3.- Eztabaida honako prozedura honen arabera egingo da:

a) Lehendabizi, eskumen-arazoa aurkeztu nahi duen Batzarkide taldearen

ordezkariak hitz egingo du hamar minutuz. Talde bat baino gehiago direnean eskumen-arazoa aurkeztu nahi dutenak, idazkiak Idazkaritza Nagusiaren erregistroan sartu diren hurrenkeraren arabera hitz egingo dute.

**b)** Jarraian, gainerako Batzarkide taldeek hitz egingo dute, bakoitzak hamar minutuz, duten jarrera azaltzeko.

**c)** Lehenengo txanda hori amaitutakoan, erantzuteko bost minutuko tartea izango du Batzarkide talde bakoitzak, hitzaldien hurrenkera berean. Horrela, lehendakariak eztabaida amaitutzat eman, eta bozkatu egingo dute. Bozketa, Araudi eta Barne Gobernurako Batzordean burutzen bada, boto haztatu bidezko sistemaren arabera egingo da.

**4.-** Eskumen-arazoa aurkezteko proposamen guztiak bozkatuko dituzte, aurkeztu diren hurrenkera berean, salbuespen hauekin: lehendik onartutako batekin kontraesana izatea, edo lehendik onartutako baten barruan sartzea.

## **192. artikulua**

**1.-** Ebazpen Batzordean proposatutako eskumen-arazoak direla-eta, Arabako Batzar Nagusiek atzera egin dezakete.

Horretarako, Osoko Bilkurak edo Araudi eta Barne Gobernurako Batzordeak aintzat hartu duen arazoa proposatu zuen Batzarkide taldeak edo taldeek, edo Batzar nagusien eskubidezko kideen herenek, edo gehiengo hori ordezkatzeko duten Batzarkide taldeek idazkia aurkez dezakete eskumen-arazoan atzera egiteko eskatzeko. Batzar Nagusietako Mahaiak idazki hori kalifikatu eta izapidetzeko onartu ondoren, Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sartuko da. Aurreko paragrafoan aurreikusitako prozeduraren arabera eztabaidatuko dute. Eztabaida amaituta, Batzar Nagusiek bere egunen aurkeztu zuten eskumen-arazoan atzera egiten duten edo ez bozkatuko da.

**2.-** Atzera egiteko eskaerako idazkiak aurkeztu duten Batzarkideek edo Batzarkide taldeek, idazki horiek ez badira onartu, ezingo dute gai horren inguruan beste bat izenpetu edo aurkeztu.

## ***2. atala.- Foru arau edo proposamenen aurrean aurkeztutako eskumen-arazoak***

### **193. artikulua**

**1.-** Eusko Legebatzarrak eta Eusko Jaurlaritzak eskumen-arazoa jar dezakete Arabako Foru Aldundiak bidaltzen dituen foru araua proiektuen eta Osoko Bilkurak aintzat hartzen dituen foru arau proposamenen aurrean.

**2.-** Arabako Batzar Nagusiek Eusko Legebatzarrari eta Eusko Jaurlaritzari Mahaiak izapidetzeko onartu dituen proiektu guztien eta Osoko Bilkurak aintzat hartu dituen foru arau proposamen guztien berri emango diete, Ebazpen Batzordea arautzen duen 13/1994 Legearen, ekainaren 30ekoaren, 47. eta 48. artikuluetan xedatutakoa betetzearren, betiere dagokion aldizkari ofizialean ekimen osoa argitaratu ez bada.

**194. artikulua**

1.- Foru-arauaren proiektu edo proposamen baten aurka eskumen-arazoa aurkeztu duenak Batzar Nagusietako Mahaiari horren berri ematen dienean, Mahaiak arazuko izapideak berehala eteteko aginduko du, Ebazpen Batzordea arautzen duen 13/1994 Legearen, ekainaren 30eakoaren, 52. artikulua aurreikusitako kasuetan izan ezik.

2.- Aipatutako legearen 36.2. artikulua betetzearren, foru arau proposamenaren izapideak eteteaz gain, arazoa jarri izanari buruzko idazkia bidaliko da proposamena egin duen Batzar Nagusietako batzordera, honek ondoko erabakia hartzeko aukera izan dezan: Osoko Bilkurari proposatzea aurkakotasuna jaso duen asmoa konpontzea proposamena artxibatuz.

3.- Bost eguneko epean, eskumen-arazoa izapidetzeko onartu dutela dioen jakinarazpena egiten denetik, Batzar Nagusietako Mahaiak, bere ekimenez, etena bertan behera uzteko eska diezaioke Ebazpen Batzordeari; horixe egingo du Batzarretako gehiengo ordezkatzen duten Batzarkide taldeek eskatzen badiote edo Bozeramaileen Batzarrak erabaki hori hartzen badu.

4.- Honako kasu hauetan berriro ekingo zaio prozedurari, eteteko agindu zen unean utzi zen tokitik:

- a) Ebazpen Batzordeak eskumen-arazoa izapidetzeko ezin dela onartu dioenean.
- b) Ebazpen Batzordeak ekimena izapidetzeko etendura bertan behera uzten duenean.
- c) Ekimena ordenamendu juridikoarekin bat datorrela aitortzen denean.
- d) Eskumen-arazoa aurkeztu zuenak atzera egiten duenean.

5.- Ebazpen Batzordeak etendura zati batean utz dezake bertan behera, eta proiektu edo proposamenaren zati bati dagokionez eten dezake izapidea, horrela ekimenak ulermen-batasuna eta kongruentzia ez dituela galtzen uste badu. Orduan, Batzar Nagusietako Mahaiak, Bozeramaileen Batzarrari entzunda, erabaki behar du zer den komenigarriena.

**195. artikulua**

1.- Ebazpen Batzordeak dioenean foru arau proiektuaren bat Autonomia Estatutuaren aurka edo Erkidego osorako erakundeen eta foru erakundeen eskumenak banatzen dituzten legeen aurka doala, Batzar Nagusietako Mahaiak izapidetzeko etendurarekin jarraituko du harik eta Foru Aldundiak horri buruzko erabakia jakinarazi arte.

2.- Ebazpen Batzordeak dioenean foru arau proposamen bat Autonomia Estatutuaren aurka edo Erkidego osorako erakundeen eta foru erakundeen eskumenak banatzen dituzten legeen aurka doala, Batzar Nagusietako Mahaiak Batzarrei erabakiaren berri emango die hurrengo osoko bilkuran.

3.- Erabakia Ganberari jakinarazitakoan, ekimena bertan behera geratu dela ulertuko da,



salbuespen honekin: Ebazpen Batzordeak Autonomia Estatutuaren edo erkidegoko erakundeen eta foru erakundeen eskumenak banatzen dituzten legeen aurkakotzat jo ez dituen zatiei dagokienez, Osoko Bilkurak uste badu jarraitzea posible dela eta komeni dela.

**4.-** Hori erabakitzeko, lehendakariak Batzarkide taldeei galdetuko die inork jarraitu nahi duen Estatutuaren edo erkidegoko erakundeen eta foru erakundeen eskumenak banatzen dituzten legeen aurkakotzat jo ez den foru-arauaren proposamenaren zatia izapidetzen. Batzarkide talderen batek jarraitu nahi badu, Osoko Bilkurak erabakiko du hala egin edo ez. Foru arau proposamena izapidetzea erabakiz gero, Mahaiak orraztutako testua berriz argitaratzeko aginduko du eta artikuluei buruzko zuzenketak aurkezteko epea zabalduko du, hala badagokio. Mahaiak ez ditu izapidetzeko onartuko Autonomia Estatutuaren edo erkidegoko erakundeen eta foru erakundeen eskumenak banatzen dituzten legeen aurkakotzat jo diren alderdiak berriro sartu nahi dituzten zuzenketak.

### **196. artikulua**

Foru arau proiektu edo proposamen baten inguruan batzordean onetsitako irizmenik badago, eta Erabakitzen bada foru arau proiektua edo proposamena Autonomia Estatutuaren edo Erkidego osorako erakundeen eta foru-erakundeen eskumenak banatzen dituzten legeen aurkakoa dela, gaia Osoko Bilkuran bozkatuko da eta erabakiaren berri emango du Osoko Bilkurak. Osoko Bilkurak honako aukeratako bat hartuko du:

- a) Irizpena bertan behera utzi eta artxibatzea.
- b) Irizpena berriz batzordera bidaltzea, posible badu, irizmen hori erabakira egoki dezan eta Osoko Bilkuran bozka dezaten.

### **197. artikulua**

**1.-** Kapitulu honetako artikuluetan aipatzen diren epeak, egun naturaletan zenbateko dira. Bilkuren aldien arteko epeetan, Batzarren oporraldietan edo agintaldien artean, epea betetzeko beharrezkoa diren arauzko bitartekoak jarriko dira abian.

**2.-** Batzar Nagusietako mahaiak, Ebazpen Batzordea arautzen duen 13/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, aplikatzearen ondorioz sortzen diren jazoerak izapidetzeko prozedurak finkatzeko eskumena izango du.

## **III. Kapituluak.– Batzar Nagusiek pertsonak izendatzea**

### **198. artikulua**

**1.-** Arau baten arabera Batzar Nagusiei dagokienean inor proposatzea edo aukeratzea, Batzarkide taldeek hautagai-zerrendak aurkez ditzakete. Zerrenda osatzen dutenek kasu bakoitzean aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte.



2.- Batzarkide taldeek Idazkaritza Nagusiaren erregistroan aurkeztu behar dituzte hautagai-zerrendak, gutxienez aukeraketa egiteko Osoko Bilkura egin baino bost egun lehenago.

3.- Eztabaida osoko bilkuran egingo da, behintzat Mahaiak ez badu esaten, Bozera maileen Batzarraren iritzia entzun ondoren, Araudi eta Barne Gobernurako Batzordearen eskumena dela. Eztabaidan, Batzarkide talde bakoitzak gehienez bost minutuz hitz egin dezake.

4.- Hautatze-sistema kasu bakoitzean dagokion arauak ezarriko du. Arauketa berezirik ez dagoenean, Mahaiari dagokio hautatzeko formula erabakitzea, Bozera maileen Batzarraren iritzia ezagutu ondoren.

5.- Berdinketa egonez gero, kopuruz handiena duen taldeak proposatutako hautagaiak irabaziko du, edo, berdinketak jarraitzen badu, Batzar Nagusietarako hauteskundeetan boto gehien lortu dituen indar politikoak proposatutakoak.

#### IV. Kapituluak.- Epaitegien aurreko prozedurak

##### 199. artikulua

1.- Batzar Nagusietako Mahaiak, Bozera maileen Batzarrarekin ados edo, kasua balitz, Batzorde Iraunkorarekin ados, dagozkion Epaitegi eta Auzitegietan lege-ekintzak burutu ditzake.

2.- Baldintza bera eskatuko da ekintzak bertan behera uzteko.

##### 200. artikulua

1.- Errekurtsoaren xedea foru arau bat edo foru arauaren indarra duen xedapen bat denean, Batzar Nagusietako Mahaiak erabakiko du prozeduran bertaratzea eta alegazioak aurkeztea eta Bozera maileen Batzarraren iritzia entzungo du.

2.- Batzar Nagusien beste motatako erabakiak aurkaratuz gero, Mahaiak erabakiko du bertaratzea eta alegazioak aurkeztea.

#### V. Kapituluak.- Batzar Nagusien harremana Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekin

##### 201. artikulua

1.- Herri Kontuen Euskal Epaitegiak urteko lan-programa ezagutarazten dienean Batzar Nagusiei, Mahaiak jakinarazpen hori Batzarkide taldeei helaraziko die, Batzarkide taldeek adieraz dezaten lehentasunak ote dauden Epaitegiak duen fiskalizazio-lanean.

2.- Horretarako, Batzarkide taldeek proposamenak aurkez ditzakete Batzar Nagusietako Mahaiaren aurrean. Proposamenak Ogasun, Finantza eta Aurrekontu alorrean eskumena duen batzordean izapidetuko dira. Batzorde horrek erabakiko du zein bidali behar zaizkion fiskalizazio-organo horri.

## VI. Kapitulumua.- Arabako Foru Aldundiak proposatutako eskumen-arazoak izapidetzea

### 202. artikulua

Diputatuen Kontseiluak eskumen-arazoaren inguruan hartu duen erabakia Batzar Nagusiei jakinarazi ostean, Mahaiak hori kalifikatuko du eta Batzarkide guztiei gaiaren inguruko aurrerakin guztiak bidaltzeko aginduko du, haiek ezagutu ditzaten; gainera, aurkaratutako eskumenaren xede den prozeduraren tramitazioa bertan behera uzteko aginduko du, harik eta Osoko Bilkurak gaia ebatzi bitartean.

### 203. artikulua

**Mahaiak, proposatutako gatazkari buruzko erabaki-proposamena egingo du. Batzarkideei ere bidaliko die erabaki-proposamen hori. Horretarako, ezingo du 20 egun naturaleko epea gainditu, Batzar Nagusiei Diputatuen Kontseiluak eskumen-gatazkaren inguruan hartu duen erabakiaren berri ematen zaienetik. *(Uztailaren 21eko 28/2014 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 89 zk., 2014 abuztuaren 8ko)***

### 204. artikulua

Aurreko bi artikuluetan aipatutako dokumentazio guztia bidali ondoren, gaia Batzarretako Osoko Bilkuran lantzeko moduan izango da, Araudiaren 73. artikulua xedatutakoarekin bat etorritz.

### 205. artikulua

Osoko bilkuran gaia eztabaidatzen hasteko, diputatu nagusiak hitz egingo du eta egokitzen jotzen duena azalduko du gatazkaren xede den gaia Foru Aldundiaren eskumenekoa dela aldezteko.

### 206. artikulua

1.- Diputatu nagusiak amaitzen duenean, Batzarkide taldeetako ordezkariak hartuko dute hitza, kide gutxien duenetik gehien duenera; Misto Taldeak hasiko du. Batzarkide taldeek, hamabost minutuz, proposatu den eskumen-arazoaren aurrean zer iritzi duten azalduko dute.

2.- Diputatu nagusiak aurreko hitzaldiei erantzuteko aukera du eta berriz taldeentzako txanda hasiko da; hitz egitea eskatu duten Batzarkide taldeek bost minutu izango dituzte euren iritzia zehazteko.

### 207. artikulua

1.- Eztabaida amaituta, 203. artikulua aipatutako akordio-proposamena bozkatuko

dute.

2.- Onartzen badute, Osoko Bilkuraren Akordio arrazoitu bihurtuko da eta Foru Aldundiari eta Batzarkide taldeei horren berri emango diote. Erabakia berehala izango da egikaritzeko modukoa.

### **208. artikulua**

Batzar Nagusiek ez badute onartzen Mahaiaren Akordio-proposamena, Arabako Foru Aldundiari eskumena ematekoa, ondoriorik gabe geldituko dira eskumen hori urratu dituzten xedapen edo erabakiak eta, edozein kasutan, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 61. artikulua 3. atalak xedatutakoa bete beharko da. Batzarkide taldeei eta Foru Aldundiari erabaki horren berri emango zaie.

**IZAERA OROKORREKO EBAZPENA****2016KO MARTXOAREN 1EKO PRESIDENTZIAREN EBAZPENA ZENBAIT MOZIO BATZORDEAN TRAMITATZEARI BURUZ**

Batzar Nagusietako Araudi berriak, apirilaren 22ko 17/2013 Foru Arauak onetsi zuenak, bere 185. artikuluan arautzen ditu "erakunde adierazpenak" izenekoak. Adierazpenok aho batez onetsi daitezke, herritarren interes orokorrari edo pertsonen oinarritzko eskubideen defentsari eta babesari eragiten dion gai bati buruz. Hori bazterturik, Ganberaren gehiengoak baiezkota eman beharko luke onesteko, eta eztabaida mozioen bidez egingo litzateke, hau da, Araudiaren 179.1 b) artikulua arabera, hala badagokio, "gai jakin bati buruzko" gogoeta eta adostasuna sustatuko duten mozioak.

Araudiaren bi agindu horiek uztartuta, ohikoa izaten da batzarkide-taldeek foru-eskumenetik kanpo –edo are estatuaren esparrutik kanpo ere– dauden gaiei buruzko ekimenak aurkeztea, eta ekimen horiek mozio gisa eztabaidatzea Ganberak horren inguruko iritzia eman dezan.

Agintaldi honen hasieran, eta ohiko batzordeak ezarri zirelarik, Mahaiak hala erabakita eta 2015eko irailaren 8ko Bozaramaileen Batzarraren iritzia entzunda, lehenengo aldiz esleitu zitzaion I. Batzordeari "giza eskubideen, berdintasunaren, interkulturalitatearen eta garapenerako lankidetzaren" arloko eskumena. Hori dela eta, komenigarria da batzorde horren esku uztea estatuko edo nazioarteko politikako kontuei buruzko mozioen bidez mahai gainean jarritako gaiak, giza eskubideen ingurukoak direnean eta foru-eskumenekin edo Arabako Lurralde Historikoarekin zerikusirik ez dutenean, hau da, beste esparru batzuetakoak direnean.

Batzar Nagusietako Funtzionamendu Araudiak Mahaiari eskumena ematen dio erabakitzeke mozioak Osoko Bilkuran ala batzordeetan tramitatzen diren (179.2 artikulua), eta mozioak azken horiei bidaltzeko bereizketa-irizpidetzat jotzen du azken parafoetan adierazitakoa.

Araudiaren 45.4 artikulua ondorengoa ezartzen du: "*Araudia interpretatu eta osatzeko zereginetan lehendakariak ebazpen orokor bat emateko asmoa baldin badauka, Mahaia eta Bozaramaileen Batzarra alde agertu beharko dira lehenago. Erabaki horiek aldizkari ofizialean argitaratu*

**RESOLUCIÓN DE CARÁCTER GENERAL****RESOLUCIÓN DE LA PRESIDENCIA DE 1 DE MARZO DE 2016 EN RELACIÓN CON LA TRAMITACIÓN DE DETERMINADAS MOCIONES EN COMISIÓN**

El nuevo Reglamento de las Juntas Generales, aprobado por la Norma Foral 17/2013, de 22 de abril, regula en su artículo 185 las denominadas "declaraciones institucionales" que se refieren a materias que afectan de forma general a los intereses de la ciudadanía y a la protección de los derechos fundamentales de las personas que puedan aprobarse por unanimidad. Descartada ésta, se haría necesario un pronunciamiento mayoritario de la cámara para su aprobación, y su debate sería a través de mociones que, conforme el artículo 179.1 b) del Reglamento, deben propiciar la deliberación y acuerdo, en su caso, "sobre un determinado asunto".

Vinculando ambos preceptos del Reglamento no es infrecuente la presentación por parte de los grupos junteros de iniciativas que, sin tener una vinculación con el elenco de competencias forales, e incluso versando sobre cuestiones relativas a problemas que superan incluso el ámbito estatal, se debatan como mociones para obtener un pronunciamiento de la cámara sobre el asunto.

Al inicio del presente mandato, y en el establecimiento de las comisiones ordinarias, por Acuerdo de la Mesa y oída la Junta de Portavoces del día 8 de septiembre de 2015, por primera vez se atribuyó a la Comisión I la competencia en materia de "derechos humanos, igualdad, interculturalidad y cooperación al desarrollo". Por ello, resulta conveniente residenciar en esta comisión aquellas materias planteadas para debate por medio de mociones que versen sobre cuestiones de política estatal o internacional que, afectando a los derechos humanos, no tengan una vinculación directa con las competencias forales o con el Territorio Histórico de Álava, sino que trasciendan a otros ámbitos.

El Reglamento de funcionamiento de las Juntas Generales faculta a la Mesa a decidir la tramitación de las mociones ante el Pleno o las comisiones (art. 179.2), entendiéndose como criterio de especialidad para remitir las mociones a éstos últimos, el expresado en los anteriores párrafos.

El artículo 45.4 del Reglamento establece que "cuando en el ejercicio de las funciones interpretativa y supletoria la Presidencia se *propusiera dictar una resolución de carácter general, deberá mediar el parecer favorable de la Mesa y de la Junta de Portavoces. Estas resoluciones serán publicadas en el*

*behar dira eta indarrean egongo dira harik eta beste ebazpen batek indargabetu arte edo Araudia eraberritzerakoan Araudian jaso arte”.*

Esandako guztiagatik, Mahaiari proposatzen zaio IZAERA OROKORREKO EBAZPEN hau onestea:

ARTIKULU BAKARRA: Batzar Nagusietako Mahaiak Lehendakaritza, Berdintasun eta Giza Eskubideen I. Batzordeari bidaliko dizkio, eztabaidatzeko eta bozkatzeko, giza eskubideen eta estatuko eta nazioarteko politikaren inguruko gaiei buruzkoak diren eta foru-eskumenekin edo Arabako Lurralde Historikoarekin zuzeneko zerikusirik ez duten mozioak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 1a  
Presidentea, Pedro Ignacio Elósegui González de Gamarra

*Boletín Oficial y mantendrán su vigencia mientras no sean derogadas por otras o sean incorporadas al Reglamento mediante su reforma.”*

Por todo lo expuesto, se propone a la Mesa la aprobación de la siguiente RESOLUCIÓN DE CARÁCTER GENERAL:

ARTÍCULO ÚNICO: La Mesa de las Juntas Generales remitirá, para su debate y votación, a la Comisión I, de Presidencia, Igualdad y Derechos Humanos, las mociones que tengan como objeto cuestiones que, afectando a los derechos humanos y a situaciones de política estatal o internacional, no tengan una vinculación directa con las competencias forales o con el Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, 1 de marzo de 2016  
El presidente, Pedro Ignacio Elósegui González de Gamarra

**PRESIDENTZIAREN EBAZPENA****PRESIDENTZIAREN IZAERA OROKORREKO EBAZPENA, ARAUDIAREN 185. ARTIKULUA ARABAKO BATZAR NAGUSIEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALEI DAGOKIENEZ**

Batzarretako Funtzionamendu Araudiaren 185. artikulua ondorengo ezaizten du:

*“Erakunde-adierazpen bat onar dezake Bozeramaileen Batzarrak aho batez, herritarren interes orokorrari edo pertsonen oinarritzko eskubideen defentsari eta babesari eragiten dion gai bati buruz. Biltzarkide talde batek edo lehendakariak egingo du horien proposamena. Biltzarkide taldeak Biltzarretako lehendakariaren aurrean aurkeztu behar du proposamena. Lehendakaria batzarkide talde guztiarekin harremanetan jarriko da, eta adostutako proposamena aurkeztuko du Bozeramaileen Batzarraren aurrean. Adierazpen horiek Biltzar Nagusietako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira”.*

Kontuan hartuta azkenaldian adierazpen-proposamen eta testu alternatibo ugari aurkeztu izan dela eta horrek Bozeramaileen Batzarrean eragiten duen eztabaida, beharrezkoa da Presidentziaren izaera orokorreko ebazpen hau ematea.

Horregatik, Araudiaren 45.4 artikulua araberan, Presidentziak, Mahairen adostasunarekin eta Bozeramaileen Batzarraren aldeko iritziarekin, ondorengo izaera orokorreko ebazpena hartu du:

**Lehena.-** Astearteetako Bozeramaileen Batzarrean onetsi beharreko adierazpen instituzionalak Presidentziari bidaliko zaizkio aurreko ostiralean 10:00 baino lehen. Horretarako posta elektronikoko helbide bat jarriko da eskura: adierazpenak@jjgalava.eus Helbide horretan jasotakoak baino ez dira aintzat hartuko.

**Bigarrena.-** Behin adierazitako epea bukatuta, Presidentziak egin beharreko elkarrizketak eta gestioak burutuko ditu batzarkide taldeetako bozeramaileekin testu adostu bat egitearren. Testu adostua lortuz gero, Bozeramaileen Batzarraren gai-zerrendan sartuko da.

**RESOLUCIÓN DE LA PRESIDENCIA****RESOLUCIÓN DE CARÁCTER GENERAL DE LA PRESIDENCIA EN DESARROLLO DEL ARTÍCULO 185 DEL REGLAMENTO EN RELACIÓN A LAS DECLARACIONES INSTITUCIONALES DE LAS JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA**

El artículo 185 del Reglamento de funcionamiento de las Juntas establece:

*“Cuando se trate de materias con afectación general a los intereses de la ciudadanía, o a la defensa y protección de los derechos fundamentales de las personas, la Junta de Portavoces podrá aprobar por unanimidad declaraciones institucionales a propuesta de un grupo juntero o de la presidencia. La propuesta formulada por un grupo juntero será presentada ante la presidencia de la Cámara quien, tras contactar con todos los grupos, presentará una propuesta consensuada ante la Junta de Portavoces. Estas declaraciones se publicarán en el Boletín Oficial de las Juntas Generales”.*

Las numerosas propuestas de declaración y textos alternativos que se vienen últimamente presentando y el debate que se suscita en las sesiones de la Junta de Portavoces, hacen necesaria la adopción de esta resolución de carácter general de la Presidencia.

Por ello, al amparo de lo establecido en el artículo 45.4 del Reglamento, la Presidencia, de acuerdo con la Mesa y con el criterio favorable de la Junta de Portavoces, adopta la siguiente Resolución de Carácter General:

**Primero.-** Las declaraciones institucionales que quieran someterse a aprobación de la Junta de Portavoces de los martes, serán enviadas a la Presidencia antes de las 10 horas del viernes inmediatamente anterior. A tal efecto se dispondrá de una dirección de correo electrónico adierazpenak@jjgalava.eus. Únicamente se tendrán en consideración las recibidas en dicha dirección.

**Segundo.-** Una vez finalizado el plazo señalado, desde la Presidencia se iniciarán las conversaciones y gestiones oportunas con las y los portavoces de los grupos junteros para elaborar un texto consensuado. Si se consigue un texto consensuado, se incluirá en el orden del día de la sesión de la Junta de Portavoces.

Gai honela jorratuko da Bozeramaileen Batzarrean:

- Lehenengo eta behin, Presidentziak egindako gestioen berri emango du labur, eta jarraian bozeramaileen 5 minutuko txanda izango dute gai-zerrendan sartutako proposamen adostuaz beren jarrera azaltzeko.

- Ez da aldaketarik onartuko Presidentziak egindako proposamenean, salbu eta forma-zuzenketa hutsak. Edozein aldaketa batzarkide talde guztien sinadura eta babesarekin aurkeztu beharko da.

-Jarraian, adostutako proposamena bozkatuko da, eta onesteko beharrezkoa izango da bertan daudenez aho batez alde agertzea. Onetsitako adierazpena Arabako Batzar Nagusien aldizkarian argitara emango da eta, hala erabakiz gero, dagokion osoko bilkuran irakurriko da eta web instituzionalean argitaratu.

**Hirugarrena.** Presako izaeraz onetsi nahi diren adierazpen instituzionalak, Bozeramaileen Batzarrean ebazpen honen 1. atalean adierazitako epea iraungita eta bilkuraren aurretik jazotako inguruabar edo gertakarien ondorioz osoko bilkuran irakurtzeko, Araudiaren 48. eta 49. artikuluen arabera izapidetuko dira: Bozeramaileen Batzarra deituko da Presidentziak edo bi batzarkide taldek hala proposatuta, edozein bitarteko erabiliz jasota geratu dadin. Posible bada, deialdiarekin proposatutako testua bidaliko da. Ezinezkoa bada hala egitea, osoko bilkuraren aurretik egingo den Batzarrean beraren bilkuran emango da. Bilkuraren xede bakarria izango da bidalitako edo emandako testua eztabaidatzea eta, hala badagokio, bertan daudenek aho batez onestea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 13  
Presidentea, Pedro Ignacio Elósegui González de Gamarra

La sustanciación del asunto durante la sesión de la Junta de Portavoces será la siguiente:

- En primer lugar desde la Presidencia se dará cuenta brevemente de las gestiones realizadas, y a continuación las y los portavoces dispondrán de un turno de 5 minutos para posicionarse sobre la propuesta consensuada incluida en el orden del día.

- No se admitirán modificaciones a la propuesta de la Presidencia, salvo correcciones estrictamente formales. Cualquiera otra modificación deberá presentarse con la firma y apoyo de todos los grupos junteros.

-Seguidamente, se procederá a la votación de la propuesta consensuada, que requerirá la unanimidad de los y las presentes para ser aprobada. La declaración aprobada se publicará en el Boletín de las Juntas Generales de Álava y, si así se decide, será leída en la sesión plenaria correspondiente y publicada en la web institucional.

**Tercero.** Las declaraciones institucionales que se pretendan adoptar con carácter urgente para su lectura en el Pleno por circunstancias que hayan surgido o sucesos que se hayan producido con posterioridad al fin del plazo señalado en el apartado 1º de esta Resolución y antes del Pleno, se tramitarán de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 48 y 49 del Reglamento: se convocará la Junta de Portavoces a propuesta de la Presidencia o de dos grupos junteros por cualquier medio del que quede constancia de su recepción. Si es posible, con la convocatoria se enviará el texto que se proponga. Si no existe esa posibilidad, se entregará en la propia reunión de la Junta, que se celebrará antes de la sesión plenaria. La sesión únicamente tendrá por objeto debatir el texto enviado o entregado y, en su caso, aprobarlo con la unanimidad de los y las presentes.

Vitoria-Gasteiz, 13 de diciembre de 2016  
El presidente, Pedro Ignacio Elósegui González de Gamarra

## IZAERA OROKORREKO EBAZPENA

**IZAERA OROKORREKO EBAZPENA, FORU DIPUTATUAK EDO ARABAKO FORU ALDUNDIKO GOI KARGUAK EZ DIREN PERTSONEK BATZORDEETAN EGIN BEHARREKO AGERRALDIEI BURUZ, ETA HAIEN BISITEI BURUZ**

### HITZAURREA

Arabako Batzar Nagusietako Funtzionamendu Araudia aldatzeari buruzko irailaren 14ko 13/2018 Foru Araua onestearen ondorioz, eta zehazki 56.3 artikularen idazkera berriaren ondorioz, aldatu beharra dago foru diputatuak edo Arabako Foru Aldundiko goi karguak ez diren pertsonen batzordeetan egin beharreko agerraldiei buruzko 2017ko apirilaren 11ko izaera orokorreko ebazpena. Halaber, komenigarritzat jotzen da ebazpen horretan ezarritako prozeduraren operatibitate praktikoa hobetzeko, hobekuntzak egitea beste alderdi batzuetan ere; hala nola, Ganberako organoetarako bisitak edo agerraldia eskatzen duen batzarkide-taldeak harremanetarako daturik ematen ez duenetan hutsa zuzentzeko epea.

Horregatik guztiagatik, Ganberako Presidenteari dagokion eskumen interpretatzaile eta osagarria baliatuz, Araudiaren 45.4 artikuluan ezarritakoaren arabera eta Mahaiaren adostasunarekin, Bozeramaileen Batzarrari helarazten dio ondorengo IZAERA OROKORREKO EBAZPENA.

#### A) AGERRALDIAK

1.- 188. artikularen 4. atalean jasotako agerraldiak, erreferentzia duen Araudiaren 56.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, soilik egingo dira jorratzen den gaian adituak diren edo interesa duten gizarte taldeen ordezkari diren pertsonen batzordeari informazioa emateko.

2.- Batzarkide-talde batek proposatzen badu agerraldia, Mahaiari igorri beharreko eskaera-idazkian ondorengoak adierazi beharko dira:

## RESOLUCIÓN DE CARÁCTER GENERAL

**RESOLUCIÓN DE CARÁCTER GENERAL DE LA PRESIDENCIA EN RELACIÓN CON LAS COMPARECENCIAS DE PERSONAS QUE NO SEAN DIPUTADOS O DIPUTADAS FORALES O ALTOS CARGOS DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA ANTE LAS COMISIONES Y SOBRE LAS VISITAS DE ÉSTAS**

### PREAMBULO

La aprobación de la Norma Foral 13/2018, de 14 de septiembre, de modificación del Reglamento de Funcionamiento de las Juntas Generales de Álava y, en concreto, la nueva redacción del artículo 56.3, hace necesaria una modificación del procedimiento regulado en la Resolución de carácter general de 11 de abril de 2017 en relación con las comparecencias de personas que no sean diputados o diputadas forales. Asimismo, se considera conveniente para mejorar la operatividad práctica del procedimiento establecido en dicha resolución, introducir mejoras en otros aspectos, como alguno referente a las visitas de los órganos de la Cámara o el establecimiento de un plazo de subsanación para el supuesto de que el grupo juntero solicitante de la comparecencia no aporte un dato de contacto.

Por ello, en uso de la facultad interpretativa y supletoria que corresponde al Presidente de la Cámara, de conformidad con lo establecido en el artículo 45.4 del Reglamento, y de conformidad con la Mesa, eleva a la Junta de Portavoces la siguiente RESOLUCIÓN DE CARÁCTER GENERAL

#### A) COMPARECENCIAS

1.- Las comparecencias contempladas en el apartado 4 del artículo 188, conforme a lo dispuesto en el artículo 56.3 del Reglamento, al cual aquel se remite, lo serán a los solos efectos de ofrecer información y asesoramiento a la Comisión por personas expertas o representativas de los grupos sociales interesados en el asunto del que se trate.

2.- Si la comparecencia se propone por un Grupo Juntero en el escrito de solicitud que se dirija a la Mesa deberá hacerse constar los siguientes extremos:



- Agerraldia egingo duten pertsonen izenak edo agertzeko eskatzen den entitateen izendapen sozialak (elkartea, fundazioa edo nortasun juridikoa duen bestelako entitatea), bai eta batzordean agerraldi egingo duten ordezkariena. Batzarkide-taldeek ezingo balute zehaztu zein pertsonak egingo duten agerraldia, eskaera ahalik eta zehatzena izango da.

- Nortasun juridikorik gabeko kolektiboak badira, beren izendapen espezifikoak darabilten pertsonen izen-deiturak.

- Edonola ere, idazkietan adieraziko da harremanetarako pertsonaren telefonoa edo/eta posta elektronikoko edo ohiko postako helbidea, Idazkaritza Nagusiak agerraldia egiteko gonbidapena eta deialdi ofiziala egin ahal izateko. Harremanetarako datuak aurkezten den ekimenari erantsitako dokumentu batean adierazi beharko dira, ekimena digitalizatu eta argitara emateko orduan ez dadin izaera pertsonaleko daturik zabaldu.

3.- Ez bada adierazten gonbidapena egiteko harremanetarako daturik, Mahaiak batzarkide-taldeari edo taldeei 10 eguneko epea emango die eskaera zuzentzeko- Bete ezean, espediente artxibatuko da.

4.- Agerraldia bilkura informatiboan bada eta partikularren eskariz, Araudiaren 189. artikuluan jaso bezala, aurreko atalean ezarritako betekizun berberak bete beharko dira, eta gainera egiaztatu beharko dira ordezkatzeko dituen interes kolektiboak eta zergatik nahi duen agerraldia egin.

5.- Batzarkide-taldeek zehaztu badute zein diren agerraldia egingo duten pertsonak, Mahaiak eskaera kalifikatu eta izapidetuko du eta sartuko da Bozeramaileen Batzarrak Mahaiaren bilkuraren egunean edo hurrengoan egiten duen bileraren gai-zerrendan, bere iritzia azaldu dezan agerraldia egiteaz eta xede xehatzasunez adierazi dezan. Agerraldia egitea ebatziko balitz, gonbidapena luzatuko zaio eskatutako pertsonari edo pertsonari eta jakinaraziko zaio batzordeburuari gaia eskuragarri dela.

6.- Behin agerraldi-eskaerak erregistratuta, batzarkide-taldeek ez badute zehaztu zein izango diren agerraldia egingo duten pertsonak, Batzar nagusietako Komunikazio eta Protokolo Zerbitzuak egin beharreko gestioak burutuko ditu dagokion entitate edo kolektiboarekin pertsona horien nortasuna zehaztearren. Mahaiak eskaera kalifikatu eta izapidetzeko onetsiko du, eta oposizio-aldia irekiko du batzarkide-taldeentzat, baita ere agerraldia egin behar duten pertsonen nortasuna zehaztu ez bada; dena dela, datu hori agerraldia egin baino 48 ordu lehenago jakin beharko da eta batzarkide-taldeer jakinaraziko zaie. Datu horren berri izan ezean, gaia hurrengo batzorderako atzeratuko da, bi aldiz.

7.- Pertsonak edo kolektiboak bilkura informatiboan agerraldia egiteko eskari bat balego eta, ondoren, batzarkide-talde batek haien agerraldia eskatuko balu, soilik erabakiko da bateratzea

- Nombres de las personas o denominaciones sociales de las entidades cuya comparecencia se solicita (Asociación, fundación u otra entidad con personalidad jurídica), así como el de sus representantes que vayan a comparecer ante la Comisión. En el supuesto de que los grupos junteros no puedan determinar qué personas van a comparecer, la petición será lo más concreta posible.

- Cuando sean colectivos que carezcan de personalidad jurídica, el nombre y apellidos de quienes utilicen la denominación específica de aquellos.

- En todo caso, se hará constar en los escritos un teléfono y/o dirección de correo electrónico o postal de la persona de contacto para que la Secretaría General pueda cursar la invitación a comparecer y la convocatoria oficial. Los datos de contacto deberán hacerse constar en documento adjunto a la iniciativa que se presente para evitar la difusión de aquellos que fueran de carácter personal al digitalizar y publicar la misma.

3.- En el caso de que no se haga constar un dato de contacto para cursar la invitación a comparecer, la Mesa concederá al grupo/s juntero/s un plazo de 10 días para subsanar la solicitud. En caso de no cumplimentarse, se archivará el expediente.

4.- Si la comparecencia es a petición de particulares en sesión informativa, contemplada en el artículo 189 del Reglamento, deberán cumplimentarse los mismos requisitos que en el apartado anterior, además de acreditar los intereses colectivos que representa y por lo que desea comparecer.

5.- Si los grupos junteros han determinado las personas concretas que van a comparecer, la Mesa calificará y admitirá a trámite la petición y se incluirá en la sesión de la Junta de Portavoces de la misma fecha que la sesión de la Mesa o en la inmediatamente posterior, a fin de que se pronuncie sobre la procedencia o no de la misma y se señale con precisión su objeto. Si se acordara la comparecencia, se cursará invitación a la persona o personas requeridas y se comunicará a la presidencia de la comisión correspondiente que el asunto está disponible.

6.- En el supuesto de que los grupos junteros no hayan determinado las personas concretas que van a comparecer, una vez se hayan registrado las solicitudes de comparecencia, por parte de la Secretaría General se llevarán a cabo las gestiones oportunas con la entidad o colectivo correspondiente para poder determinar dichas personas. Una vez calificada y admitida a trámite la solicitud por la Mesa, se incluirá en el orden del día de la Junta de Portavoces cuando se conozca la identidad de las personas comparecientes. En caso de que no se conozca, se dejará el asunto pendiente de la siguiente sesión de la Junta de Portavoces por dos veces, archivándose el expediente en caso de no se adopte el acuerdo en dicha sesión.

7.- En caso de existir una petición de comparecencia en sesión informativa por parte de personas o colectivos y, posteriormente, se solicitase por un Grupo Juntero su

ekimen bietan proposatzen diren pertsonen edo kolektiboen nortasuna eta kopurua berbera denean.

8.- Batzordearen deialdia egitean, idazkaritza Nagusiak agerraldia egin behar duten pertsonen kolektiboari deialdia luzatuko zaio eta agerraldia egitearen inguruko xehetasun guztiak emango zaizkio (pertsonek gehieneko kopurua, bilkuren izaera publikoa, azalpenerako beharrezko materialak eta abar).

9.- Batzordean solik agertu ahal izango dira batzarkide-taldeek adierazitako edo ondoren zehatutako pertsonak. Batzordeburuak ardura hartuko du ebazpen hau egoki bete dadin. Solik ezinbesteko kasuetan edo aparteko inguruabarrak gertatzen direnean, eta Batzordeko lehendakariaren irizpidearen arabera baimena emango da agerraldia egin behar duten pertsonetako bat edo batzuk ordeztzeko. Batzordeburuak, ondoren, irizpide horren berri eman beharko dio Mahaiari.

#### B) BATZORDEEN BISITAK ETA JOAN-ETORRIAK BATZAR NAGUSIEN EGOITZATIK KANPO

1.- Batzordeak bisita bat egiteko talde edo batzarkide baten proposamena honela izapidetuko da:

a) Mahaiak kalifikatzea eta Batzordeari bidaltzea, egitea ala ez egitea adostu dezan.

b) Batzordeak bisitaren xehetasunak onestea: xedea eta bisitatuko diren lekuak.

c) Erabakiaren kontu ematea Mahaiari. Mahaiak komunikazio bat bidaliko die bisitatuko den lekuaren ardura duten pertsonari, eta bertan adieraziko dizkie bisitaren xehetasunak, batzordeburuaren datuak, eta jakinaraziko dio bisita horretan hedabideak izango direla, baldin eta bisitatu beharreko lekuko arduradunek kontrakoa adierazten ez badiote Batzordeko lehendakariari. Halaber, Mahaiak erabakitako bisita egiteko bitartekoak bideratuko ditu.

2.- Bisita bat egiteko proposamena agerraldi-egileren batek edo Foru Aldundiko kideren batek egingo balu, aurreko kasuan bezala izapidetuko da, salbu eta batzordean *in voce* eginez gero bertan adostuko balitz. Mahaiari onetsitakoaren berri eman beharko zaio 1 c) atalean ezarritakoaren ondorioetarako.

3.- Adostutako bisita aldatzea, xedeari edo lekuari dagokionean, batzordearen gai-zerrendako aldatetzat joko da eta, hortaz, gauzatzeko Arabako Batzar Nagusietako Funtzionamendu Araudiaren 73.4 artikuluan aurreikusitako erregelamendu-betekizunak bete beharko dira.

4.- Behin 1.c atalean adierazitako Mahaiari egin beharreko

comparecencia, sólo se acordará su acumulación cuando coincida la identidad y número de las personas o colectivos propuestos en ambas iniciativas.

8.- Cuando se realice la convocatoria de la comisión, desde la Secretaría General se convocará al colectivo o a las personas comparecientes, informando de todas las circunstancias para la sustanciación de la comparecencia (número máximo de personas, carácter público de las sesiones, necesidades materiales para la exposición etc.)

9.- Ante la Comisión sólo podrán intervenir aquellas personas indicadas en el Acuerdo de la Junta de Portavoces, cuidando el Presidente o la Presidenta de la Comisión de que se cumpla esta disposición. Únicamente en caso de fuerza mayor o circunstancias excepcionales, a criterio de la Presidencia de la comisión, del que deberá dar cuenta a la Mesa posteriormente, se permitirá la sustitución de alguna/s de las personas comparecientes.

#### B) VISITAS Y DESPLAZAMIENTOS DE LAS COMISIONES FUERA DE LA SEDE DE LAS JUNTAS GENERALES.

1.- La propuesta de realizar una visita por una comisión si parte de un Grupo Juntero o procurador o procuradora tendrá la siguiente tramitación:

a) Calificación por la Mesa como actividad propia de la comisión y su remisión a dicha comisión para que acuerde o no su realización.

b) Aprobación por la comisión de los términos de la visita: objeto de la misma y lugar o lugares a visitar.

c) Dación de cuenta del Acuerdo a la Mesa, desde la que enviará una comunicación a las personas responsables del lugar que se va a visitar, indicando los pormenores de la visita, los datos de la presidencia de la comisión, e informando de la presencia de los medios de comunicación en dicha visita, salvo que se indicara lo contrario por parte de las personas responsables del lugar a visitar a la Sra. Presidente o Sr. Presidente de la Comisión. Asimismo, la Mesa dispondrá los medios necesarios para realizar la visita acordada.

2.- Si la propuesta de realizar una visita partiera de algún compareciente o de un miembro de la Diputación Foral la tramitación será la misma que en el caso anterior, salvo que, efectuada "in voce" en la comisión se acordase en la misma sesión, debiéndose de dar cuenta de lo acordado a la Mesa a los efectos establecidos en el apartado 1 c), y de su calificación o no como actividad propia de la comisión.

3.- La modificación de la visita acordada, en cuanto a su objeto o lugar, se considerará como modificación del orden del día de la comisión, debiendo reunir su acuerdo los requisitos reglamentarios previstos en el artículo 73.4 del Reglamento de funcionamiento de las Juntas Generales de Álava.

4.- Una vez realizada la comunicación de la Mesa indicada en

komunikazioa eginda, kasuan kasuko batzordeburuak izango du batzordearen erabakia gauzatzeko egin beharreko gestioak burutzeko ardura. Zehazki, bisita titulartasun partikularreko edo beste instituzio batzuen titulartasuneko lokal, instalazio edo lursailera egingo balitz, batzordeburuak bertan sartzeko baimena eskatu du, eta Ganberako Presidentziaren lankidetzara eskatu ahal izango du, beharrezkoa balitz. Halaber, bisitaren deialdia egiteko orduan, Idazkaritza Nagusiari jakinaraziko dio hedabideak bertan egotea posible den.

5.- Batzordeen bisitetara batzorde horretako kideak joan ahal izango dira, bai eta Ganberako edozein batzarkide eta batzarkide-taldeetako aldi baterako beharginak, aparteko kasuak izan ezin; Halakoetan aurretiaz egin beharko zaio kontsulta Batzordeko lehendakariari eta Ganberako Lehendakariari. Kasuan kasuko batzordeburuak izango du atal honetan ezarritakoa betearazteko ardura.

#### **Xedapen indargabetzailea**

Indargabetzen da 2017ko apirilaren 11ko izaera orokorreko ebazpena.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 16  
Presidentea, Pedro Ignacio Elósegui González de Gamarra

[AURKIBIDEA]

el apartado 1.c, la presidenta o el presidente de la comisión correspondiente será la persona encargada de realizar las gestiones oportunas para llevar a efecto el acuerdo de la comisión. En concreto, si la visita se realiza a locales, instalaciones o terrenos de titularidad particular o de otras instituciones, solicitará el acceso, pudiendo interesar la colaboración de la presidencia de la Cámara, si fuera preciso, para tal fin. Asimismo, en el momento de disponer la convocatoria de la visita, comunicará a la Secretaría General si no es posible la presencia en la misma de los medios de comunicación.

5.- A las visitas de las comisiones podrán acudir los y las miembros de la Comisión correspondiente, cualquier procurador/a de la Cámara y el personal eventual de los grupos junteros, salvo casos excepcionales que deberán ser consultados previamente a la presidencia de la comisión y a la presidencia de la Cámara. La presidenta o el presidente de la comisión correspondiente será la persona encargada del cumplimiento de lo dispuesto en este apartado.

#### **Disposición derogatoria**

Queda derogada la Resolución de carácter general de 11 de abril de 2017.

Vitoria-Gasteiz, 16 de octubre de 2018  
El presidente, Pedro Ignacio Elósegui González de Gamarra

[SUMARIO]